

IÑAKI FRIERA

Zureak egin du

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2009 Iñaki Frieria

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2009ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

«Baten batek lanpara bat zintzilikatu du zero beltzean», esaten zidan amak ilargi betea erakustearekin batera. Aurpegi zikineko astroari begiratzen nion, eta ondoren amari, nire betazalak gero eta pisutsuago. Batari zein besteari esker oneko irria erakutsi nahi izaten nien, baina ezin, keinua lanbrotzen baitzidan loak. Aldian-aldian begiak zabalduz, ilargi anderea eta ama han ziren konprobatzean, gero eta apalago entzuten nuen sehaska kanta: «Egizu lo, maitea, egizu lo».

Orain, etxeko leihoen forjazko barren artetik niri begira dagoela sentitzen dut; zerua ia osorik estaltzen duten hodei formagabeetan bere tamainako behatxulo bat egiten jakin duela; orban beltzez zipriztindua aldatu barik «egizu lo, maitea, egizu lo» esan nahi didala. Baina ezin, bihar epaia emango dutela jakiteak artegatu bainau, eta loa uxatu.

Begiak itxita jabetzen naiz, duela hiru hilabetezko itzaletan galduz zihoan berbera dela zeruko

argi birakaria. Eta begiak indartsuago itxi ditudanean gomutatu zait, mahai gaineko telefonoak gauaren isila eten eta neskalgunaren berba nekatuak sorpresaz harrapatu ninduela.

- Lo zeunden?

Aurpegia zaurituta zeukan emakume bati buruz hitz egiten hasi zitzaidan, gau hartan artatu zuten bati buruz.

- Osasun txartela ahaztu du hemen, ospitalean.

Esku artean nerabilen artikuluz mintzatu zitzaidan, tratu txarren gainean idatzi behar nuen lanaz. Neskalgunaren ustez tratu txarren biktima izan baitzen emakume hura, ospitalean ukatu egin bazuen ere.

- Arduratuko zinateke txartela hari eramateaz?

- Ni? Erotu egin zara ala?

- Ospitalearen izenean joan zaitezke, eta bide batez emakumea elkarrizketatu.

- Ezta pentsatu ere. Zerbait gaizki irtenez gero arazoak izango ditugu. Itzul ezazue ohiko mekanismoen bidez.

Banekien neskagalunak ez zuela atzera egingo. Jolas modukoa zen berarentzat: zerbait erabakita eduki arren, ados ote nengoen galdetzen zidan, baimena eskatu nahi balu bezala, eta azkenean, erantzunari jaramonik egin gabe, bere kabuz ebatzitakoari lotzen zitzaion. Ez nintzen harritu biharamunean sukaldeko mahai gainean ospitaleko gutun azal zuri bat aurkitu nuenean.

Kafe beroa eskuan, akordura etorri zitzaidan hilabete lehenago idatzi nuen artikulua. Gertaeren narrazio hutsetik aldendu eta biktimaren inguruko bizipenak nabarmendu nituen; kasu polizial bati heldu beharrean, giza tragedia bat kontatu nuen.

- Lan ona egin duzu -zoriondu ninduen zuzendariak-. Kazetaritzan ezer gustukoa badut, ikerketa da. Gero eta gutxiago ikertzen dugu. Al-biste agentziek etengabe igortzen dizkigutenak hartu eta gure ikuspuntura moldatu gabe argitaratzen ditugu. Agentzien aldarrikariak baino ez gara. Galdu da benetako kazetaritzarako grina.

Mugimenduez beztitzan zituen jardunak: mahai ukabilez jo, kopeta zimurtu, ezer begien bistakoa iruditzen zitzaionean besoak eta eskuak

luze zabaldu. Indarrez ahoskatzen zituen esaldi bakoitzaren lehen eta azken silabak, hitzok bibotearen ileetan kemenik gabe trabatzearen beldur balitz bezala.

- Hauxe da artikulu bat idaztea. Ez zara mugatu herrixkara hurbiltzera, gajo hari buruzko datuak bildu, libretan zirriboratu eta gatzik gabeko artikulua egitera. Harago joan zara, albigotearen atzean ostentzen diren gertaeren bila, sentimenduen bila, bizipenen bila.

Deseroso sentitzen hasi nintzen, eskuetako izerdia atzamarren artean likatsu egiten zitzaidala.

- Hara, gazte, zure saileko buruarekin hitz egin dut. Ikerketa arlo bat zabalduko dugu. Hiru hilean behin azterketa zorrotz bat argitaratuko dugu, datuekin, argazkiekin, elkarrizketekin... baina, batez ere, sinesgarritasunarekin. Emakumeen aurkako tratu txarrei buruzko ikerketa bat egin dezazun nahi dugu.

Laguntza gutxikoa iruditu zitzaidan ospitalean egindako txostena. «Pazienteak ondoko zauriak

ditu: ebaki sakon bat eskuinaldeko bekainean, zenbait mailatune aurpegiaren eskuinaldean eta zauri azaleko bat kokots azpian. Bekaineko zauriko odol-jarioa eten eta bi puntu eman behar izan zaizkio. Kokotseko zauria garbitu eta infekzioa saihesteko antiseptiko bat ipini zaio». Neskalagunak idatzitako oharrek egoeraren gordina deskribatu zidaten lerro okerretan:

- Zer gertatu zen galdetutakoan oso urduri jarri zen emakumea. Burua makurtu eta, medikuari eta niri begiratu gabe, esan zigun aulki batetik jausi zela, aurpegiak horma jo zuela...

Gorputzean beste kolperik ba ote zuen galdetutakoan, ezetz adierazi zuen. Medikiak, ahots lasaiaz, egoerari garrantzia kendu nahi balio bezala, gogoeta ozena egin zuen, aulkitik erori eta min bakarrak aurpegian izatearen bitxikeriaz, beste batzuetan halako istorioen atzean ezkutatzen zen errealitateaz. Emakumearen kokotseko zauria garbitzen ari zen bitartean hitz-aspertuan segitu zuen, hartzailerik gabeko zehar galderak egiten, lagunarteko solas arinean, emakumearen bertsioa bere hartan utzita legez. Baina medikuaren ahotsak zimiko bat eraginda edo, hala-

ko batean emakumeak burua altxatu eta artez begiratu zion, errailetatik zerbait askatzeko ahalginean. Desafiorik gabeko begirada izan zen, estutasunean sortua. Lipar bat besterik ez zen izan, burua berriz makurtu eta lehengoari eutsi aurretik:

- Logelako kristalak garbitzen nenbilen. Airea zapaldu eta lurrera erori naiz. Hormaren kontra jo dut aurpegiarekin. Zauria artatzen amaitu baduzue, orain etxera joan beharra daukat.

Emakumeari txartela itzultzean berbatan hasteko zein aitzakia erabili behar nuen hausnarreran nindoala, geltokiaren izena iragarri zuen metroko grabazioak. Zergatik kontatuko zion ezezagun bati ospitalean ukatutakoa? Bezperako bertsioari eutsiko zion ziur aski, baldin eta aurpegiko ubelduez hitz egitea onartzen bazidan. Ez ote da errazagoa izango egia esatea? Ospitaleko langilea barik kazetaria naizela esan eta hura elkarrizketatzeko baimena eskatzea? Baina emakumea aurkitu beharrean gizona agertzen bada?

Pablo Picasso kaleko 9an, koadernoko orrien artean sartutako txartela atera eta txirrina saka-

tu nuen kolpe labur batez. Emakume ahots batek erantzun zidan interfonotik. Txarteleko izen-abizenak irakurri eta bera ote zen galdetu nion.

- Ni naiz, bai. Nor zara?

- Ospitale Nagusiko mezulari bat. Han izan zinen atzo eta zure osasun txartela ahaztu zenuen.

- Eskerrik asko. Atea zabalduko dizut.

Igogailuko ispiluak itzuli zidan irudi izutuari erreparatu nion: ezezagun baten isla. Nireak ziren beirazko xafloko begi marroiak, eskumako masaileko orin gorrixka, egun hartan egin gabeko bizarra; baina besterenak ziren begirada larritua eta ezpainen dardara. Baretzen ahalegindu nintzen, musuzapiaz izerdia garbitu eta hiru bider airea hartuz, lasaitasuna lehengora zetorkidala ohartu arteko esfortzu inoiz ikasia.

Ate ondoan zegoen emakumea, zain, esker oneko irria aurpegian.

- Mila esker -esan zidan berriro-. Ez zenuten zertan ekarri. Gaur ospitaletik pasatzeko asmoa neukan. Etxera heldu orduko konturatu nintzen falta nuela.

Disimulurik gabe erreparatu nion, eskuinaldeko bekainean eta kokots azpian zauriren bat aurkitzeko, hartutako kolpeak salatuko zituen ubelduren bat sumatu nahian. Indarkeria arrastorik gabeko begitartea zen ordea: ezta, orbaingabea.

Arazorik zegoen galdetu zidan. Zer esan behar nion pentsatzeko denborarik gabe, txarteleko izen-abizenak berriz irakurtzea otu zitzaidan.

- Neu naiz.

- Atzo arratsaldean Ospitale Nagusian izan zinen eta...

- Bai, han lapurtu zidaten.

- Lapurtu egin zizutela uste duzu?

- Hori pentsatu nuen hasieran. Nire datuak eman eta harrera mahaiaren gainean utzi nuen txartela, justu odoletan zegoen emakume bat hurreratu zenean. Mediku bat behar zuela hasi zen oihuka. Nire aurretik pasa zedin erretiratu nintzen. Seguru nengoen txartela mahai gainean utzia nuela, baina han ez ikustean eta egoerak sortutako istiluan, diru zorroan gordea nuela pentsatu nuen. Etxera iritsitakoan, falta nuela

ohartuta, ondorioztatu nuen emakume hark lapurtuko zidala. Baina ziur aski anabasa hartan lurrera erori eta... Gajoa, eta nik lapurtzat hartu⁸⁵ Gura baduzu, beste dokumenturen bat erakutsiko dizut, nor naizen egiaztatzeko.

- Ez, ez da premiazkoa.

Eskaileretatik lasterka jaitsi eta neskalagunari deitu nion gertatutakoaren berri emateko.

- Ez da posible. Aurpegian lesioak zituen emakumea artez sartu zuten larrialdiko zerbitzuan, harrera mahaitik igaro gabe.

Txartela andreari eman eta hark eskainitako nortasun agiririari uko egin niola esatean, sutan jarri zen, jokabide hark arazoren bat sortuko ziolakoan. Ez zebilen oker, baina arazoak ez ziren berak uste zuen bidetik etorri.

Bi aste geroago kartazal bat iritsi zen bulegora, aldizkariaren helbidea eta nire izena inprenta letraz idatziak. CD bat zekarren barnean. Bestelako azalpenik edo oharrik ez. Izenik gabeko word dokumentu bat eta bideo bat zeuden grabaturik.

Bi lerroko mezu ez oso argia irakurri nuen word dokumentuan:

ZERGATIK BIKTIMAREN BILA IBILI,
ERASOTZAILEA ZIGORTZEA
BILATU BEHARREAN?

Ez nuen ulertu zein izan zitekeen igorlearen asmoa mezu kriptiko hura bidaltzean. Erantzunak bideoan egon behar zuen.

Entzungailuak ipini eta ezkerretara biratu nuen pantaila, ondoko mahaietan lanean ari zirenek bideoa ikus ez zezaten. Begiek segundo pare bat behar izan zuten grabazioaren kalitate txarrera egokitzeko, baina berehala murgildu ziren testuaren argigarri izan behar zuten irudietan.

Gaua zen. Gizon batek auto baten atea zabaldu eta barruko emakumea, besotik indarrez tiratuz, kanpora atera zuen. Gizonarengandik askatu eta berriz autoan sartzea lortu zuen emakumeak, atea ixtera iritsi gabe. Gizonak ileetatik oratu eta lurrera bota zuen; ostikoka hasi zitzaion, gorputz osoan, non kolpatzen zuen kez-

katu gabe. Oihuka ari zen emakumea. Lazgarriak ziren burua eta aurpegia besoez babesteko aha-
leginak, baina gizonaren etengabeko kolpeek ezinezkoa bihurtzen zuten defentsarako aukera. Hurrena besoetatik basaki tira eta herrestan eram-
an zuen espaloira, emakumeak hankak errepi-
deko asfaltoan iltzatzeko indarra alfer eginez.

Eskuak aurpegiaren aurrean elkartu nituen, eta sudurra eta ahoa hatzen artean sartu. Arnasa botatzen eta hartzen hasi nintzen, birikek atzera ekartzen zidaten aire beroa sentitzen, imajinek sortutako itomena arindu nahian. Bideoa amaitu zenean, ordenagailuaren pantailaren gainetik begiratu nuen, inor nire egonezinaz ohartua zen ikusteko. Eskumako lankideari begiratu nion, ibilgailuei buruzko aldizkari batzuen orriak pasa eta pasa ari zen. Ate ondoko mandataritari begiratu nion, denbora-pasen aldizkarian murgilduta zegoen.

Berriro zabaldu nuen WMV artxiboa, arreta beste detaile batzuetan jartzearren. Ez zen beste inor ikusten kale ilunean. Lekua ezagutzea ezinezkoa zen: doi-doi ikus zitezkeen arkupeak au-

toaren atzean, atarrietako argi horixka motelak itzal bihurtuak.

Astakeriaren lekuko izandako norbaitek grabatu zuen. Zuzendariari grabazioaren eta oharren berri ematea otu zitzaidan, irudiek zuzendariak agindutako lanarekin lotuta egon behar zutelakoan. Baztertu egin nuen aukera hura. Bideoa bidali zidanak jakin behar zuen zertaz arduraturik nenbilen. Nork orde? Erantzuna bideoak eman behar zidalakoan, ostera ere aztertu nituen irudiak. Atoan gelditu nuen halako batean; atzera eraman nituen lehen irudiak, emakumea gizonaren beso harraparietatik askatu eta autoan aterpe bilatzen zuen momentura. Eskumatar mugitzen zen irudia, erasotzailea fokura eraman balute bezala, baina behar baino gehiago desplazatuz. Lipar bat baino ez zen, berehala fokatu zuen-eta emakumea arrastaka zerabilen gizona; lipar bat, bai, baina nahikoa atzeko arkupeetan aseguru etxe baten errotulua grabatuta uzteko.

Telefono gidan bilatu nuen aseguru etxearen izena, hirian bulego gutxi edukiko zuelakoan. Zuzen nengoen, hiru baino ez. Lehenengoa bere-

hala baztertu nuen; ondo ezagutzen nuen bulegoa zegoen kalea, eta han ez zegoen arkuperik. Bigarrena, Maurice Ravel etorbidean zegoen. Baiona kalean, hirugarrena.

Ibaia zeharkatzen duten zubietako baten beste aldean hasten da musikariaren omenezko kalea, hiritik iparralderantz irteteko bideetako bat. Hura baitzegoen aldizkaritik hurbilen, hara jo nuen aurrena. Aseguru etxearen bulegoa baina, ez zegoen hirigunetik hurbil, hiriak izana ia galtzen duen inguruan baizik. Etorbidean aurrera jo nuen, jipoia gertatutako lekura heldu eta zer egingo nuen pentsatzen. Zertarako balio zidan gertalekuraino heltzeak? Zertarako bilatzen ari nintzen bideoak eskaini zidan erreferentzia bakarra? Ez nuen erantzunik aurkitzen, barruko senak hala jokatzeko agindu zidala esan nuen neure kabutan, aurpegian burlazko keinu bat sentitzeaz batera. Ez nuen senaren kontuaz sinesten, baina bideoa eta mezua bidali zizkidan pertsonak zerbait nahi zuen niregandik, eta aseguru etxearen kanpoko errotulua zen zantzu bakarra.

Hogeita hamabost minutu geroago, errepi-deaz beste aldean ikusi nuen bulegoa, bideoan bezalako errotulu bat ate ondoko kristalaren gainean, alborik albo deigarri. Baina arkuperik ez inguruan. Duela gutxi eraikitako etxe baten behaldean zegoen bulegoa, zur berriko atari handi baten ondoan. Bat-batean zalantza egin nuen: hiri honetakoak ote ziren bideoko irudiak? Zelan izan nintekeen hain dorpea!

Autoentzat bi norakoa den etorbidea zeharkatu nuen, hara eta hona zetozenen protesta bozinen artean sigi-saga. Bulegoaren leiho zabalari itsatsi nion sudurra, bestaldeko parajea ikustearren. Mahai biribildu baten atzean, ile kizkurreko emakume bat nuen nire mugimenduen lekuko harritua. Barrura sartu nintzen.

- Zertan lagun diezazuket?

- Ezagutzen duzu Baiona kaleko bulegoa?
-galdetu nion.

- Bai.

- Arkupe batzuetan al dago?

- Ez. Nik dakidala, han ez dago arkuperik.

Taxian itzuli nintzen erredakziora, haserre. Ez nekien zer egin behar nuen, nondik segi neza-

keen begiratzan. Jipoiak gertatu zen lekua ezin da oso urrun egon, pentsatu nuen. Bideoa bidali didan pertsonak ezagutzen banau, ezin da urrun bizi; ezin da jipoiaren gertalekua oso urrun izan. Metropoliaren planoari begiratu eta atoa baztertu nuen ideia bururatu berria: astakeria zen aseguru etxeak aldiriko herrietan bulegorik zuen bilatzen hasia.

Beste ideia bat otu zitzaidan. Maurice Raveleko aseguru etxera deitu nuen.

- Barkatu... duela ordu erdi edo, hor izan naiz, Baiona kaleko bulegoaz galdetzen. Oraingo bulegoa ireki aurretik, ba al zen beste bulegorik inguruan, arkupe batzuen azpian?

Jesus Guridi kalea Maurice Ravelekin lotzen den tokian zenbait etxe eraikitzen ari ziren. Nengoen tokitik, laneko hesiek errepidearen zati bat hartzen baitzuten, ezin nezakeen ikusi eraikinen behaldekoko forma. Obretako behin-behineko pasabidean aurrera joan ahala erreparatu nion metro batzuk haragoko arkuek eutsitako estalpeari. Altuera handiko arkua zen, zutoin karratuen gaine-

koa, eta Jesus Guridi kalera irteten ziren bi kale perpendikularren arteko eraikin osoa hartzen zuen. Hiru atarik konpartitzen zuten espazio hura, eta hiruren artean zenbait negozioren lokalak zeuden: fruta denda bat, taberna bi, ordenagailu denda bat eta salgai zegoen beste lokal bat, goiko aldean oraindik kendu gabeko errotxua zeukana: aseguru etxea.

Kamioiek utzitako lokatz arrastoa saihesteko ahalegin antzuan kalea zeharkatu nuen, aurreko espaloiko kafetegira, zerbitzariren batek datu gehiago eman ziezadakeelakoan. Kafe hutsa eskatu eta kristalaren ondoko mahaira eseri nintzen. Handik oso ondo ikusten zen aseguru etxearen lehengo bulegoa.

Mutilak kafea mahai gainean utzi eta besterik behar nuen galdetu zidan.

- Bai. Atrebentzia ez bada... Musika entzuteko erabiltzen ari zaren ordenagailuan CDak ere ikus daitezke, ezta?

- Hala uste dut.

- Kazetaria naiz. Utziko al zenidake CD batean grabatutako bideo labur bat ikusten? Premia handiko kontua da.

- Niri berdin dit, nagusia kanpoan da-eta.

Leihotik begira nengoela susmo bat izan nuen: irudiek oroimenean utzitako oihartzuna egia izatera, kafetegitik grabatua izan zitekeen astinaldia.

Lehortutako edalontziak apaletan jartzen zebilen mutila, nirekiko inolako interesik gabe. Halako batean, niregana bueltatu zen, ordenagailuko bolumena kentzeaz ahaztu eta lokal osora zabaldu baintuen jipoitutako emakumearen oihuak. Bolumena jaitsi nahi izan nuenerako aldamenean neukan, bideoko irudiei begira.

- A, zafraldi hura! Pasada ederra eman zion!

Hiru aste lehenago gertatu zen dena. Gau hotza zen eta taberna laster itxiko zutelakoan, pintxoak babesteko bitrinak garbitzen ziharduen mutilak. Bezero bakarra zegoen, andre bat, berrogeitaka urtekoa. Kafea hartzen ari zen, eskuan etengabe zerabilen telefonoari begira, dei baten zain bezala. Supituan kolpe gogor bat entzun zen kalean. Mutila eta andrea lasterka hurbildu ziren atera. Istripu bat zela pentsatu zuen zerbitzariak, bigarren lerroan geldirik zegoen auto baten aurka atzetik etorritako batek eragin-

dako kolpea. Baina atzeko autoaren gidaria kanpora irten eta bestean zegoen neska gaztearen kontra oldartu zen, puta eta urdanga garrasika.

- Telefonoaren bila joan nintzen, Poliziari deitzeko. Andrea, aldiz, jipoia grabatzeari lotu zitzaion. Inguruko etxeetako auzokideak leihotara irten eta gizonari irainka eta karguka hasi zitzaizkion. Hanka egin zuen, neska lurrean botata utzita. Gero andrea neskarengana hurreratu eta lurretik altxatzen lagundu zion. Neska autoaren atzealdean sartu eta andrea jarri zen gidari, baloian zegoen lekuko bati ospitalera zeramala esanda. Abisatzeko Poliziari, ospitalera zeramala. Eta alde egin zuten.

- Deskribatuko didazu andrea?

- Ez naiz gogoratzen. Ez nion gehiegi erreparatu. Istiluari begira nengoen ni. Berrogei urte, edo gehiago, berrogeita hamar agian. Garaia, argala. Ile luzea, baina ez oso luzea, sorbalden parrerainokoa.

- Ilehoria?

- Ez. Gaztaina kolorekoa esango nuke.

Koadernoan apuntatu nituen mutilak emandako datuak. Kanpoan kalearen zenbait irudi

grabatu nituen, zertarako nahi nituen jakin gabe. «Badaezpadako materiala biltzen ari zara», adorea eman nion neure buruari, noraezean nenbirelako sentsazioa izoztu guran, ordura arteko datu urriak geroko kontserba nitzakeelakoan. Sentsazio bera izan nuen bi ordu geroago etxean, hozkailutik bezperako dilistak atera eta mikrouhin labean berotu nituenean: oraingo informazio desegituratua biharko elikagaia izan daiteke.

Telefonoa dantzan erabili nuen iluntzean.

Neskalagunari deitu eta bideoaren berri eman nion.

- Irudietan agertzen den neska eta orain dela bi aste ospitalean artatu zenutena berbera izan ote litezke? -galdetu nion.

Harrituta geratu zen, lotura haren nondik norakoa eskapatzen zitzaiola:

- Ez dut ulertzen nork eta zertarako bidali dizun bideo hori. Zergatik ez diozu Poliziari eraman?

- Imajinatu zelako arrakasta, bideoaren atzean dagoen misterioa argitu eta hor ezkutatzeko den istorioaz artikulua lantzen badut.

Sinesgabe eta pasiorik gabe, baina bidegurutzean sartzen utzi zidan:

- Denbora alferrik galdu gura baduzu...

Platerak-eta azpilean jarrita, langelara joan nintzen eta CDa sartu nuen ordenagailuan, baso bat ardo prestatzeaz batera. Hainbat aldiz irakurri nuen word dokumentua. Koilarakada bete dila ahoratzen nuen bakoitzean, esaldien mezu kriptikoa digeritzen ahalegintzen nintzen. Zorri bat eta gehiago irakurri, orduan eta trabatuago sentitzen nuen, eztairik behera ezin eraman nezakeela. Trago bat ardo hartu nuen, *biktima* eta *erasotzaile* hitzetan begiak aldi berean jarrita, dikotomia hartan sakondu nahian, bi hitzetan, eta ez irudietan, egon behar zuelakoan igorlearen mezu ezkutatuak.

Biktimaren minak gatibatua nintzela pentsatu nuen, biktimari begira jardun nuela bideoa ikusi nuen aldiro: emakumearen oihuak, besoen mugimendu etsiak burua eta aurpegia babestu nahian, erasotzailearengandik askatu eta autoan

berriz sartzeko ahalegina... Eta erasotzailea? Iru-
diak ez ziren batere argiak: gaua izateaz gainera,
urrun samarretik grabatuta zeuden. Baina,
agian, irudietan lor nezakeen erasotzaileari bu-
ruzko daturik.

Bideoaren artxiboa zabaldu nuen. Gizona
neskaren autora heltzen den unean hasten da,
atea indarrez ireki eta barruan den neska bor-
txaz ateratzen duen unean. Kafetegiko mutilaren
hitzetara ekarri nuen irudien aurreko momentua,
erasotzaileak autoaz jo zueneko. Eta auto istri-
puak eragindako indarkeria besterik ez bazen?
Tratu txarrekin lotu nituen gertaerok hasieratik,
baina istripu hutsa izan zitekeen, gizon bortitz
baten erreakzioa.

Pentsamendua osatu gabe ere, ezetz eran-
tzun nion neure buruari: posible zatekeen, baldin
eta irudiok beste giro batean eskuratu banitu,
mezu ilunik ekarri ez balute. Garai hartan lan-
tzen ari nintzen artikulua gaiarekin lotu behar
ziren irudiok, artikulua karira bidali baitzizki-
daten.

Erasotzailearen autoa 4x4 horietako bat zen.
Aldizkarian kotxeei eta motorrei buruzko atalaz

arduratzan zen lankideari deitu nion. Irudi txar haiek erakusten zizkidaten xehetasunak aztertuz, autoaren deskripzioa egiten saiatu nintzen:

- Aurrealdean bi barra ditu. Horizontalean zabalitzen dira, ezker-eskumako argiak inguratuz, ia gurpilekin bat egiteraino. Beste biak bertikalak dira, autoaren erdialdean hasi, goiko barra horizontalaren gain-gainean eta autoaren behealderaino heltzen dira. Barra bertikalen erdian, beheko barra horizontalaren gainean, beste bi argi daude. Aurreko kapotaren gainean goragune bat dago, bi zulo ditu, motorra aireztatzeko edo. Behealdeak, gurpilen altueraraino gutxi gorabehera, grisa dirudi, gris metalizatua; hortik gora, berdea. Albo bakoitzean hiruna leiho ditu: bi, ateetan; bestea, atzeko gurpilen gainean. Goiko aldean beste barra batzuk ditu, alboetan...

- Mitsubishi Montero bat da, Montero Sport bat. Oso garestia da kotxe hori.

Google bilatzailean Mitsubishi hitza idatzi nuen. Eta Mitsubishi orrian Montero Sporta bilatu nuen. Autoari buruzko publizitatea zabaldu zen goiko aldean, autoaren ezaugarriez eta ho-

bekuntzez informatzen zuen bideo labur bat, zeru ezin urdinago baten azpian grabatua. Zalantzarik ez, hura zen autoa, baina pixka bat aldatua; ziur aski modelo berriago baten publizitatea izango zen. Nolanahi den, ezin nahas nitekeen: mundu zoragarri batean garaile izateko behar den autoa eta irudi bortitzez betetako bi-deokoa, biak ala biak, Montero Sport ziren.

Oso garestia zela aipatua zidan lankideak, eta hori egiaztatu nuen webeko prezioetan. Ez zen edonork eros zezakeen autoa, ez behintzat ni bezalako kazetari hasiberri mileurista batek. Eta hala izatera, pentsatu nuen, laburra izan behar du azken urteetan halako ibilgailua erosi duen jendearen zerrendak. Web orriaren gainerrako aukerak aztertu nituen, toki bakoitzeko Mitsubishihiren dendak eta banatzaileak agertzen ziren zerrenda zabalgarri batean. Saltoki bakarra zeukaten hirian, Garapenaren eta Berrikuntza-ren bandera bihurtu nahi zuten industria parkean, hiriaren hegoaldean.

Unibertsitateko ikaskide batekin gogoratu nintzen. Karrera amaitu eta berehala hasi zen aitarien inprentan, aita zaharrak erretiroa hartuta.

- Mesede bat eskatzeko deitzen diat.

- Bota!

- Suposatzen diat inprentan egiten dituzuen lanen artean... Badakik, bisita txartelak-eta... Horien artean aseguru etxeenak ere edukiko dituk, ezta?

- Jakina.

- Aseguru etxe baten txartela behar diat, nire izen-abizenak bertan inprimaturik dituen txartel bat.

- Zer?

Lasai egoteko esan nion, arazorik ez zela sortuko. Adiskide bati txantxa bat egiten laguntzeko zela: haren ezagun baten ezkontza zela-eta, adarra jo nahi ziotela, erosi berria zuten etxebizitzaren gainean istorio bat asmatu eta ziria sartu nahi ziotela. Ezkongaiak ezagutzen ez ninduezez, aseguru agentearena egiteko prest nengoan galdetu zidaten lagunek. Eta ni, fakultateko garaietan legez, parrandarako beti prest.

- Halako txartel bat egin eta arazoren bat sortzen bada, non egina den jakinez gero, erre-kara botako diat inprentaren izen ona. Eskatu egidak beste zerbait, baina ergelkeria hori ez!

Benetakoak ziruditen txartelek: aseguru etxearen nortasun irudia zeraman albo batean; nire izen-abizenak, haren eskuinaldean. Izen-abizenen azpian, letra lodiagoz, *aseguru agentea* jartzen zuen. Armairuan nuen trajea hartu, alkandora zuria jantzi eta ezkontzetarako erabiltzen nuen gorbata urdina korapilatu nuen lepoaren bueltan. Etxetik irten aurretik ispiluan begiratu nion agenteari, eta berak begi keinu bat itzuli zidan, harro.

Leiho ezin handiago batzuek agurtzen zaituzte Mitsubishihira heldu bezain pronto. Barrutik auto ezin ederrago batzuek dei egiten dizute, haien tapiza garbia, haien gurpil plater distiratsuak, haien larruzko bolante hatz markarik gabekoak begiratzuz mozkor zaitezten.

- Aseguru etxe batetik nator - esan nion irribarre ezin eramanezko komertzial bati-. Geren-tearekin hitz egin behar dut.

- Itxaron momentu bat, ez dakit libre dagoen. Emakume gazte batekin itzuli zen komertziala. Aseguru etxearen txartela eman eta nortasun

agiria erakutsi nion, txarteleko datuak nire nor-tasunarekin bat zetozeela egiazta zezan. Bere burua aurkeztu eta zer behar nuen galdetu zidanean, gai pribatua zela eta onena bere bulegoan hitz egitea zela iradoki nion.

Artez azaldu nion bisitaren zergatia:

- Azken urteetan Montero Sport bat erosi duten pertsoneri buruzko datuak behar ditugu.

- Ez dugu datu pribaturik ematen -adierazi zidan, espero nuen bezala.

- Orain dela egun batzuk gertatutako istripu bat ikertzen ari gara -amore ematen ez duen agentearena egin nuen-. Istripuaren eragileak ihes egin zuen, gure bezeroa larriki zauritu ondoren. Autoaren deskripzioa badaukagu; matrikula, ez. Hirian Mitsubishi denda bakarra hau izanik, hemen erosia izan litekeela uste dugu. Autoa modelo zahar batekoa da, eta duela bost urteetatik atzera saldutakoen informazioa besterik ez dugu behar.

- Datu pribatuak eskatzen ari zara. Ulertuko duzunez, bezeroak dira gure altxor nagusia. Ezin dizut lagundu.

- Epaile baten aginduarekin itzuli beharko dut orduan. Ikerketa ofiziala abiatuko dugu.

- Zer ikerketa mota?

- Epailearen agindua eskatuz gero, epaileak azken urteotako informazio gehiago nahi izango du: fakturak, BEZ aitorpena, bezeroen datuak... Ohiko datu arrunt horiek.

- Zer kotxe esan duzu?

- Montero Sport bat.

Azken bost urteetan nik uste baino Montero Sport gehiago saldu ziren hirian, baina gutxiago izan ziren Fairway zeritzoten berde kolorekoak, eta askoz gutxiago goiko zein erdiko defentsekin saldutakoak. Sei. Erosle guztien datuak eman zizkidan: izen-abizenak, helbideak, autoen deskripzioa eta erosketa urteak.

Erredakziora joan eta seien izenak arakatu nituen Googlen. Emaitzen oihanean ordubete igaro eta gero, biren lanbideari buruzko datu fidagarriak lortu nituen: notario bat eta dentista bat. Besteei buruzko informazioa eskasa zen: zirkulazio isunak, hauteskunde batzuetako hauta-

gai zerrenda, salerosketa batzuei buruzkoak... Baina ez haien lanaren berri eman ziezadakeen ezer.

Notarioaren eta dentistaren helbideak aztertu eta hurbilen neukana aukeratu nuen.

Bulegotik irten, etorbidean ibai alderantz egin eta zubira heldu baino hogeit bat metro lehenago dagoen eraikin eklektikora hurreratu nintzen. Erdi-puntuko baoaren handia miretsi nuen atarian: arkuaren barruan ere kristalezko bao bat; azpian, inposta eta hari heltzeko marmolezko bi zutabe monolitiko. Burdinazko ate landua zeharkatu orduko eskailera helikoidalaren ederrak erakarrita, oinez igotzea erabaki nuen hirugarrenera. Mailadia bigarreneraino bakarrik heltzen zen; han, hallaren alde batean, zurezko eskailera hartu behar izan nuen goiko pisuko bulegoen korridorera heltzeko. Pasilloak jatorrizko apaingarriak zituen sabaian, paramentu bertikaletan eta zoruan. Arrandiaren ederrean ia itota, notaritza iragartzen zuen xafla dirdaira iritsi nintzen. Notarioaren eta bazkideen izen-abizen hanpatuen azpian goizeko ordutegia: 10:00etatik 13:30era.

Txiki sentitu nintzen atez beste aldean. Halla, handia zen oso. Gainerako geletarako distribuzioa handik antolatzen zela ohartu nintzen, maskor baten moduan. Ardatz nagusiaren buruan kaobazko mahi ilun bat zegoen, gelaren luze-zabalean nabarmen. Perlazko lepokoa saman, zer behar nuen galdetu zidan idazkariak.

- Notarioarekin egon behar dut, gai pribatu baterako -erregutu nion, lagunak egindako txartela emateaz batera.

Notarioaren gelan ostendu zen emakumea, eta ordu laurden geroago irten zen, sar nintekeela adieraziz.

Zer esan ez nekiela gelditu nintzen, aulkitik altxatu eta eskua luzatuta niregana zetorren gizona espero baino askoz zaharragoa baitzen. Hirurogeitaka urte kalkulatu nizkion lehen begiratuan. Ezin zuen izan bideoan agertzen zen gizona.

- Ederto, jauna, zertan lagun diezazuket? Listua irentsi nuen.

- Suzuki baten jabea bilatzen ari gara. Istri-pua eragin eta ihes egin baitzuen, gure bezeroa zauriturik utzita.

- Nik ez daukat marka horretako autorik.
- Hori da eman diguten informazioa...
- Informazio okerra eman dizuete.

Ahalik eta errespetuzko forma hanpatuenak erabiliz barkatzeko eskatu eta alde egin nuen, bere mahaiaren atzean zeukan Antonio Gezalaren koadro hura oso ederra zela aitortzea ahaztu gabe.

- Ez da Gezalarena -argitu zidan-, baina ederra da, bai, eskerrik asko.

Pasillora irten eta atearen kanpoko janban oinarritu nintzen, igarotako une txarrak eragin zidan egonezina arindu nahian. Hartan nengoe-la, notarioaren idazkaria etorri zitzaidan ustekabean; niri begira gelditu zen, poz ezin disimulatuzkoa aurpegian. Lehenengoz ikusi nuenean baino garaiagoa iruditu zitzaidan; kolore ilunez apaindutako ile horia luze erortzen zitzaion sorbaldak jasotzen zizkioten besaburukoetan; kope-taren ezkerretik begia erdi estaltzen zion aldean izan ezik, gero eta kizkur nabariagoetan amaitzen zen. Atearen kirtenetik kanporantz tiratu, atea ondo itxita zegoela ziurtatu eta ahots mehe batekin esan zidan:

- Sofiarengatik etorri zara?

* * *

Aitaren adierazpena

Alaba gazteena da Sofia. Nobioa zuela esanez deitu zion amari. Eguen batean izan zen. Afaltzen etorri behar zutela tematu zitzaion andrea, nobioarekin etorri behar zuela, eta domekarako lotu ziren gurean.

Ailegatu zirenean, nik ireki nien atea, mutila zelangoa zen ikusteko. Formala begitandu zitzaidan, nahiz eta aurpegiko bibotea eta kokotseko bizar hura lar gustatu ez, baina formala ematen zuen.

Etxean sartu eta andrea segituan irten zen alaba ikustera; elkar besarkatu zuten, eta muxu bi eman. Nobioa sarreran zegoen guri begira, eskuan arrosa gorri bat zeukala, kolore bereko paper batean bildua. Andreari eman zion. Niri kaxa bat ekarri zidan: whisky bat, nahiko ona. Alabak esan ei zion gustatu egiten zitzaidala afaldu ostean trago bat hartzea.

Dena prest geneukan, mahaia apaindurik eta afaria zerbitzatzeko prest. Beraz, mahaian jarri ginen, beste barik. Mutila, nire eskuman; alaba, amaren ondoan. Edukazio oneko gaztea zen. Edukazio ona demostratu zuen mahaian eta afa-losteko elkarrizketan ere. Futbolaz egin genuen berba. Eta politikaz. Eta ekonomiaz.

Afarian hitz onak izan zituen denontzat: andreak egindako afariaz ez dakit zenbat bider zoriondu zuen; nire iritzia arretaz aditzen zuen, eta gero errespetu handiz ematen zuen berea, nire ikuspuntua, nahiz eta diferentea izan, aintzat hartuta. Alabaz ere gauza ederrak esan zituen: polita zela, azkarra, orduko beharlekuan segitu eta gora egingo zuela. Sano enamoratuta zegoen, edo hala begitandu zitzaigun andreari eta bioi.

Laster hasi zen bodaz berba egiten. Zertarako itxaron behar zuten, esaten zuen gure alabari begiratzuz, eta hura konforme zegoela zirudien. Andreari ere ederto begitandu zitzaion; niri, ez. Baina beste denak konforme bazeuden, zer esan behar nuen nik.

Afalostean hark ekarritako botila zabaldu eta baso bitara bota nuen, harentzat eta niretzat. Whiski ona zen, duda barik. Lehen kopa berehala hartu zuen. Beste bat ipini nion, kopa erdia edo, izotzik gabe. Mahai gainean utzitako botila hartu eta gehiago bota zuen berean, ia goraino. Harrituta gelditu nintzen. Hura ere berehala edan zuen eta hirugarrena bota zuen.

Larregi ez edateko esan zion gure alabak. Beldurtzekoa izan zen nobioaren begiratua: bekainak batu zituen, zoro batenak ziruditen begiek... Denok konturatu ginen. Ez zitzaion gustatu Sofiak kargu hartzea.

Zelan ez ginen ba lehenago konturatu? Hori da daukadan damu handia, hori.

* * *

EZ nekien nor zen Sofia, baina notarioaren idazkariak galdetutakoari baietz esan nion. Haren urduritasuna zerk sortzen zuen jakin nahi nuen.

Igogailura eramán ninduen besotik helduta, arin, tiraka, notariotzatik ni urruntzeko presaz.

Igogailuaren atea zabaldu eta barrura bultzatu ninduen.

- Bostak eta erdietan Plaza Berriko kiosko ondoan -agindu zidan-, gaztaina saltzailearen aurreko jarlekuan.

Bostak eta erdietan, alabaina, ez zen emakumea agertu. Ordu laurdena pasata zegoela, gaztainak erosi eta ni jesarrita nengoen lekura hurbildu zen gizon sendo bat, heldua, bekoki zimurtsua, begi azpi nasaia. Egunkari orria panazko praken gainean zabaldu eta fruitu erreak zuritzen hasi zen atzamar iletsekin. Klaska bitxi bat atera zuen fruitua ahoan sartzean, kraskatu aurretik zupatu egingo balitu bezala. Bizpahiru aldiz errepikatu zuen hotsa, irentsi baino lehen. Hurrengo gaztaina ez zuen hark jan: eskuan apurtu eta parkeko txintzarretan zer jan bilatzen ari ziren usoei bota zien.

Zutundu eta plazan zehar ibili nintzen, espero nuen emakumea inguruan zebilen ikustearren. Inon ere ez. Seiak laurden gutxiago ziren. Gaztainen saltoki aurreko epelera itzuli nintzen. Inguruko harritxoak mugitzen hasi nintzen oinekin, alde batera aurrena eta gero bestera, mul-

tzo txikietan pilatzen. Eta halako batean, gaztaina zuritu berri bat eskainiz, galdetu zidan:

- Zergatik Sofia?
- Barkatu?
- Zergatik Sofia? -errepikatu zuen.

Ez nuen beste ezer erantzuten jakin. Azkenengo gaztaina atzamarrez txikitu eta inguruan saltoka ari ziren moko meharrekoei bota zien. Beste hitzik egin gabe, altxatu, panazko praketa-ko apurrak astindu, papera bola batean bildu eta etorritako tokitik joan zen. Seiak ziren plazako erloju gaizki argizatuan.

Bi egun geroago zinema bateko sarrera jaso nuen bulegoan, CDa ekarri zuen antzeko azal batean bildua, nire izen-abizenak orduko letra molde berberarekin idatzita. Ordenagailuaren behealdeko erlojuak 17:24 markatzen zuen; ia bi ordu nituen pelikula hasi aurretik. Zergatik murgiltzen ari nintzen ezagutzen ez nituen uretan? Sarrera ordenagailu azpian utzi eta lanari lotzen saiatu nintzen, atrilean nuen orrira begiak eramanen; baina salto egiten zidaten eskumatik ezkerredera eta ezkerretik eskumara, auskalo nork bidalitako txartelera.

- Zer, erosi duk Montero Sporta? -galdetu zidan lankideak.

Eskuan zeukan aldizkaria pitin bat altxatu eta Montero baten argazkia erakutsi zidan, azpian zekarren prezioa seinalatuz.

- Ez duk hain garestia ere...

Aldizkariko argazkiari begira egon nintzen apur batean; so egin nuen kanpora, aurreko teilatatu bustirantz, eta CDko imajinekin nahastekatu zitzaidan paperezko irudia. Gauaren ilunean ezkutatutako erasoak ikusi uste izan nuen teilatuko erlaitzaren itzaletan; eta kanpoko euriak une batean lanbrotutako pentsamendua garbitzen zidala sentitu nuen. Eta erantzun nion:

- Badiat eskaintza hobe bat.

Zazpi areto izan arren, pertsona gutxi geunden 19:30eko funtziorako. Hal Hartley-ren *Fay Grim* zen gonbidatzaile ezezagunak aukeratutako filma, jatorrizko bertsioa, azpituluduna. Peli-kula hasi baino hamar minutu lehenago sartu nintzen eta zegokidan jarlekua bilatu nuen, atze samarrean, hormaren ondoan, lauko lerro batean. Gazte bikote bat zegoen beste aldean, paretatik nahikoa hurbil, jolasean; gizon bakarra

erdialdean, pantailatik hurregi, betaurrekoak garbitzen; hiru emakume zeuden gizonaren atzean, hiru lerro atzerago. Jarlekuen artean ibili nintzen pitin batean, gizonaren arreta ekarri nahian, hura izan zitekeelakoan gonbidatzaile ezezaguna. Gizonak betaurrekoak ipini, berriz kendu eta indarrez igurtzi zuen ezkerreko lentea, arkutik kontu handiz helduz. Jarlekuaren aldeko pasabidera irten nintzen; ateraino hurbildu eta sarreran zegoen aldizkaria hartu nuen; nire lekua baino beherago jaitsi nintzen, aldizka sarrerari aldizka pasabide ondoko jarlekuan zenbatgarren ilara zen erakusten zuen zenbakiari so, galduta banengo bezala. Tarteka gizonari begiratzen nion, baina andereFlor itxurako hiru emakumeak bakarrik ohartu ziren nire mugimendu deserosoz. Tupustean argiak itzali eta filmaren aurreko publizitatea ematen hasi zirenean joan nintzen nire lekura. Handik gizonaren silueta iluna nabari nezakeen: geldi, erne, bizkarrak eta burua zut, pantailako irudiei adi; baina bat-batean eskumako atea zabaltu zela sumatu, biratu eta besoa altxatu zuen, agur keinua eginenez heldu berriari.

Etsi nuen. Zinema ticket hura ez zen hitzordu bat izango. Pelikulako zerbaitek argigarriren bat eman behar zidalako bidali zutela pentsatu nuen, filmeko detaile guztiei tentuz erreparatu beharko niela alegia. Parker Posey, Liam Aiken, Jeff Goldblum, James Urbaniak, Saffron Burrows... errotulu guztiak pasa zirenean, orduan gertatu zen.

Krispeta ontzi bat zekarren. Gorputza erortzen utziz jesarri zen aldameneko jarlekuan, berokia erantzi gabe. Eskukada bat krispeta eramanean zuen ahora, haietako batzuk ontzira berriz erori zitzaizkiola. Ezaguna egin zitzaidan klaska bitxi bat entzun nuen.

- Pelikula ikusia naiz -esan zidan-. Ea zuri gustatzen zaizun.

Zerbait laga zuen nire hanken gainean. Sorbalda sakatu zidan eskuaz. Eta ospa egin zuen.

Ez nintzen berehala altxatu, ez nuen zirkinik txikiena ere egin, gizonak eskua sorbaldaren gainean jartzean handik ez mugitzea eskatzen zidala ulertu bainuen. Figurari jarraitu nion begiez, eskumako aterantz, isilean, astiro. Baina egonezina nagusi, haren itzala atearen atzean desa-

gertzen ikusi bezain pronto, hark utzitako pape-
rak indarrez estutu eta atzetik joan nintzaion. Zi-
nemako harrera irten nintzenerako ez zegoen
inor. Ate nagusiaren aldean, jende ilarak antola-
tzeko xingola tinkatuen ondoan, bi atezain zeu-
den berbetan. Ingurua aztertu nuen begiratu ba-
tean: larrialdiko atea zabalik zegoen. Hara jo
nuen arineketan. Irteerarik gabeko kalezulo bat
zen; zigarreta bana erretzen ari zen garbiketako
langile parean. Haietako batek keinu adierazgarri
bat egin zidan, barrura sartu eta beste aldeko
atetik irten behar nuela uler nezan.

Bigarrenez hanka egiten uzteagatik haserre-
tuta, barrura joan eta paperak aztertzen hasi
nintzen. Plastikozko artxibo bat zen: aurreko
azala, gardena; beltza, atzekoa. Barruan, meta-
lezko bi xaflatxoz lotuta, DIN A3 neurriko orri
hori bat, ezkerreko goiko partean Ospitale Nagu-
siaren ikurra. Tratu txarreatik txosten medi-
koa zen, pazientearentzako orri kalkatua. Ospi-
talearen ikurraren ondoan, biktimaren filiazio da-
tuak: izen-abizenak, jaioteguna, egoera zibila
eta helbidea. Hortik behera: asistentzia eragin
zuten gertakizunen azalpena, aurrekari pertso-

nal interesgarriak, miaketa fisikoaren ondorioak, egoera emozionala, miaketa osagarriak, diagnostikoa, tratamendua eta jokabide plana eta oharrak.

Euria ari zuen. Jendea atzera eta aurrera zebilen aterkien azpian, harlauza apurtuetan sorturiko putzuak saihesteko sigi-saga zorabiagarri batean. Ordua begiratu eta oraindik neskalagunarekin garagardo bat hartzeko aukera nuela otu zitzaidan, hura ospitaleko gaueko txandan hasi baino lehenago.

Ez zien nire deiei erantzun. Eta gauerdian berriro ahalegindu nintzen arren, kasurik ez. Mezu bat bidali eta biktimaren historial osoa ekartzeko eskatu nion.

* * *

Ahizparen adierazpena

Sofiaren ahizpa naiz, ahizpa nagusia. Nonbaitetik hasi behar eta, Sofia iraileko egun hartan etxera etorri zenean sortu zidan inpresioaz mintzatzen hasiko naiz. Hilabete bi zeramatzan ez-

konduta. Lehen hilabetean sarri lotzen ginen kafe bat hartzeko, zinemara joateko... Baina gero eta gaitzago egin zen harekin lotzea: nik elkarrekin bazkaltzeko edo kafe bat hartzeko esaten nion eta hark ezin zuela. Halakoa izan zen gure harremana zenbait astetan. Azkenean, aitzakiaka zebilela ohartu eta gelditzera behartu nuen: haren etxera edo bulegora joango nintzela esan nion. Onartu zuen, baina ez kafe bat hartzeko edo kanpoan bazkaltzeko; nire etxean elkartu ginen, arratsalde urdin batean. Nik argi esango dut. Etxera heldu zenean, ez zuen ez ubeldurik ez zauririk ez hezur hautsirik, baina jota zegoen. Jota. Etxeko atea zabaldu nionean espektro bat ikusi nuen: oso zurbil; betaurreko beltz handiek ezin ezkuta zezaketen betazpikoen gorria; argal zegoen, masailezurak ezin nabarmenagoak iruditu zitzaizkidan aurpegi triste hartan. Atea zabaldu nionean irribarrea behartu zuen, indargea, bizi gabea. Besarkatu nuenean, oraindik senti dezaket, besoen artean eroriko zitzaidala pentsatu nuen, gorputz osoak dar-dar egin ziola begitandu zitzaidan. Ez zen Sofia. Edo,

bestela esanda, ez zen hilabete batzuk lehena-gokoa. Ez.

Ezkon bizitzaz mintzatzen hasi zitzaidan, poz antzera. Baina ez zidan begietara begiratzen. Ez zuen adorerik. Lotsa zen. Nire ahizpak ezin zidan begietara so egin, nire aurrean lotsa zelako!

Berehala lotu nuen egoera senarrarekin, eta ez nuela gezurrik entzun gura esan nion: «Niri koplak gutxi, Sofia!». Eta negarrari eman zion. Altxatu eta alde egin gura izan zuen. Ez nion laga. Sofan jesartzera behartu nuen. Besoetan kikilduta izan nuen apur baten: untxi bat, untxi txiki bat, dardaran. Pitin bat lasaitu zenean, krisialdi bat zela sinetsarazi gura izan zidan, duela gutxira arte dena zoragarria izan zela, baina laneko kontu batzuk zirela-eta une txarrak pasatzen zebiltzala, eta laster dena lehengora bueltatuko zela, eta ez kezkatzeko... Aitzakien zerrenda luze bat, antzua, sinestezina.

Gizon hori uzteko esan nion: «Orain noiz-behinka jazotzen diren gauzak, gero eta sarriago jazoko dira, baldin eta hark arazoren bat izaten badu. Paga-burua izango zara, hark sortuko duen ustezko etsaia, kanpoan dituen arazoen

aurrean noren kontra jo aurkitzeko, haren oldar-kortasuna deskargatzeko». Halaxe esan nion. Eta gehiago. Esan nion agian orduko egoera ez zela hain jasangaitza, baina argi eta garbi uzten ari zela bera haren mendeko zela. «Gizon horrek berari jazotzen zaion guztiaren erruduntzat hartuko zaitu! Hori da gura duzun harremana? Hori da zure bikote ereduak?».

Ohartarazi nion gero etorriko zenaz. «Haren atsekabeak gora egiten badu, zure aurkako tratatu txarrek ere gora egingo dute, eta noizean behin-goia izan beharrean, jarraikorra izango da». Ez zuen gehiago entzun gura izan: altxatu eta joan behar zuela bota zidan. Amorru bizia sentitu nuen. Nire aholkua entzun gura ez bazuen, halaxe esan nion: «Hor konpon!».

Atean zegoela, musu ematera hurreratu zitzaidanean, profesional batekin berba egiteko agindu nion, egoeraz pentsatzeko. Senarrarekin segitu gura bazuen, hari konponbidea eta jokabidearen aldaketa eskatzeko. «Horrela konpon-tzen dira gauzak, Sofia», esan nion, «eta ez pentsatuz zer egin behar duzun eta zer ez duzun egin behar gizon horren suminaldi bakoitzean,

zeren zuk egiten duzuna gorabehera, hirak izan, izango dira». Hori da esan niona.

Amak esaten zigun hodeiak, norakorik gabe hara eta hona ibiltzeaz nekatzen direnean, baso-
etara jaisten direla deskantsatzera, eta orduan
lainoa sortzen dela. Esaten zuen hodeiak pertso-
nak bezalakoak direla, eta batzuek koltxoi gogo-
rragoa edo bigunagoa nahiago dugun bezala,
hodeiek ere halako edo holako arbolak aukera-
tzen dituztela: hodei batzuek pinudia aukeratzen
dute, fakirren moduko oheak nahiago dituztela-
ko; beste hodei batzuk pagadiko hosto sarrien
gainean etzaten dira, pagoen adarren formetan
atsedena aurkitzen dutelako. Gero, altxatutako-
an, ohea nolakoa, halakoa izaten da hodeia, eta,
berbarako, pinudia aukeratu duten hodeiak era-
bat zulaturik zeruratzen dira eta goian daude-
nean pinuek egindako zuloetatik askatzen dute
ura. Hala esaten zuen gure amak.

Bart pinu basoa aukeratu dute lo egiteko,
pentsatu nuen tantek kaleko zolaren aurka sor-
tutako hotsa ohetik entzutean. Beste aldera bira-
tu nintzen eta bularraren kontra estutu nituen

izarak eta manta, altxatu aurreko azken uneko beroa.

Kaleko atea entzun nuen; salto batean jaiki eta korridorera irten nintzen. Pasatzen uzteko esan zidan neskalagunak, gabardina blai zekarren eta bainuontzira eraman nahi zuen, pasilloa busti barik. Alferrik, ezin nabarmenagoa zen zoruan utzitako urezko aztarna. Eranzteko denborarik eman gabe galdetu nion eskatutakoaz. Ezkaratzeko aulki baten euskarririk zintzilikatu zuen poltsa. Artez begiratu zidan, ezin disimulatuzko kexa aurpegian. Arrazoia zuen, CDa bidali zidatenetik ez nion ia jaramonik egin, eta deitzen nionean eskuartean nerabilen gaiarekin zerikusia zuen nire interesak.

- Obsesionatzen ari zara -haserretu zen-. Ezin menderatuzko istorioa bihurtuko zaizu. Ez zait hau guztiau batere gustatzen.

Aulkian utzitako poltsari begiratu nion eta barrubiguneko paperezko azala ikusi. Lapurrek nola, hala hartu nuen. Dokumentuak mahai gainean zabaldu nituen banan-banan, erregistroko dataren arabera.

Bost aldiz ingresatu zen Sofia ospitalean: bitan kalean edo etxean izandako istripu arin bartzuen ondoriozko lesioak artatu zizkioten, ondo ezak sorturiko ahuleziaren sintoma ez oso garbiak. Behin, bere buruaz beste egiten saiatu eta sendatu arteko ospitaleratzea izan zen. Beste bietan, aldiz, lesio larriagoak.

Azken bietako bat zineman eskuratutakoa baitzen, bestea irakurri nuen. Egoera emozionalari buruzko datuen arabera, senarrak besotik heltzen ziola heldu zen ospitalera. Erizainak beldurra antzeman zion, sufrimendua eta dardara. Harekin joateko esango zion Sofiari, itxaroteko gizonari; baina hark: «Oso urduri dago nire emaztea; ez du jakingo gertatutakoa azaltzen. Hobe da ni haren ondoan egotea». Erizainak: lasai egoteko, medikuak jakinaraziko ziola zer gertatzen zen eta zer egin behar zen, emaztea artatu ostean.

Miaketa fisikoaren datuak irakurri nituen hurrena. Informazio medikoaren hoztasuna eta hitz teknikoan abstrakzioa gorabehera, lerroetan aurrera egiteaz batera izutu egin nintzen.

Komuneko atea entzun nuen. Idazgelako sar-
rerrerantz begiratu eta neskaloguna ikusi nuen.
Xukadera bat zeraman ilearen inguruan.

- Beste mesede bat eskatu behar dizut -esan
nion-. Sofiaren helbidea ospitaleko artxiboan
dauzkaten beste helbideekin alderatu gura dut.
Helbideetan beste inoren izenik agertzen den
jakin beharko nuke.

Sofiak bi helbide eman zituen artatua izan
zen bost aldietan: Bata, lehen hiru ospitalera-
tzeetan eta bosgarrenean; bestea, laugarre-
nean. Pentsatu nuen, helbide horiek beste ba-
tzuekin gurutzatuta, jakin nezakeela norekin bizi
zen Sofia garai hartan, baldin eta bakarrik bizi ez
bazen.

Neskalagunak, gogoz kontra, lankide bati
hots egin zion telefonoz, eta nire helbide elektro-
nikoa eman zion, aurkitzen zuen informazioa
ahal zuenean bidal zezan.

- Maite zaitut -eskertu nion musu bat ema-
nez.

- Zoaz pikutara! -komunera joan zen ilea le-
hortzen amaitzera.

Bizarra egin gabe abiatu nintzen pikutara: beste Montero berdea erosi zuen dentistarengana.

Hiritik hogeit hamar kilometrora dagoen egoitza multzo batean bizi baitzen haginlaria, neskalgunaren autoa hartu nuen. Zergatik haserretzen da hainbeste? Hain zaila ote da ikerketa honek nire karreran suposa dezakeena ulertzea? Zergatik gaitzesten duzu obsesio deitzen duzun jorkabide hau? Sofia -lehen aldiz deitu nion horrela bideoko emakumeari- jipoitu zuen gizona aurkitu nahi nuen, biktima bilatu beharrean, erasotzaileari begira jardun nahi nuen, ikuspuntu horretatik idatzi artikulua. Eta hor amaituko zenedena. Neure buruari agindu nion, gizona topatu, hura elkarrizketatu eta kito: artikulua idatziko nuen eta zuzendariari eman. Erasotzailea begiradaren erdian, jomugan jartzen zuen artikulubat, biktimari bakea eman eta erasotzailea deseroso sentiaraziko zuen lan bat. Baina, hartarako, Sofiari eraso egin zion pertsona aurkitu beharko

nuen, kolore berdeko *Fairway* hartan ur lasterretatik salbu sentitzen zen gizona.

Hamazortzi kilometro neramatzala, eskumako irteera hartu eta etxaldearen burdinazko arkupetik sartu nintzen. Handik beste kilometro erdi bat egin nuen dentista bizi zen txaleteraino. Beira itxurako adreiluzko hormaren ondoan, pergolaren azpian, perrailetan zintzilikatutako loreak hosto txarrez garbitzen ari zen gizon bat. Txakurren arriskuaz gaztigitzen zuen txartelari begiratu nion. Bozina jotzea erabaki nuen. Baina lanean segitu zuen, lurrean eroritako orbela plastikozko poltsa batean sartzen. Lorezainaren arreta nola ekarri pentsatzen ari nintzela, etxearen atea ireki eta uniforme urdineko emakume bat irten zen, amantal zuria gerrian. Euritako beltza zabaldu eta kanpoko hesiraino hurreratu zen, asperdurazko keinu bat eginda lorezainarenganantz.

- Ez du ezer entzuten. Beti berdin. Barkatu, zer behar duzu?

Beste batzuetan erabilitako txartela erakutsi nion neskameari. Etxeko jaunaren Monteroa eta gure bezero batek izandako istripua erlazionatu-

rik egon zitezkeela azaldu nion. Andreak sorpresako imintzioa egin zuen, nire hitzak ulertu ez balitu bezala. Artean gutaz ohartu gabe ziharduena lorezainarengana hurbildu zen. Hizketan jardun zuten niri begira. Gizonak, MP3aren entzungailuak belarrietatik kendu gabe, bi atzamar erakutsi zizkion. Atzera niregana etorrita, andreak:

- Etxeko jaunak duela bi urte saldu zuen zuk aipatutako kotxea.

Espero ez dugun hori ere espero behar izaten du kazetari ona izan nahi duenak; ezin automatikoki jokatu, instrukzioei jarraitu, horrek ibilgailu bat egiteko balio du. Arrakasta ezagutu nahi duen kazetariak senari begira jardun behar du, intuizioari jaramon egin behar dio. Zenbat aldiz irakurri dut hori? Zenbat aldiz errepikatu diot hori neure buruari? Hori pentsatu nuen, bigarren ezusteko egoera hartan sentitu nintzenean: bi auto susmagarri aukeratu nituen, eta bietan groggy amaitu nuen

- Beste ezer ez baduzu, beharretara itzuliko naiz.

Eta erantzunik itxaron gabe desagertu zen etxe barnera. Hesiaren ondoan jarraitu nuen apur batean, eskua txakurraren irudian oinarriturik, koska barrurago ezin senti daitekeelakoan.

Irratian Haydn-en Londresko 3. sinfonia entzuten egin nituen bueltako kilometroak. Haren maisuak aitari seme kantaria irentzeko komezentzia iradoki ziotenean, orduko ahots altu eta zolia betiko gorde zezan, aitak izan ei zuen haserreaz oroitu nintzen. Edertasunarekin, ederraren iraunkortasunarekin lotzen zen orduan zikiratze mingarria; indarkeriarekin, bortxaren espresio nazkagarrienetako batekin erlazionatzen dugu gaur egun. Sinfoniako vivacean zentratu nahi izan nuen, une hartako pentsamendu beltzak nire nahasmendutik askatzeko, pentsamendu zirimolatsu hark, kontrolik gabeko haizeak are nahasiago utziko ninduelakoan.

Kontu handiz sartu nintzen, neskalaguna artean lo egon zitekeelako ustean. Egongelaren ondotik pasatzean, atentzioa eman zidan telefonoaren ondoko argi gorri jostalariak, etengabeko pizte

eta amatatzearen bidez norbaitek utzitako mezua entzutera gonbitea egiten zidanak. Ospitaleko deia zen; postontzi elektronikoa neukan neskagunak eskatutako informazioa. Arrapaladan joan nintzen idazgelara, itzali gabeko ordenagailuan zabalduetako leihoa klikatu eta mezua agertu zitzaidan.

Sofiaren bizilekuen helbideak ospitaleko datu basean sartu, informazioa gurutzatu eta espero nuen emaitza izan zuten, beste hiru lagun azaldu baitziren Sofiak emandako helbideetan. Lehen hiru kontsultak egin zituenean, gizon batekin bizi zen eta berdin bosgarrenean; laugarrenean, gurasoekin.

Sofiarekin bizi izandako gizonaren izen-abizenek zur eta lur utzi ninduten, espero ez nuen gertaera baten aurrean jartzen baininduten berriz ere. Duela gutxi ezagututako pertsona batengana ninderamaten.

13:04ak ziren. Artean garaiz nembilela erabaki nuen. Leihoko barroteez harago hodei beltz arinak ikusi nituen pasatzen, elkarri lotzen, elkar iluntzen. Neska bikote bat igaro zen leiho partetik, besotik helduta, euritako bakarraren azpian;

hiru mutiko haien atzetik, bizikleta bana eskuan, zapatiletako lokarriak arrastaka kale bustian, institututik irten berriak.

Kalkuluen arabera, azkar joanez gero, hogeit hamar minuturen bueltan atarian izan nintekeen, lanetik irten baino lehenago. Han itxarongo nion. Espaloiko lauzei begira egin nuen bidea, asmatu nahian zeinen azpian ezkututzen ziren egun euritsuetako geiser zikinak, tupustean prakak goitik behera bustitzen dizkizuten turrusta urbanoak.

Ustez baino pitin bat luzeagoa izan zen harainoko bidea, baina garaiz iritsi nintzen, justu une hartan burdinazko ate landuan agertu baitzen notarioaren idazkaria. Atetik ikusi ninduen; ez zen harritu. Parera heltzear nengoela, jarraitzeko keinu bat egin zidan, zain gelditu gabe. Eskumarantz jo zuen, alde zaharrera eramaten duen zubirantz, baina hara ailegatu aurretik berriz egin zuen eskumara, eta handik hur zegoen tren geltokian sartu zen, atzera begiratu eta orpoz orpo nindoakiola egiaztatu ostean. Estazio zaharretik irten, aurreko bidea zeharkatu eta gora egin genuen, estazio berrian sartu eta metroko

eskailera mekanikoak hartzeko. Ezin nuen ulertu maniobra haren zergatia: metrora joateko, notariotzatik irten eta ezkerretara egitea zen normalena, egindako buelta osoa askoz ere luzeagoa zen.

Nasan geundela, harengana ez hurbiltzeko keinua egin zidan, lau atzamar erakusteaz batera. Gero eta nahasiago nengoen jolas harekin. Ingurura begiratu nuen, zeren beldur zen ulertu nahian. Nasa jendez gainezka zegoen ordu gori haietan; ez nintzen inolako arriskurik identifikatzeko gai izan. Trena iritsi, ateak zabaldu eta, jendearen sartu-irtenean preso eginda, irentsi egin zuen bagoiak.

Laugarren geltokian irten nintzen metrotik, beste hiru lagunekin batera. Atzera begiratu, idazkaria sartu zen aterantz, eta han ikusi nuen, estazioko jarlekuan jesartzen zela. Bakarrik geratu ginen. Ez nion misterio haren zergatiaz galdetu; ez nuen haren beldurra ulertzeko asmorik agertu; ez nintzaion azken minututako joan-etorri korapilatsuaz mintzatu.

- Notarioarekin ezkondu zen Sofia? -artez lotu nintzaion gaiari.

- Ez. Semearekin. Izen berbera dute.

* * *

Idazkariaren adierazpena

Sofiaren lankide izan nintzen lau hilabetez. Gabonetan ama izan eta baja hartu zuen beste lankide baten ordeztan etorri zen hona. Karrera amaitu berria, berehala hasi gura izan zuen beharrez, nahiz eta ikasitakoarekin zerikusirik ez izan administrazio lanak; karreraren beste lagun batzuekin etxe alokatu baten bizi eta ez zuen gurasoenera itzuli gura. Neska alaia begitandu zitzaidan hasieratik: leku goibela da notariotza bat, leku grisa, eta hark zelanbaiteko alaitasuna ekarri zuen. Ez dakit zelan esan... Paperak presatzeko ordenari kolorea ipini zion; karpitetako izenei, diseinua... Badakizu... Inprenta letren ordeztan, berak idazten zituen izenak, kolorez edo forma desberdinez... Notario jaunari ere gustatu zitzaidakion Sofiak bulegora ekarritako aldaketak. Eta ez notarioari bakarrik.

Errege egunaren ostean, urtarrilaren zortzian edo bederatzian, notario jaunaren semea etorri zen bulegora. Sarritan agertzen zen, aitari dirua eskatzera, kotxea eskatzera, egindako hutsak zirela-eta laguntza eskatzera... Ohituta geunden haren bisitekin, ez zen ezustekoa izan. Baina egun hartan ez zen aitaren bulegora eskean joan. Harrera gelako atea ireki orduko nabaritu nion norbaiten bila zebilela: inor agurtu barik joan zen artez administrazio gelara, Sofiarengana.

Notarioaren semeak alde egin zuenean, Sofiak kontatu zidan, bere burua aurkeztu barik hasi zitzaiola berbetan: «Gustu ona du agureak».

Nik uste une hartan ebatzi zuela Sofia berarentzat izango zela. Eta lortu egin zuen. Sofiari ez zitzaion gustatu lehen enkontru hartan, baina uste gabeko deiek, mezuek, espero ez zituen bisitek, zelan tratatzen zuen, arretak, txerak... Esango nuke hark Sofia liluratu gura izan zuela, eta Sofiak liluratua izatea. Munduko pertsonarik *fantastikoena* begitandu zitzaion, eta ezin zoriontsuago sentitu zen gizon hura berarekin maiteminduta zelako.

Sofiaren lehen harreman serioa zen. Ilusioz beterik zegoen. Harekin irteten zen bakoitzean, zer edo zer hartzen edo zinemara pelikula bat ikusten, txundituta etortzen zen bulegora biharramunean: dena ondo, dena zoragarri.

Esango nuke hasieratik, nobio egin zirenetik, ohartu zela gizona oso kontrolatzailea eta mesfidatia zela; baina, hala esaten zuen Sofiak, jokabide horrek berarekin sano interesaturik zegoela frogatzen zuen, maite zuela.

Zertan nabaritzen nuen mesfidatze hura? Ez dakit... Behin, barbarako, Sofia belu iritsi eta azalpenak eskatu zizkion, ea zergatik iristen zen belu, ea inork kotxez eroan zuen haraino, ea beste gizonik bazegoen... Halako itaunak egiten zizkion beti; eta Sofiak zelanbaiteko azalpenak eman behar. Beste adibide batez gogoratu naiz: Sofia gimnasia joaten zen elkarrekin ibiltzen hasi aurretik, baina nobio egin eta gero gimnasia joateari laga zion, hari gustatzen ez zitzaiolako: «Gimnasioan gizon gehiegi ibiltzen da!».

Denborarekin, gauzak bestela ikusten dira. Orain, garai hartako kapritxoak arrisku baten seinale begitantzen zaizkit, baina zelan pentsa

nezakeen orduko «hori egiten ez baduzu, bestea lagatzen ez baduzu... bananduko gara, ez naiz zurekin irtengo» eta enparauek egoera hartara eroan behar zutela.

Detaille txikiak ziren, orduan garrantzi gutxi-koak begitantzen zitzaizkidan jokabide irri-garriak, ze kontu haiek gorabehera, dena zen normala. Amets batean legez sentitzen zen Sofia. Eta amets hartatik esnatzearen beldur, eskaera guztiak onartu zituen, edo plantak egiten hasi zen, gizona ez haserretzearen.

Elkarrekin ibiltzen hasi eta aste batzuetara, lagunengandik urruntzeko eskatu zionez, Sofiak erdi ezkutuan joan behar izaten zuen haiekin. Egun batean, bere bila joateko arazoak zituela esan zion notarioaren semeak, ahalegina egingo zuela, baina bostak baino lehenago deitzen ez bazion, gura zuena egiteko, oso lanpetuta zegoela-eta. Sofiak zinemarako plana egin zuen lankide batekin. Zinematik irten eta 35 dei zeuzkan eskuko telefonoan. Lankideak kontatu zigun kezkatzekoa izan zela dei galdu haiek ikustean Sofiak ipini zuen izu aurpegia. Gerora jakin genuen, hura izan zen lehen erasoak ekarri zuen jazoera.

Oihuka hartu zuen etxe atarian. Ez ei zuen jo, garai hartan ez zuen jotzen, halako haserrealdiak ziren; «Amesgaiztoak ametsetan», esaten zuen Sofiak. Biharamunean, barkamena eskatu zion. Aitarekin izandako haserrealdi baten erruz jokatu zuela hala, guztiz damaturik zegoela.

Denbora gutxian asko aldatu zen Sofia. Alai eta lagunkina zena, uzkur portatzen hasi zen, batez ere nobioa edo notario jauna bere aurrean zeudenean. Ulertzekoa zen beste gizon batzuekin egoteko zuen beldurra! Behinola, gizonezko lagun min bati deitu zion, ezkondu berria zela esateko. Senarra hartaz jabetu zen eta bestearekin gelditzea debekatu zion, ea zer edo zeren bila zebilen itaundu zion, ea berarengandik lortzen ez zuen ezer behar zuen beste gizonengandik... Debekatu egin zion. Sofiak ez zion jaramonik egin eta lagunarengana joan zen. Notarioaren semea, ordea, etxetik hur ezkutatu eta atzetik abiatu zen. Sofia lagunarekin lotu zen kafetegira iritsi, kotxea aparkatu eta atea ireki gura izan zuenean, senarraren kotxea ondo-ondoan zeukan, atea irekitzea trabatzen ziola.

Geltokian bideoaz mintzatu nintzaion idazkariari. Erasotzailea notarioaren semea zen galde-tu nion. Ezagutzen zuen bideoa eta bazekien niri bidalia zela. Zehaztapen bat egin zidan:

- Bideoko emakumea ez da Sofia.

Txundituta gelditu nintzen. Gauza bat frogatutzat ematen nuenean, zerbaitek hankaz gora jartzen zidan hipotesia berehala. Bideoko emakumea Sofia zelakoan, pozik nengoen ordu batzuk lehenago; orain bideoko gizona zko protagonista nor zen banekiela, emakumezko gertalaria ezkututzen zitzaidan.

- Kontu batzuk argitu beharko dizkidazu...

- Ados. Baina toki bakartiago batean.

- Ez dut ulertzen zertara datorren beti ezkutu-tuan ibili behar hau. Zergatik halako beldurra? Norengandik ostendu behar dugu behin eta berriro?

Besotik oratu eta metrotik kanpora eramanez ninduen. Euritakoak zabaldu barik, arineketa disimulatu batean, plazaren alboan dagoen elizan sartu ginen. Hutsik zegoen. Plastiko gorritz bildu-

tako bi kandela azkenetan zeuden aldarean, argi gaixo bat ematen ziotela azpiko mahai santuari.

- Nondik hasia nahi duzu? -esan zidan, sarreatik ikusi ezin zitekeen aitorlekuen atzeko bankuetako batean jesarri ginenean.

- Bideoaren kontutik, adibidez.

- Ez; ospitaleko txartelaz hasiko naiz.

Neskalagunak ospitalean aurkitutako osasun txartela Pablo Picasso kalera eraman nuenean hasi zen dena. Arrazoia zuen neskalagunak: txartel harekin artatu zuten emakumea tratu txarrak jasandako bat zen; txartelak adierazten zituen izen-abizenak, ostera, beste emakume batenak ziren, Pablo Picasson bizi zen andrearenak, baina ez tratu txarrak jasandako emakumeak hari ebatsi ziolako, hark propio utzi ziolako baizik.

Astiroago joateko eskatu nion:

- Txartela itzuli nion andreak ospitalean erori zitzaioa esan zidan. Hori ere ez da egia?

- Ez zen horrela izan. Beste emakume bati utzitakoa zen.

- Baina zergatik?

- Hura babestearren. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteko elkarte batekoa da Picasson bizi dena. Pisu ezkutuetan bizi dira emakume batzuk, txarto tratatu dituzten gizonengandik babestuta. Ospitaleko kontsulta bat egin behar dutenean, edo abokatuen aurreko tramiteren bat egin behar dutenean, haiena ez den helbide bat ematen dute, beste baten izen-abizenekin zenbait kasutan. Babestuago daude horrela.

Dena aurrez prestatutako plan baten arabera antolatuta zeukaten, babesten ari ziren emakume bat gaiztratatzeko zuten gizon boteretsu baten aurkako plana. Eztabaida luze baten emaitza izan zen. Elkarteko kide askok ez zuten argi ikusten: justizia baino gehiago mendekua iruditu zitzaion. Beste batzuek gizon batez baliatu beharra arbuatu zuten, emakumeen indarrak aurrera egiteko posibilitateaz sinesten baitzuten. Picassoko andreak, aldiz, helburua justizia egitea zela defendatu zuten sutsuki, planaren zehaztapenez eta argudioez. Emakumeen indarrak, arrazoiaren eta adimenaren indarrak antolatutako plan bat zen, non gizon bat erreminta baliagarritzat har-

tuko zuten. Apurka taldeko kideak bere aldera eramane zituen, ia denak konbentzitu arte. Azkenean botazioa egin eta aurrera.

Hurrengo pausoa Sofiaren gurasoen onarpena izan zen. Harremanetan zeuden haiekin eta berehala proposatu zioten plan hartan parte hartzea.

- Asko sufritu duten arren, dudarik gabe onetsi zuten.

Bi aste geroago, ilargi beteko goiz hartan, al-dizkariko postontzian utzitako bideoa eta mezu kriptikoa jaso nituen. Abian zen plana: amua jarri eta kosk egin nion.

- Bagenekien notariotzara berriz bueltatuko zinela, uneren batean hara itzultzeko aztarna aurkitu eta galdezka etorriko zinela. Pentsatu genuen ez zinela niregana gehiago hurbilduko, baina gaur ikusi zaitudanean berehala atzeman dizut intentzioa. Horregatik gidatu zaitut leku seguru batera.

- Eliza leku segurua da orduan? -galdetu nion, jarlekutik jaiki eta aitorlekuaren eta bankuen arteko tartean aurrera eta atzera hasteaz

batera. Zeren beldur zen jakin nahi nuen, zergatik egon gintezkeen arriskuan.

- Datu gehiago eman baino lehen, aurrera egiteko prest ote zauden jakin behar dut.

- Tresna bat naiz zuentzat!

- Erreminta baliagarri bat, hala esan baliteke -aitortu zuen.

Horixe nintzen: objektu bat, haiek diseinatu-tako planaren barruan eginkizun jakin bat zuen gizon objektua. Eta orain jakin nahi zuen baliagarria izaten segitzeko prest nengoen, datu gehiago emango bazidan.

Nolabaiteko atximurka sentitu nuen barruko toki ezkutu batean, gizontasuna zauritu balidate bezala. Gizontasuna zen ala edonoren gutxiene-ko duintasuna? Aurreko bankuko apalean zegoen otoitz liburua irakurtzeari lotu zitzaion notarioaren idazkaria, axolagabeki, presarik gabe. Ez zuen, hala ulertu nuen, inolako erru sentimendurik, ez zen ohartzen haren aitorten eragin zidan pitzaduraz; objektu bat nintzen harentzat, eta, agian, ni nintzen objektu hura erabat arrakalatu gero, besteren bat bilatuko zuten, minik gabe, penarik gabe.

Dena bertan behera uzteko gogoia sentitu nuen. Baina amuari kosk handiegia eginda nengoien ordurako.

- Aurrera jarraitzekotan, baldintza batekin -esan nion desesperaturik.

- Bota.

- Sofia ezagutu nahi dut.

- Horretarako Picasso kalera itzuli beharko duzu.

Picasso kaleko 9. zenbakiko igogailuaren ispi-luan hiru aste lehenago ikusi izan nuen hura eta hau ez ziren pertsona bera. Desagertu zitzaidan orduko artegatasuna. Gizon zauritu bat nintzen orain, zakur amorratu bat, kontu eske zihoana. Eta hala ere, berehala ohartu nintzen helmugarik gabeko bidaiaria hartan ezin ikas nezakeela espero behar ez nuena ere esperatzearen printzipioa: hirugarrenera heldu eta atea zabaltzear nengoela, kanpotik ireki eta egun malapartatu hartan txartela eman nion andrea sartu zen barrura.

- Goazen garajera. Hondartzara joan behar dugu-eta.

Eta behera berriz, atarira baino beherago, infernura jaisten direnak bezala.

Motots batean bildurik zeukan ile erabat urdindua. Puztuak ziruditen masailalboek eta sudur azpiko ezpainak, eta txikiago egiten zizkio-ten aurpegiaren gainerako organoak. Artilezko bufanda zeraman lepoaren inguruan, ia goraino lotutako gabardinaren gainean. Isilik bajatu ginen garajera. Atzetik segitu nion ilunpean. Oinetako beltzak, bota puntadunak, takoi txikiko-ak.

- Azterketa amaitu baduzu -esan zidan hala-ko batean-, nire kotxera joango gara.

Lotsatuta sartu nintzen. Bruce Springsteen-en *We shall overcome* kantua sortu zen bozgo-railuetan, kotxea martxan ipini orduko.

Hogei minutu pasatxoko bidaia izan zen, tentsio handikoa niretzat. Une batean nire aldeko is-pilua jaistear izen nintzen eta ausartu ez, atarian ikusi nuen gizon segurua barik beste orduko gizon dudatsua, aurpegiera deseginekoa topatu-

ko nuelakoan. Andrea lasai zihoan, *The Boss-en* ahots melodikoa laguntzen.

Itsasaldera iritsita, herrian sartu eta behinokoko gotorlekurako errepidea hartu genuen. Aparkalekuaren sarreran gelditzeko agindu zidan. Auto bakarra zegoen, zuri bat. Talka handia zeukan atzealdean: barrura sartua kolpetakoa, erditik arrakalatu matrikularen xafila, hautsia ezkerreko argiaren kristala.

- Jaitsi. Kotxe hartara goaz.

Hodei beltzak ageri ziren mendien gainean; itsasotik, aldiz, zeru garbia zetorren, haize hotza ahalik arinen utzi nahiko balu bezala. Emakume txiki bat irten zen autotik, gaztea, ile laburrekoa. Sudurreko hezuraren gainean zuen orban odol lehorrez nabarmenduari erreparatu nion, eta ezkerreko lokiko urradura desagertzen hasiari.

- Hauxe da -aurkeztu zidan- zure bideoko neska: Sofiaren ahizpa.

* * *

Idazkariaren adierazpena

Denboraz lagun egin ginen Sofia eta biok: ordu asko eta ordu luzeak ematen genituen elkarrekin notariotzan. Beste lankideekin ez zuen izan nirekin lortu zuen konfiantza. Atsegin zuten, duda barik, baina nagusiaren erraina izateak zelanbaiteko mesfidantza sortu zuen haien artean. Txutxu-mutxuka ibiltzen zirenean, isildu egiten ziren Sofia iritsi orduko. Niri ez zitzaidan inporta norekin ibiltzen zen edo noren emaztea zen. Jator jokutzen zuen beharrean, zintzo gure artean, eta atsegina zen lanetik kanpo ere.

Ezkondu eta hilabete batzuetara, nire senarra eta biokin afari bat egin behar genuela esan zidan Sofiak. Ideia ona begitandu zitzaidan bikote bion arteko afaria; notarioaren semeak ere ondo hartu zuen, edo hala begitandu zitzaidan orduan.

Aste hartako barikurako lotu ginen, bariku arratsaldeetan beharrik ez dugu egiten eta. Sofia eta biok lehenago lotu ginen, ile apaindegian. Ilusio handia zeukan, beste bikote batekin egiten zuen aurreneko irteera zen, eta gogo biziz zegoen! Aurrera begirako lagun taldeaz hitz egin

zuen, bien lagunak izango zirenez, biek konpartituko talde batez. Ikustekoa zen haren ilusioa!

Kezkagarria izan zen afarian jazotakoa. Notarioaren semea isekaka ibili zitzaion afari osoan, hura gutxiesten etengabe, nirekiko konparazioak egiten. Iritsi eta berehala hasi zen: nire jantziaz gauza ederrak esaten eta Sofiaren soinekoa barregarri uzten. Sofiak aurpegian emandako koloreaz ere jardun zuen: «Pailazo bat dirudizu, sudurreko gorria baino ez zaizu falta», eta halako gauza iraingarriak. Hasieran irri egiten zuen Sofiak ere, senarraren ateraldiak umore oneko giroa sortzearren eginak balira bezala onartuta. Baina halako batean komunera joan zen. Atzetik joan nintzen apur bat geroago. Negarretan zegoen. Ezustean harrapatu nuen; garrantzia kendu guraizan zion jazoerari, senarrak egiten zizkion gauzei, ez zuen hura nahigabetu gura. Ez nion kontra egin; Sofia lasaitzearren ontzat eman nituen haren berbak, ziur asko horrela izango zela sinetsi gura izan nuen neuk ere.

Mahaira itzuli ginenean, barre-algaraka topatu genituen gizon biak, baina serio jarri zen notarioaren semea berehala, eta galdezka hasi zi-

tzaion Sofiari ea zertan zebilen, ea baten batekin berbetan ibili zen telefonoz, ea ez zekien afari batean lagunekin egoten... eta ez dut gomutan zenbat gauza gehiago. Nirekin izan zela esan nion lasaitzearren; eskerrak eman zizkidan Sofia jagoteagatik, «hain da dorpea», esan zuen, «hain inozoa, beti beste batek jagotea behar duela».

Tentsio handian joan zen afaria. Gizon biek behar baino gehiago edan zuten. Irteeran kopa bat hartzera joatea proposatu zuten. Niri ez zitzaidan ideia ona begitandu eta etxera joan behar genuela esan nuen. Parkingera joan ginen; haiek gurekin etorri ziren pixka baten, kotxea parkingetik hur aparkatuta zeukaten eta. Han, haien kotxearen ondoan, elkarri agur esan eta aurrera egin genuen gurearen bila.

Minutu bi edo pasako ziren kanpoan utzi genituenetik kotxea parkingetik atera genuen arte. Irten eta joka zebilela ikusi genuen: ileetatik tiraka ari zitzaion Sofiari eta, justu haien parean pasatzean, masaileko bat eman zion. Kotxea gelditzeko esan nion senarrari; hark jaramonik egin

ez, halakoetan ez sartzeko esan eta aurrera segitu zuen ez ikusiarena eginez.

Astelehenean, Sofia lanera etorri zenean, notariotzako sarreran bertan hartu eta komunera eroan nuen, barikukoaz itauntzera. Harrituta gelditu zen; ez zekien jazotakoaz ohartua nintzenik. Begiak ezkutatu gura izan zituen, behera begira, lotsaz; atzamarrez kokotsetik heldu eta niri begirarazi nion. Eskua modu txarrean kendu eta ispi-lu alderantz biratu zen. »Ez da ezer«, esan zidan, «lanak eragindako estresa; gaur goizean barkamena eskatu dit, ez dela berriro jazoko ziurtatu dit, eta bazkaltzeko lotu gara». Haserre mintzatu nintzaion, adi egoteko, kontuz ibiltzeko eskatu nion. Baietz esan zuen, eta besarkada bat eman zidan indarrez.

Lanpostura itzuli ginen, eta handik gutxira administrazio bulegoko atean agertu zen, irri eder batekin, eskuetan lore sorta handi bat.

* * *

Ustekabeko baten atzetik beste bat hartzen nuen beti. Zalantza izpi baten ostean, nola agur-

tu ez nekien-eta, Sofiaren ahizpa hurbildu zitzaidan eta bi musu eman zizkidan.

Haraino eraman ninduen Picassoko andrea guregandik urrundu zen, aparkalekuaren ondoko ibiltokian beherantz, albo bietan landatutako arbola biluzien artean, kantari: *Hey we shall overcome, we shall overcome. We shall overcome someday. Darlin' here in my heart, yeah I do believe. We shall overcome someday*⁸⁵ Itsasora begira zegoen jarleku batean jesarri ginen. Eskerrak eman zizkidan laguntzeagatik, Sofiaz eta bideo-ko emakume ordura arte ezezagun horretaz kezkatzeagatik.

- Ez naiz inguru hartan bizi, bideoa grabatu zen kolean, esan gura dut. Elkartearen kontu baterako joan nintzen hara, lagun baten bila. Iris-tear nengoela, atzerako ispilutik begiratu eta koinatuaren autoa ikusi nuen. Izutu egin nintzen. Kasualitate hutsa ere izan zitekeela pentsaturik, jira eta bira hasi nintzen kaleetan, egiaztatzearen atzetik ote zetorkidan. Nora joan ez nekiela, jira eta bira desordenatu hartan segitu nuen; eta hura, beti niri jarraika. Nire ihesi behar hartaz ohartuta, argiak ematen hasi zitzaidan. Autoa

gelditu eta ea zer gura zuen itauntzea ebatzi nuen. Baina autoa gelditu nuenean nire kontra talka egin zuen indartsu, eta... bueno, gainerakoa badakizu.

- Zergatik jokabide hura?

- Ez dut ulertzen. Munstro bat da, kaiola baten itxi behar den basapiztia. Neure kabutan etengabe egiten ditudan itaunak dira: zergatik nire ahizparen aurkako bortxa?, zergatik nire aurkako herra?

- Esadazu Sofia non dagoen.

- Alde egin zuen, babes etxe batera. Bide luzea egin genuen haraino iristeko, bide mingarria. Bizimodu berri baten premia zeukan: basapiztia harengandik banandu eta beste etapa bat hasi. Sufritutakoa ahaztu gura zuen, zoriontsu izateko beste aukera bat gura zuen. Ez zuen mendeku gogorik. Ez zeukan borrokatzeko indarrik. Ez zuen epaitegietan jarduteko adorerik. Ahaztu eta berriz hasi, nahikoa. Baina gizon horrek ez zion aukerarik eman.

- Zer gertatu zen?

- Ez zion bakerik eman. Berea zela esaten zuen behin eta berriz. Berea eta beretzat, edo ez

zela inorentzat izango. Sofiak ihesi egin behar izan zuen, hiritik kanpo. Sofiaren bila hasi zen orduan, deabruak hartuta. Lehenengoz gurasoak presionatu zituen; gero niregana etorri zen: telefono deiak, mehatxuak, pintadak atarian, kolpea autoan, jipoia... Gizon hori gelditu egin behar dugu berandu baino lehen. Edozein astakeria egiteko gauza da!

- Ohartzen naiz.

- Lagunduko diguzu orduan?

Labarretara begiratu nuen. Olatuek hormen kontra jotzean sortzen zuten bitsa zikin zegoela iruditu zitzaidan, goiz hartako itsasoak geruza lohigarri bat astintzen zuela amildegiko paretaren kontra. Naturala iritzi nion itsasoaren indarrari, arroken higadurari. Uraren zikina, baina, onartezina begitandu zitzaidan, ezin eramanezkoa, salatu beharrekoa.

- Zer egin behar dut?

Sofiaren ahizpak goma batez loturiko kartoizko zenbait karpeta pasa zizkidan. Besarkada estu bat eman eta kotxean sartu zen, atzera begiratu gabe.

- Kontuz ibili! -izan zen tarte hartan esan zidan bakarria, haren azken hitzak, gerora bizi behar nuenaren iragarle.

Picassoko andreak martxan zeukan autoa, nire zain. Musikaz lagunduta egin genuen bueltako bidaia. Emakume heldu baten ahotsa zen. Tristea iruditu zitzaidan haren doinua, ulergaitza haren kantua. Erredakzioaren atarira eramanez ninduen, nik beste asmorik ba ote nuen galdetu ere egin gabe. Ez zuen berbarik egin bide osoan, salbu eta eskerrik asko sakon eta benetako bat bidaia amaitu zenean. Ez nuen epaiketaren egunerako arte berriz ikusi. Baina orduan ezin nuen hura jakin, orduan ezin espero nezakeen nora eramanez behar ninduen goiz hartan onetsitakoak, zein arazotan sartuko ninduen.

- Zure bila dabil zuzendaria -abisatu zidan al-dizkariko mandatariak.

- Zer esan diozu?

- Alkatearekin bazkaltzen zeundela.

- Eta nola jakin duzu zuk hori?

- Hori da nire lana, alkatea uneoro non dagoen jakitea.

- Beraz, badakizu non dagoen orain?

- Zuzendariaren bulegoan. Soldata igo beharko lizukeela aholkatzen ari zaio.

- Albiste onak eman zalea zara!

- Bai, erredakzio honetan dagoen bakarra.

Bibotea apaintzen ari zen sartu nintzenean, ile bakoitza eta denak batera ferekatzen. Betiko legez, jesartzera gonbidatu gabe hasi zen hizketan:

- Zertan da zure erreportajea? Erabaki al duzu zer-nolako ikuspuntua erabili behar duzun?

Zalantzan izan nintzen, norainoko informazioa eman behar nion Sofiaz eta egunotako bizipenez, baina zertan kezkatu ez nuen izan, hark erantzun baitzion bere buruari:

- Badakizu, gazte, zein motatako artikulua behar dugun. Jendearen sentipena nabarmentzea nahi dut; datuetatik alde egin eta pertsonen erraietan bilatzea nahi dut: zer sentitzen duten, nola erreakzionatzen duten, zerk eramaten duen pertsona bat horiek bezalako egoeretara... Ahaztu erakundeetatik ematen dizkiguten estatisti-

kak. Zenbakiak ez dira jendearen bihotzera hel-tzen, ez dute inoren sentiberatasuna pizten. Ho-rregatik erabiltzen dituzte erakundeek: informa-zioa ematen dutela sinetsarazten digute, baina jendearen erreakzioa lokarrarazten dute. Datuak alde batera utziko balituzte, gizarteak behin baino gehiago egingo lioke aurre egoerari, eta hori ez zaie erakundeei interesatzen.

Idazluma hartu eta zenbait irudi, zenbaki eta hitz solte idatzi zituen orri zurian, esaten zuen gauza bakoitza azpimarratzeko. Une hartan han-dik irten banintz, ez zatekeen ohartu ere egingo, hizketan segituko zukeen. Erakunde publikoen aurkako diskurtsoan luze jarraitu zuen eta, hitz-jarioan eten labur bat eginez, erreportajera itzu-li zen errematea emateko:

- Segi ikuspuntu hori lantzen, gazte. Eta ezer izan bezain pronto niri bidali, bion artean azter dezagun.

Nire txokora joan nintzen. Ondoko lankidea Timo Glocken argazki bat aukeratzen ari zen, Lewis Hamiltonek Brasilgo zirkuituan lortutako garaipenaz egindako adierazpenak egunkari di-gital batean irakurtzen zituen bitartean. Ez zuen

ezer esan, garaipen keinua egin zidan eskumako erpuruaz eta artikuluari lotu zizkion begiak.

Mahai gainean jarri nituen Sofiari buruzko lau karpetak. Abokatu baten informeak ziren. Orri solteetan Sofiaren historia zegoen, hari buruzko informazio orokorra. Karpetetan, abokatuari egindako kontsulta bakoitzean jasotako akta eta informazioa. Txosten orokorrean jaso legez, lau aldiz kontsultatu zitzaion abokatuari Sofiaren auziaz: lehenengoan familiak egin zion galdera; beste hiruretan Sofiak berak.

* * *

Abokatuaren adierazpena

Sofiaren abokatua izan nintzen. Idatzizko txostenean agertzen den legez, Sofiaren familia etorri zen lehen aldiz nire bulegora aholku bila. Euren ustez, autoestimua eta konfiantza galtzen ari zen aipatutakoa, gutxietsia sentitzen zen. Familiaren iritziz, haien senidea indarkeria delitu baten biktima zen.

Hasieran, eta familiak eman zizkidan datuak aztertuta, ustezko tratu txar psikologikoen biktima baten auzia izan zitekeela ondorioztatu nuen, eta hala adierazi nien senideei. Aldi berean, nire eginkizun profesionala hori baita, tratu txar psikologikoak frogatzea oso gauza zaila zela ohartarazi nien, ustezko biktimaren aitortzaz harago beste lekukotzarik ez genuelako.

Familiak informazio gehiago eskatu zidan. Jakin nahi zuten zer jotzen zen, zuzenbidearen ikuspegitik, tratu txar psikologikotzat. Txostenean adierazi genuenez, behin eta berriz gertatzen diren umiliazio, gutxiespen, irain, larderia eta abarrekoa hartzen da tratu txar psikologikotzat, baina, eta berriro azaldu nien, hori guztiori frogatu behar da, eta horixe da zailena.

Informazioa eman ondoren, jakin nahi izan nuen ustezko tratu txar psikologiko horiek nola edo zertan eragiten zioten biktimari, ustezko biktimari, kasu honetan. Alegia, haien senidearen sendotasunaz galdetu nien. Haien iritzia entzun eta gero, haien senideak profesional baten laguntza behar zuela esan nien. Izan ere, beste kasu batzuetako esperientzian oinarriturik, us-

tezko erasotzailearen eta biktimaren adina ikusita, oso gazteak baitziren biak, eta familiak konstatzen zuena egia izatera, aurreikus zitekeen tratatu txar psikologikoen atzetik eraso fisikoak ere etortzea. Hain zuzen ere, eta hartaz gaztigatu nien, gauzak okerrago joatearen arriskua oso nabarmena zen. Horrenbestez, arestian esan dudan legez, profesional baten laguntza behar zutela adierazi nien, Sofiaren, hau da, ustezko biktimaren egoera aztertzeko: sentimenduak behar bezala definitzeko eta egoera lasgarri hartatik irteten laguntzeko.

Baina, nahiz eta gure eginkizuna ez izan, hain etsita ikusi nuen familia, beste abisu bat eman nien: ez zela oso erraza izango ustezko erasotzailea auzipetzea eta biktimari laguntzea. Izan ere, familiaren iritzia entzunda, eta zantzuak zantzu, bistakoa zen ustezko biktima maiteminduta zegoela, eta onartua zuela tratatu umiliagarria, bere autoestimua zapaldua izatea. Beraz, haren guztiaren ondorioz, oso zaila iritzi nion profesional batekin hasteko hura konbentzitzea-ri.

Bulegotik joan aurretik beste gauza bat azpimarratu behar izan nien. Alegia, ahalegina egin behar zutela iritzi kontrajarriak bereizteko, hots, bikotekideen arteko eztabaida edo liskarra eta delitua. Oro har esanda, argitu nien: emakume bat indarpean dago hari bere borondatea egiten utzi nahi ez zaionean edo uzten ez zaionean, emakumeari askatasunez jokatzeko uzten ez zaionean edo emakumearen nortasuna garatzen eragozten denean. Emakumeak aske izateko edo bere nortasuna garatzeko gizonaren baime-na behar duelako ideia iragana da. Egun, emakumea eta gizona libre dira; elkarrekin ondo badaude, urte askotarako; biotako bat ez badago gustura bikotean, uztea da onena, osasuntsuena, bestea menderatzen edo manipulatzeko saiatu beharrean.

Denbora luze batean ez nuen haien berri izan; psikologoarekin lanean ibili edo amore emanda egongo zirela pentsatu nuen.

* * *

Sofiaren familiak kontratatu zuen abokatuaren txostenaren lehen orriak irakurrita, psikologo batekin kontsultatu zutela jakin nuen. Paperetan, baina, ez zen aipatzen psikologoaren izena, ez hark egindako txostenik edo diagnostikorik. Notariotzara deitzea pentsatu nuen, Sofiaren ahizparen telefona eskatzeko, hark psikologoaren berri emango zidalakoan. Bestela jokatu nuen.

Telefono aurkibideak zerrenda luzea zekarren hamar orritan, iragarki eta guzti: antsietatea gainditzeko terapiak, depresioa tratatzekoak, estresaren gainekoak, elikatzeaz, sexologiaz edo bikoteaz, autoestimuz eta menpekotasunaz... Sofiaren gurasoak bizi ziren kale bereko bulego batek eman zidan atentzioa. Deitu egin nuen, kontsulta bat egin nahi niola, bikote arazo-
ei buruzkoa; ez nekiela tratamendua beharko nukeen, baina lagun batek harekin kontsultatze-
ko gomendioa egin zidala eta hitzordu bat nahi nuela, ahalik arinen, posible bazen.

- Azken orduan badut ordu erdi bat, zazpie-
tan. Kontsulta bat baino ez bada, nahikoa izango da. Gero, beste terapiaren bat beharrezkoa ikusten badugu, erabakiko dugu nola antolatu.

- Ados.

Telefonoa oinarrian ipini eta aldameneko lan-kideari so egin nion. Harrituta zegoen:

- Ez doaz ondo amodio kontuak?

- C'est la vie.

Neskalagunari deitu nion jarraian, okertzen hasia zitzaidan bidea zuzen bidean ipintzeko. Aurreko egunetan gauzez lan egin baitzuen, jai egun bi zeuzkan. Pozik hartu zuen deia, pozago gonbidapena.

- Baina gauza bat ziurtatu behar didazu: ez da beste mesede bat eskatzeko aitzakia bat izango, ezta?

- Ez, maitea. Arduratuta eduki nauten kontuak itxita dauzkat ia. Argitu dut misterioa. Badakit nortzuk diren bideoko protagonistak. Datu batzuk gehiago batu eta amaituko da dena.

Ezin egiatik urrutiago ibili, baina hori geroago jakingo nuen.

- Non elkartuko gara?

- Zortziak eta erdietan begetarianoan.

Lehen pisuko bi ateetan banatuta zegoen kontsulta. Ezkerrekoan abokatu lanak egiten zituzten; eskumakoan, psikologiarekin lotutakoak. Mantal zuriko neska batek karrajuan aurrera eramanez ninduen psikologoarenera. Fitxa bat bete zuten nire datuekin, eta fitxaren atzealdean data jartzeaz batera kontsultaren zergatia galdetu zidan.

- Tratu txarrak pairatu dituen emakume batekin ibiltzen hasi naiz. Bera hobeto ulertze alderara, espezialista batengana jotzea erabaki dut. Jakin nahi dut zerk eramaten duen gizon bat modu bortitz horretan jokatzera, nolako pertsona ezkututzen den jokabide horren azpian.

Karpeta bat hartu zuten apaletatik. Horma irudi moduko orria zabaldu zuten mahai gainean, gizon bortitz baten ezaugarri nabarmenak agertzen zituena. Banan-banan seinalatuz bakoitzaren deskribapen txikia egin zidan ahots ezin modulatuagoz.

Irudiaren ezkerrean idatzita zegoen hitzarekin hasi zen.

- Jeloskorra izan daiteke gizon bortitz bat -esan zuen-. Paranoidismo mota bat da: behin

eta berriz pentsatzen du besteak asmo txarrez jokatzeko duela eta, bikotearen kasuan, zalantza izaten ditu haren fideltasunaz.

Posesibotasunaz mintzatu zen ondoren:

- Pertsona horiek anibalentziaren mende daude. Sentimendu negatiboak eta positiboak nahasten dituzte: maitasuna eta gorrotoa. Anibalentziaren ondorioz, bikotekidearen jokabide osoa kontrolatu nahi izaten du.

Orriko irudiaren eskuma seinatu zuen hurrena, letra lodiz idatzita zegoen hitza hatzaz azpimarratuz. Esklusibotasuna.

- Bikotekidea berarentzat bakarrik nahi du; horregatik bakartu nahi izaten du, lagunengandik edo senideengandik urrundu.

Orria karpeta sartu eta berriz jarri zuen apailean, nolabaiteko sententzia emateko:

- Ulertuko duzunez, bikote normal baten harremana ezin oinarri daiteke bakartzean, posesibotasunean, oihuetan, etengabeko eztabaidetan, arrazoirik gabeko jelskortasunean, bestea kontrolatzeko eta menderatzeko saioetan... Hori ez da harreman osasuntsua eta normala.

Baietz egin nion buruaz, ulertzen nuela, ikusten nuela nolako pertsona ezkututzen den hura bezalako harreman batean.

- Baina nik harago joan nahi dut. Jakin behar dut nola jokatu horren antzeko egoera bat gainditzeko, beste bikote batekin harreman osasuntsua eta normala eramateko.

Eta orduan, aldez aurretik prestatua nuen bidetik jo nuen:

- Nire bikotekidea, oker ez banago, zure pazientea izan zen.

Sofiaren izen-abizenak eman nizkion. Atzera bota zuen gorputza eta begiak nabarmen zabaldu zituen. Sudurretik bat-batean hartutako arnasak hots nerbioso bat egin zion. Erlojuari begiratu eta kontsultarako denbora amaitzear zegoela esan zidan.

- Ulertuko duzunez, ezin jakin ditzaket paziente guztien izen-abizenak buruz. Gure artxi-boetan begiratuko dut. Zuk aipatutako emakumea agertzen bada, deituko dizut eta, gura baduzu, beste hitzordu bat jarriko dugu.

- Ederto.

- Nolanahi ere, adierazi behar dizut badugula gure paziente guztiekiko konfidentziasun agindu bat eta, horrenbestez, berriz geldituz gero ez da hirugarren batez hitz egiteko izango... non beste hori ere ez datorren bilerara.

- Zure zain egongo naiz.

Presatuta nenbilen, neskalaguna jatetxe begetarianorantz abiatua izango zen, ez nuen belutu behar.

«Erruz egin du euria gausaldean; putzuak sortu dira eta kontuz ibili errepidean», esan zuen irratiko esatariak goizeko albistegian. Eta bai: goibel ikusi nuen zerua leioa babesten zuten forja beltzez harago, garbigailua amatatzera joan nintzeanean. Izaretan korapilatutako neskalagunari musu gozo eta luze bat eman, jaka jantzi eta atarira irten nintzen.

Tupustean, kaleko atea zabaldu ahala, gizonetako bi etorri zitzaizkidan gainera, buruak zamarren txanoez estalita. Barrura bultzatu eta berriaz atarian sarrarazi ninduten.

- Non da Sofia?

- Ez dut uste hemen Sofia deitzen den inor bizi denik.

Masaileko bat eman zidan, galdera errepikatzea gustuko ez zuela ulertarazi asmoz. Besteak atzetik heldu eta besoak bizkarraldean jartzera behartu ninduen, indarrez loturik. Aurrean neukanari begiratzen nion: eguzkitarako betaurreko ilunak, jertse beltz lepoduna ia ahorraino igoa eta

txanoa estu lotua, aurpegia ahalik gehien ezkutatzearren. Sofiaz galdetu zidan berriz, lehenengoan baino tonu zakarragoz.

- Ez dakit nor den.

Kolpe mingarria hartu nuen sabelaren behealdean eta egundoko tenkatzea sentitu besa-gainetan, minak makurtzera behartu eta atzean kokatutako mozorrodunak irmo eutsi nindue-nean. Arnasa kostata heltzen zitzaidan, hitzen ordeztzula zetorkidala mintzora.

- Non gorde duk urdanga hori!

- Ez dut ezagutzen hala izena duen inor.

Ileetatik tiratu zidan gorantz, burua altxatze-ra behartu eta ukabilkada bortitz batez aurpegia zigortu. Garrasi egin nuen, oiherdibitua. Ostiko anker batek belaunak tolestarazi eta itolarria sentitzera eramanez ninduen, barrabiletako estiraraz. Gorputza hormaren kontra zapaldu eta ataria biderkatzen zuen ispiluaren markoaren kontra jo nuen. Oinaze sarkorra sentitu nuen ezkerreko bekainean. Segundo labur bat, oharpenik gabeko lipar bat: malkoek begiak hartu, bekaineko odolak bere bidea egiten sentitu eta falta

duzun airea hartzeko gorputza bihurritu egiten duzun tarte neurtu ezinezko bat.

Etxeko atea zabaldu eta neskalogunaren txilioa entzun uste izan nuen.

Ondokoa lausoago dut gogoan: besoak askaturik belaunen atariko lauzen kontrako talka, gorputza bere luze-zabalean zoruarekin berdindu baino pitin bat lehenago; pausoak niregandik urrunduz, lasterka; atariaren aurkako oldarra; bueltatuko gara mehatxagarria airean; ondoan belaunikatzen zaidan maitea; laztana! laztana! aldarri izutua...

Neskalagunak eta lehen pisuko auzoak sartu ninduten etxean. Sofan jesarrarazi eta burua makurtzeko esan zidaten, hanken artean arnasa berdindu arte. Kolorea etorri ei zitzaidan azalera, airearekin batera. Begiko zauria begiratu zidan neskalogunak eta ulertu ez nuen purrustada bat ezpainen artean marmaraturik, botiken kutxa atera zuen armairutik. Gasaz garbitu zidan bekaineko odola.

- Ez kexatu! -esan zidan amorruz.

Plastikozko zorroa apurtu zion bizar xaflari eta di-da batean zauriaren inguruko ileak kendu

zizkidan, haserre marmara galdu gabe betiere, zer zela eta ulertzera heldu barik, jipoia emandako gizonen ni erasotzeko arrazoiren bat edukiko zutelakoan.

- Hiruzpalau puntu eman beharko dizkizut, ganorabakoa!

Beste zorro bat atera zuen kutxatik: jostekoak prestatu, isiltzeko agindu eta pintza batez lagundu zien orratzari zein hariari arrakalatua berriez elkartzen, indarrez banandutako haragia elkarri lotzen.

- Zer arrano gertatu da? Zertan sartuta zabil-tza!

Erantzun gabe zutitu nintzen. Komuneko ispi-luan begiratu nion neure buruari. Kolpeak ez zion begiari eragin, bekainaren kanpoaldeko ertzean zen. Hatz mamiez ferekatu nituen neskala-gunak jositako hari mutur tenteak. Alkandora altxatu eta sabelaldeko gorria ikusi nuen. Beldurrez ukitu nuen, saihetsen bat apurtuta egon zitekeelakoan. Sakon puztu nuen sabela eta sakon hustu; puztu nuen bularra eta berehala hustu. Birritan errepikatu nuen hauspoaren mugimendua: ez nuen min bizirik. Besoak mugitu, zango-

ak tolestu nituen zenbait aldiz: ez zen ezer hautsirik. Masailera eramane nuen ahurra eta erremina sentitu nuen ukabilkada hartutako aldean. Ondo nengoela, hura izan zen azterketa arinaren ebaluazioa.

Eskerrak eman nizkion lehen pisuko bizilagunari. Eta edukaziozkotzat hartu nuen Poliziaren aurrean ezer deklaratu behar izanez gero egin zidan eskaintza. Polizia!, ordura arte burura etorri gabeko aukera. Salaketa egin beharko nuela pentsatu nuen une batez, hura zela bidezkoena, erasoari eman beharreko erantzuna. Baina ez, ez nengoen zoratuta, ez nengoen dena errekarabotatzeko prest.

Auzoa agurtzetik itzulitakoan hasi zen benetakota itaunketa.

- Nortzuk ziren? -galdetu zidan neskalagunak.

- Ez dakit.

- Koplarik ez niri!

Luze etzan nintzen sofan. Kuxin bat ipini nuen sabelaren gainean. Eskua kopetara eramane eta begiak itxi nituen, erantzuna minutu batzuk lehenago jazotako egoeraren gogorrean bi-

latzeak zauri josiaren mina areagotuko balit legez.

- Sofiari buruz hasi zaizkit.

- Zer esan diezu?

- Ez dakidala nor den. Non ostendu dudan galdetu didate.

- Eta zer erantzun diezu?

- Piperrik ere ez.

- Baina zuk badakizu non dagoen, ezta?

- Ez, oraindik ez.

- Zer esan gura duzu horrekin?

- Oso gutxi falta zaidala.

- Nahikoa da! Poliziarekin berba egin eta sa-laketa aurkeztu behar dugu.

- Ez dut Poliziara joan gura. Prestatzen ari naizen lanaz azalpenak eman beharko nizkieke. Eta horrek ez dio graziarik egingo aldizkariko zuzendariari.

- Popatik hartzera zuzendaria!

- Kasuan izandako kontaktu guztiak, informazio emaile guztiak utzi beharko nituzke agerian...

- Poliziara ez bazoaz, erreportajea bertan behera lagako duzula agindu behar didazu -amaitu zuen.

Egongelako mahaiaren ganean utzitako kaxan batu zituen botikak. Sofara hurbildu eta goitik begiratu zidan. Nik begiak zabaldu zain geratu zen, mutu, etsi barik. Besoak bularraren altueran gurutzaturik irudikatu nuen, erantzun baten esperoan dagoela erakusten duen keinuaz, entzun nahi duen hori entzun arte niri so izango dudala sentiaraziz.

Begiak zabaldu eta artez begiratu nion, ezin disimulatuzko irria ezpainetan. Jesarri eta eskuetik heldu nion nire ondoan jartzera ekartzeko. Musu samur bat eman nion.

- Badakizu aurrera egingo dudala, aurrera egin behar dudala, horixe dela egin gura dudana.

Ez zen salaketarik izan; ez nuen artikulua baztertu; baina goiz hartan nork eraso ninduten jakite aldera, notariotzara deitu eta Sofiaren ahizparekin hitz egin nahi nuela esan nion hango idazkariari, gertatutakoari buruzko xehetasunik aipatu gabe. Ordubete geroago mezu bat hartu nuen eskuko telefonoan: «Atzo elkartu zineten leku berean, eguerdian».

Sofiaren ahizpa ez zen itsaslabarraren parean jesarrita zegoen pertsona bakarra. Haren ondoan, parkean gaztainak eskaini zizkidan gizona zegoen: Sofiaren eta bien aita.

Kolpatuta ikusi nindutenean, ez ziren gehiegi harritu. Ezin esan halakorik espero zutenik, baina ez ziren harritu behintzat. Elkar ezagutu genuenean, agurtzean eman zidan abisua gomutatu zitzaidan: kontuz ibili.

- Abisatu nizun, gizon oso arriskutsua da. Zergatik uste duzu ezkutuan gabiltzala? Ez duzu ulertu zer arrisku dagoen haren inguruan? Ez zara konturatzen Sofia ia hil zuen gizon horrek ez duela ezelako eskrupulurik? Ez da hor geldituko; Sofia non dagoen jakin arte, aurrean jartzen zaion edozein gauza zapalduko du. Edonor. Orain, ez dakit zelan iritsi den zuregana, baina ezagutu zaitu. Uste du badakizula non dagoen Sofia. Zureak egin du!

* * *

Aitaren adierazpena

Traizionatuta sentitu ginen. Abokatuarekin berba egin ostean, gure etxetik hur zegoen psikologo batenera joan ginen. Lehenengo egunean Sofia barik joan ginen eta ia ez zigun kasurik egin. Handik irten aurretik beste zita baterako data eta ordua jarri zigun, eta Sofiak eta haren senarrak joan behar zutela esan zigun, banaka hartuko zituela. Gu etxean gelditzeko esan zigun, hura haien arteko kontua zen eta.

Ez ginen hurrengo saioetan izan, jakina. Baina bi hilabete pasa eta gero alabarekin elkar-tu eta ordura artekoa kontatu zigun. Poz-pozik egin zigun berba senarraz, zoriontzekoa zela hark errua onartzea, aurrerapauso bat.

Psikologoaren arabera, tratu txarren emai-leek kanpoan bilatzen dute jokabidearen errua, emakumea egiten dute errudun, edo lana, edo estresa. Gure alabarentzat eta psikologoarentzat gauza handia zen gizonak denaren errua onar-tzea, hura zen-eta soluzioa aurkitzeko aurreneko pausoa.

Alaba pozik zegoen psikologoarekin, asko ikasten zebilela esan zigun. Psikologoak kontuz

ibiltzeko esan zien, oso normala zelako nobioetan jazotzen ziren gauzak ezkondu ostean larriagotzea.

Ahizparen adierazpena

Lehenengo terapian bananduta egon ziren. Senarrak anbibalentzia izenekoa zeukala esan zion psikologoak. Hark maite zuen: nire ahizparekin egon gura zuen, baina, aldi berean, aurkakotzat hartzen zuen: gutxiestea, irainak, mehatxuak, bultzatzea⁸⁵

Zertan ikusten den anbibalentzia? Bada, psikologoaren arabera, posesibotasuna -nire ahizpa berea da- eta egozentrismoa -gizona da bikotean garrantzia duen bakarra-.

Aitaren adierazpena

Egun baten elkarrekin izan ziren psikologoarekin. Lehen aldiz. Gure alabak naturaltasunez egin zuen berba, beldur barik, bikoteaz eta bien

arteko erlazioaz. Bueno, gauza batzuk kontatu zituen haren aurrean. Kontsultatik irten eta erne-gatu ei zen gizona. Zergatik kontatu zuen hura dena, itaundu zion. Bultzatu zuen. Eta jo. Orduan konturatu zen Sofia, senarrak ez zuela ezer kontatzen psikologoarekin egindako bileretan, ez zuela benetako tratamendurik onartzen: psikologoarenera joaten bazen, gure alaba lasaitzeko joaten zen.

Psikologoaren tratamendua utzi zuen gizonak. Ezertarako balio ez zuela eta gainera oso karua zela esan zion alabari. Psikologoak esan zuen oso inportantea zela hura ere joatea, nahiz eta zaila zen, halako pertsonak oso gutxitan laguntzen dutelako terapia aurrera eroaten, terapiara joaten direnean asmo bakarrarekin joaten direlako: bikotekidea haiekin bueltatzea.

Ahizparen adierazpena

Helburua oso gutxitan izaten da errua onartzea eta konponbidea bilatzea. Hori argi utzi zion ahizpari psikologoak. Sofiak, hala ere, joaten se-

gitu zuen, hura barik. Psikologoak biak joatearen garrantziaz egin zion berba, hark ere banakako terapia behar zuelako.

Orduan jakin zuen Sofiak haurtzarotik zetoziola arazoak senarrari, eta oso barneratuta zeuzkala nortasunean, sentimenduetan eta jokabidean. Jakin zuen txikitatik ezagutu zuela indarkeria eta hark txera kontrajarriak sortzen zizkiola: behar afektiboa, egoismoa, oldarkortasun sentimendu neurrigabe eta orokorra, posesibotasuna.

«Oihu, borroka, begirunerik ez eta umiliazio artean hazi da zure ezkontidea», azaldu zion saio baten Sofiari. «Haren aitak edan eta ama jutzen zuen. Haren aitarengandik ikasi du arazoak konpontzen: joka, bortxaz, umiliazioz». Tratu txarrak, zergatik? Harremanetan menperatzaile izan gura duelako, haren ondoan norbait behar eta gura duelako. «Hori bada jokabidearen arrazoia», ohartarazi zion psikologoak, «ziur asko berdin jokatuko du harreman guztietan, jokabidea behin eta berriz errepikatuko du, etsipenak eta gorrotoak bizi dutelako».

Aitaren adierazpena

Umedun gelditzean utzi zion psikologoarenera joateari. Pentsatu zuen umearekin gauzak errazagoak izango zirela, elkarren ondoan denbora luzeago emango zutela eta dena konponduko zela. Oker zebilen.

Ezkondu eta berehala konbentzitu zuen gure alaba umea izateko. Sofiak ez zuen gura, baina konbentzitu zuen. Esperoan zegoenean, pozik ematen zuen. Uste zuen umeak haien artekoak konponduko zituela. Gauzek okerrera egin zuten: sekula ez zion ezer itauntzen, eta umeaz berba egiten zuen bakoitzean «hori» esaten zuen mespretxuz. Medikuarenera, kontrolak-eta egitera, ez zen sekulan joaten, beti bazuen aitaziaren bat nire alaba bakarrik joaten uzteko.

Umea eduki eta lan egiteari utzi zion Sofiak. Hanka sartze handia izan zen.

Ahizparen adierazpena

Independenzia ekonomikoa galdu zuen. Gerora, hura uzteaz pentsatzen zuenean, diru barik nora joango zen itauntzen zion bere buruari.

Umearen lehen hilabeteak ezin gogorrakoak izan ziren. Titia ere negarrez ematen zion. Bihotza erdibitu zigun jazoerok kontatzean: malkoak umearen gainean erortzea, Sofiaren masailetan behera. Senarraren heriotza desio izan zuen lehen bider.

Une gogorrenetako bat izan zen garai hura: bultzadak, herrestan eramatea, ostikoak astean hiruzpalau bider errepikatzen ziren umea jaio zenetik. Sofiak maitasun guztia jarri zuen umearengan, umeak senti ez zezan etxeko indarkeria. Baina, umearen kezka zuen-eta, guri eta haren familiari kontatzea erabaki zuen. Oso zaila izan zen. Amaginarrebak, gure gurasoen aurrean, Sofiari leporatu zion erru guztia.

Eztabaida hartan, baina, senarrak Sofiaren alde egin zuen: bere amarekin haserretu zen; harekin berba egiteari utzi zion. Gure harridurarako, psikologoaren itzuliko zela agindu zion gure ahizpari, erru dena berea zela-eta, profesional baten laguntza behar zuela.

Aitaren adierazpena

Hainbatgarrenez sinetsi zien Sofiak gizonari eta psikologoari. Biei. Eta traizionatu egin zuten.

* * *

Ordu bata eta erdietan lotu ginen elkarrekin bazkaltzeko. Bost minutu lehenago heldu eta barraren parean zeuden aulki altuetako batean jesarri nintzen, horman eskegitako argazkiei begira: udazkeneko kolore herdoilduak, biluzten hasitako zuhaitzak, elur geruza meheak mendi gailurretan, etxeen bero den behe suaren ke iheskorra tximinietan... Dekadentziaren zantzuak, pentsatu nuen, hiltzera doan mundu baten isla.

- Kaixo, maitea.
- Hobeto zaude?
- Nekatuta...
- Begia handituta daukazu.
- Ez dakit zer esango diedan erredakzioan.

- Logelako kristalak garbitzen ari zinenean aulki batetik jausi zarela, aurpegiaz horma jo duzula... «Airea zapaldu eta lurrera erori naiz!», horixe esan ohi da.

- Ez sinestekoa.

- Baina nahikoa inork galdera gehiago ez egingen.

Jatekoak ekarri bezain laster galdetu zidan:

- Badakizu nortzuk izan diren erasotzaileak?

Maite nuen itzulinguruka ibili gabe gauzei heltzeko erraztasun ezin ezkutatzeko hura. Artez galdetzen zuen, eta erantzunak ere zuzen nahi zituen, ezer ostentzen ibili barik.

Goiz hartan izandako elkarrizketa kontatzen hasi nintzaion, lehenengo platereko entsalada hiru gaztaduna jateari lotzeaz batera. Adi entzun zuen, berriketa eten gabe, ardo gorri nafarrari zurrut txikiak eginez. Sofiari jazotako guztia kontatzen ari nintzaiola, gero eta argiago izan nuen erabakia hartuta heldu ginela jatetxera, nork berea, eta bigarren platera apaintzen zuen mugurdiak nola, halako funtzioa betetzen zuela bata besteari begira antzezten ari ginen interesak: itxurakeria, apaindura hutsa. Karmin kolo-

rez egindako xingola garbitu zuen ogi mutur batez, haraino heldu eta kito egiteko orduaren seinalea.

- Noiz esan behar diozu zuzendariari artikulua bertan behera lagako duzula?

Hutsik zegoen taula, zerbitzariak platerak eta ogi apurrak kenduta. Hustasuna nabaritu nuen bion arteko tira-biran, azken burua niri zerbitzaztea tokatzen zitzaidala oharturik.

- Ez diot esango, ez diot ezer kontatuko. Artikulua idatzi nahi dut.

- Zergatik pentsatzen duzu zeure buruaz bakarrik? Zergatik hartu behar dituzu arrisku hauek?

Sofiarengatik erantzun nezakeela pentsatu nuen, Sofiaren ahizparengatik edo aitarengatik, Picasso kaleko andrearengatik edo notariotzako idazkariarengatik.

- Kazetaria naizelako -esan nion.

Postreko bi platerak ekarri zituen zerbitzariak, txokolatzeko marra kizkurdun batez apainduak. Koilaraz gozoki marroiaren uhinetako bat hartu eta ahora hurbildu nion, isilik, haren begiekin bat egin nahian. Segundo bateko erresisten-

tzia izan zen, arestiko hitzen neurria hartzen babilibil bezala, eskaintzen nion gozokiak amurik gordetzen ote zuen bere buruari itaunka. Koilara hartu eta ahora hurreratu zuen neskalagunak, sartu gabe hurreratu ere, eta kontuarekin bukatu zuen:

- Astebete daukazu amaitzeko. Eta berriz erasotzen badizute, salatu egingo duzu, Poliziarenera joango zara.

Txokolatea irentsi zuen.

Psikologoarenera joan nintzen arratsaldean, hitzordurik gabe. Itxarongelako aldizkari espezializatuak irakurtzen aritu nintzen han bildutako guztiak irten arte.

- Eskatuta al daukazu txanda? -galdetu zidan laguntzaileak-. Gaurkoak pasa dira. Psikologoak ez du beste saio baterako betarik.

- Ez kezkatu -esan nion.

Altxatu eta, korridorean aurrera, psikologoaren bulegoan sartu nintzen deitu barik.

- Zer egiten duzu hemen? -mamu bat agertu balitzaio bezala geratu zen.

Mahaira inguratu eta bekaineko zauria erakutsi nion. Aurpegia beste aldera biratu zuen, puntuek atzera eraginda. Laguntzailea bulegoko atean zegoela ohartuta, atea ixteko eskatu zion, nirekin mintzatu behar zuela apur batean, agendan apuntatu gabeko saio bat zela, atzeraezinezko saio bat.

- Zer gertatu zaizu?

- Ohetik erori naiz.

Sofiaren ahizparen eta aitaren hitzak entzun ostean ez nuen zalantzarik izan: psikologoa eta erasotzaileak lotu nituen inolako dudarik gabe; hala interpretatu nuen psikologoak ni ikustean erakutsi zidan harridura. Ez nion jokatzeko aukerarik eman nahi izan. Eta artez salatu nuen, jipoiaren erantzule egin nuen.

- Ez nago halakorik onartzeko prest. Nik ez daukat zerikusirik gertatu zaizunarekin. Ezin dut imajinatu ere egin nortzuk izan daitezkeen pasada hori eman dizutenak. Ezta ere zein arrazoi-rengatik izan den.

- Atzo azken orduan zurekin egon eta gaur goizean etorri dira ba morroiak.

- Bost urte daramatzat lan honetan eta sekula ez dut jokabide bortitzik onartu. Hemendik praktika hori erabiltzen duen jende asko pasatu da, ulertuko duzunez. Baina, sekula ez, berriz diotsut, sekula ez dut horrelako jokabide mafiosorik neure lanean onartu.

Nondik jarraitu ez nekiela gelditu nintzen. Atzamarrak zaurira eraman eta hariaz jolasten hasi nintzen denbora irabazteko.

Karpeta bat bilatu zuen mahaiaren ezker aldeko paperen artean. Garai batean Sofia artatu zuela esan zidan, hainbat saio egin zituela harekin bakarka, eta baita ezkontidearekin batera ere. Hura ere bere pazientea izan zela gehitu zuen, nahiz eta oso gutxitan agertu zen saioetara. Gero, karpeta hatz erakusleaz seinalatzen zuela, aurreko bisitan esandakoa errepikatu zidan:

- Karpeta honetako informazioa isilpekoa da. Atzo esan nizun eta berriz diotsut: emakume honetaz berba egin gura baduzu, berarekin etorri beharko duzu. Amaitu da gaurko saioa.

Elkarrizketa luzatu nahi izan nuen, informazio gehiago lortzeko bidezidorren bat bilatu; alferrik:

psikologoa zutitu eta atera joan zen nirehitz galduen ez entzunarena eginez. Idazkariari deitu eta, nire bisita bukatu zela esanda, kanpora laguntzeko eskatu zion.

Kontsultaren aurrealdeko atean zegoen xafla dirdaiari erreparatu nion, abokatuen izena iragartzeko modu hanpatuari, azpian molde txikiagoz eginaren erakusten zuen ordutegiari. Izen-abizenak ikusita, behinola irakurritako deiturak etorri zitzaizkidan gogora.

Psikologoaren bulegoa hiria zeharkatzen duen ibaiaren eskuinaldean dago, Portuko Agintaritzak egoitza dotorea daukan lekutik metro gutxira. Kilometro erdia beherago, behinola hiriarri ospea eman zion Unibertsitatea. Erlojua begiratu eta erabaki nuen oraindik beste gestio bat egin nezakeela. Ibai ertzeko nasa zaharrenean behera joan nintzen, uraren zikinak ordura arteko kezka beste alde batera eramaten zidala nabaritutuz, burua apur batean freskatzea lortu banu bezala. Likido marroixka hartan murgiltzen sentitu nintzen, haren azpian ere oxigenoa gero eta eskasagoa zitzaidala, argia gero eta motelagoa, indarra gero eta beratuagoa.

Autoz beteta zegoen Unibertsitateko parkinga; jende gutxi inguruetan. Zuzenbide fakultate-
ra abiatu nintzen, bilatzen nenbilen datua zein
urtetakoa izan zitekeen kalkulatzeko: bilatzen
nenbilen pertsonak hirurogei urte baino gehiago
zituela iruditu zitzaidan hura lehen aldiz ikus-
tean; beraz, hirurogeiko hamarkadako lizentzia-
tuekin hasi behar nuela erabaki nuen. Espero be-
zala, promozio bakoitzean lizentzia lortutako
ikasleen orlak korridoreetako hormetan zeuden
zintzilik, fakultatearen ospearen erakusgarri.
Probintziako familia garrantzitsu askoren abize-
nak agertzen ziren argazkien azpian. Urtez urte-
ko ibilbide arina, 1960ko promozioaren koadro-
raino iritsi arte. Itzal handiko aurpegi serio haiei
begira jardun nuen lehendabizi, haietan egungo
begitartearen ezaugarriak ezagutzea helburu;
azpiko abizenak irakurri nituen gero, denboraren
joanak are handiagoa egingo zuelakoan denen
itzala. Orlaz orla joan nintzen, harik eta 1966ko
promozioan notarioaren izen-abizenak aurkitu
nituen arte.

Arretaz begiratu nituen gainerako argazkiak.
Berehala erreparatu nion notarioaren gaztetako

argazkiaren ezker aldean zegoen gazte segail baten erretratuari. Hantxe neukan psikologoarenean abokatuen kabineteko xafako abizenetako bat. Baina deiturak kaieran idazten ari nintzela, argazkiko lehen lerroan zeuden emakume bakarrei erreparatu nien, eta orlan ikusi nuen psikologoaren abokatuaren bigarren deitura ere.

Promozio bereko ikasleak ziren orduan, bazkideak gaur egun!

Fakultateko halleko eskailerak arineketan jaitsi eta lasterka zeharkatu nituen aparkalekuaren eta errepidearen arteko lorategi orbelez kolortuak. Etorritako bidearen kontrako norakoan segitu nuen azkar, bulegotik alde egin aurretik harrapatu behar nuen psikologoa.

Atarira heldu, mailak binaka igo, karrajuan aurrera egin eta liburu bat irakurtzen harrapatu nuen.

- Hitzordurik gabe nator berriro.

Sustoa eman nion.

- Hau Sofiaren senarraren aita da, notario bat -kaieran apuntatutakoak erakutsi nizkion-. Beste hauek promozioako lagunak. Bazkideak dira hirurak.

Zutundu, Sofiari buruzko karpeta hartu eta kanpora joan zen ezer esan gabe, pauso luzee-tan. Atzetik jarraitu nintzaion. Korridorean aurre-ra segitu zuen, itxarongela pasa eta kolpe batez ireki zuen atea; deitu barik, abokatuen bufetean sartu eta artez joan zen bulegoetako baterantz, sarreran zegoen administraria zur eta lur utzita. Ateak hormaren kontra jo zuen psikologoak eragindako indarraren ondorioz eta ustekabean harrapatu zuen ordenagailuan idazten ari zen gizon gaztea. Karpeta mahai gainean erortzen utzi eta ozen galdetu zion:

- Ezagutzen zenuen Sofiaren senarra?

* * *

Psikologoaren adierazpena

Sofia tratatu nuen hainbat saiotan; baita haren ezkontidea ere. Hura idealizatzen zuen Sofiak: gizon hura ederrena eta azkarrena zen. Aldiz, gizonarentzat hutsaren hurrengoa ziren Sofiaren arazoak. Gainera, tratu txar fisikoak eta psikikoak ematen zizkion.

Zeri buruz ari naizen uler dezazuen, tratatu txar psikologikoak nahita egindako jokabide bat da, botere jarrera batetik. Helburua bestea gutxiesten da, kalte psikikoa eragitea, haren autoestimua eta konfiantza suntsitzea. Tratu txar psikologikoak pairatzen dituen pertsonak nortasuna galtzen du, eta tratatu txarrak ematen dituen pertsonarekiko menpekotasuna sortzen dio. Zeintzuk dira tratatu txarren emailearen armak? Bada irainak, akusazioak, mehatxuak, kritika suntsigarriak, oihuak, manipulazioak, isiluneak, indiferentzia, mespretxua.

Hori horrela, esango dut Sofia autoestimua baxuko emakumea zela, baina ez berez. Gizon horrek eragindako egoera zen: ezgauza sentitzera eroan zuen, tentela, motela, itsusia... Sofia bikotekideari guztiz emana zen. Egun osoa hartaz kezkatuta ematen zuen, hari begira. Horrek mendetasuna dakar, harreman desorekatua delako. Behin eta berriz esan nion hori Sofiari, eta gauza bera senarrari ere.

Bien arteko harremana aztertu nuen zenbait saiotan, eta zeharo betetzen zuen Luis Bonino psikoterapeutak menpekotasuna sortzen duten

genero harremanez eman zuen sailkapena, hala nola bestea beldurtzea, bat-batean agintzen hastea, erabakiak bestearekin kontsultatu gabe hartzea, gauzetan tematzea besteak amore eman arte, diruaren kontrola, espazio fisikoaren erabilera, emakumearen ama izaera bultzatzea, hots, emakumea besteren zaintzara mugatzea eta abar.

Gauzak argi eta garbi uzteko eskatu nion Sofiari. Esan nion: «Horrela egiten ez baduzu, hark pentsatuko du ez dela ezer jazotzen, tratu txarrak eramangarriak zaizkizula, ez dagoela jokabide hori baztertzeke arrazoi sakonik». Nik uste nuen, konbentzitura nengoen, Sofiak ez zuela pauso hori egiten, nahiz eta hark ezkontidearekin berba egina zela behin eta berriz agintzen zidan.

Sofiak lehen aldiz etxetik alde egin zuenean ere nire kontsultara etortzen segitu zuen senarrak. Ohartzen zen ez zela sendatu, segitzen zuela tratu txarren emaile izaten, denbora luzeago eta terapia gehiago behar zuela. Hark aitortu zidan Sofia noizean behin ikusten zuela. Lagunak zirela esan zidan. Kosta egiten zitzaion lagun

arteko harreman hura, baina hau sinetsarazi zidan: onartzen zuen ez zegoela beste biderik, hura zela harreman posible bakarra eta onena.

Senarraren ustez, lanak zuen gauza gehien errua. Bere buruari behin eta berriz itauntzen zion ea lana utzi beharko zuen, negozioa itxi. Ohartzen zen, bestalde, «maitasunaren» bacteria husten ari zela, beste harreman bat behar zuela, baina jazoerak behin eta berriz errepikatzen ziren. Bere buruari itauntzen zion ea harreman guztietan jokabide bera izatera kondenatuta zegoen. Egoera hartan bakardadea onartzeko prest zegoen, baina ezin zuen, beste pertsona bat behar zuelako bere ondoan.

Egundoko antzezpena!

Bakardade sentimendu hartaz Sofiak ere berba egin zidan. Abstinentsia sindromea zela esan nion: bikotekidearen jokabidea zuritzea eta bakarrik sentitzea. Autoestimuaekin lotu nuen. Lehenago ere esan dut: Sofiak bera baino sendagoak diren pertsonak idealizatzen ditu, haien ondoan ziur sentitzera hel daiteke, haien beharra izatera. Haiekiko behar psikologikoa sortu zaio. Mendekotasun psikologiko hori ez da oso

larria. Hori esan nion, mendekotasun hura ez zela larria, berak arazoak konpontzeko pausoak egiten bazituen. Baina kezkatzekoa zela ere esan nion: «Kezkatzekoa da pena sentimendu hori, pena sentimenduen ondorioz tratatu txarren emailearengana itzultzeko tentazioa eduki deza-kezu-eta».

Gizonarekin egiten nituen saio guztietan, nik Sofiari esandako gauzak primeran ezagutzen zituela ikusi nuen. Sofiari behin eta berriz eskatzen nion kontuz ibiltzeko, kontsultan komentatzen genituen gauzak, zenbait gauza behintzat, gure artekoak zirela, ezin zizkiola hari esan, bestela egundoko armak emango zizkiola. Behin baino gehiagotan ernegatu nintzen Sofiarekin: berak ukatzen zidan holakoa eta halakoa bikote-kideari esana, baina nik argi eta garbi ikusten nuen baietz, senarrak behar baino informazio gehiago zeukala, Sofiarekin neraman terapia primeran ezagutzen zuela, eta hark gauza haiek Sofiaren bidez jakiten zituela baieztatzen zidan aste batean eta bestean. Egundoko arma zeukan guk egindako pauso guztiak banan-banan desar-

matzeko. Eta hori, ez neukan dudarik, Sofiaren hanka sartzea zen.

Zelan pentsa nezakeen neu ere joko zikin baten biktima nintzela?

Ezin bururatuzkoa zen garai hartako nire bikotekide sentimentalak traizioa egingo zidala, ezin imajinatuzkoa zitzaidan garai hartako nire mutil-laguna Sofiaren senarraren adiskide mina izan zitekeela. Den-dena kontatzen nion berari, konfiantza osoz, ordu asko eman genuen bikote haren arazoez hizketan, berak erakusten zidan interesak azpiko jokia ezkutatzen zuela pentsatzera heldu barik.

Sofiak bere senarrarekin engainatzen nuela aurpegiratu zidan behin, maitale nuela, neu ere beraren kontra nenbilela. Ezin onar nezakeen halako akusazioa, nire profesionaltasuna zalantzan jartze hura. Kanpora bidali nuen: tratamendua bertan behera utzi eta berriz ez itzultzeko esan nion. Huts egin nion. Eta barkamena eskatzen diot.

* * *

Psikologoaren eta haren senargaiaren arteko liskarraren ostean, amorruaren amorruez eman zidan Sofiari buruzko txosten isilpekoa.

- Gogor jokatu behar duzu -eskatu zidan-, azken muturreraino.

Nahasita itzuli nintzen etxera. Aztergai nuen kontua gainezka egiten ari zitzaidala sentitu nuen lehen aldiz. Ez zen egun hartako erasoa bakarrik. Hasieran jakin-mina eragin zidan misterio kutsu hark itomena sortzen zidan orain. Nire karrera laburreko erreportajerik garrantzitsuena izan behar zuena mendekurako bide bihurtzen ari zen.

Emakume batzuen mendekua, familia baten mendekua eta, azkenik, psikologo baten mendekua.

C itxurako ilargia, zazpi egun lehenagoko be-tearen aldean, iluna iruditu zitzaidan, lotsatia, gero eta ezkutuagoa. Eta horrela irudikatu nuen neure lana: hasierako asmo argiaren aldean, nahasia, korapilatsua, gero eta ostenduagoa.

Etxean neskalgunaren ohar bat neukan: «Zineman nago lagun batekin. Elkarrekin afaltzera joango gara gero. Ez egon nire zain».

Hozkailutik entsaladaren poltsa eta tomateak atera nituen. Automatismoz aritu nintzen, burua beste toki batean. Langelara joan eta neskalagunak egun batzuk lehenago ekarritako txosten medikoak hartu nituen. Azken begiratu eman nahi nien. Erabakita neukan erreportajea idazten hasiko nintzela, garaia zen lortutako datu guztiak jorratu, garbitu eta zuzendariak eskatutako lana behar legez apaintzeko.

Sofia larrien ingresatu zuten egunekoa ireki nuen. Orfidal gaindosiak jota eraman zuten ospitalera. Txosten medikuak deskribatu bezala, koordinazio motorrean arazoak sortu zizkion gaindosiak. Medikuek egindako azterketak argi frogatu zuen haren organismoan ez zegoela bestelakorik, ez drogarik ez alkoholik. Psikologoak emandako paperak hartu eta gertaera haren berri jakotzen zuten begiratu nuen. Lehen bisita egin nion egunean nire datuekin betetzen hasi zen fitxa moduko batzuk zeuden, bisita egunaren arabera antolatuta. Ospitaleratu zuten eguneko data begiratu eta hurbileko bat bilatu nuen kartoi zurian. Bai, Sofiak ospitaletik irten eta egun batzuk geroago bisitatu zuen psikologoa.

Txostenaren arabera, zenbait hilabete bazi-
ren Sofiak Orfidal hartu behar zuela lo egiteko.
Gero eta gehiago: hasieran bat nahikoa zen;
gero, bi; hiru. Eta hala ere kostata hartzen zuen
loak. Egundoko eztabaida izan zuen arratsalde
hartan eta nerbioak galdua, hainbat lasaigarri
hartu zituen. Amak, gauero bezala etxera deitu
eta Sofiak hitz egiteko arazoak zituela ohartuta,
larrialdietako zerbitzura hots egin zuen. Aurkitu
zutenean lo zen; kostatu zitzaien esnatzea, ira-
tzarrik mantentzea; arazoak zituen mugitzeko.

Ez zen suizidiorako ahalegina izan, medikuek
hura pentsatu bazuten ere; antsietatea lasaitu
nahi izan zuen, deskantsatu, bakea aurkitu. Ha-
mahiru hilabete zeramatzaten ezkontuta, bi hi-
labete zituen haurrak, eta lasaitasun apur bat
behar zuen. Ospitaletik irten zenean aurre egin
zion senarrari. Ahizparen etxera joan zen bizitze-
ra.

Hurrengo saioetan ahizparenean eman zi-
tuen bi hilabeteak deskribatu zituen Sofiak. Se-
narrarengandik urrundu arren, hura maite zuela
sentitzen zuen, ez zuen galdu nahi. Ahizparen
etxean zegoen umea, ahizparen etxean zeuden

Sofiaren gauzak, baina bigarren egunetik aurrera egunero elkartzen ziren, eta zenbait gau ere harekin pasatzen zuen.

Ez aurrera ez atzerako egoera bat zen: ez zituen bikotekidearekiko lokarriak hautsi nahi, ez zitzaion inori mintzatzeko sufritzen ari zenaz, ez zuen salaketarik aurkezten. Ohartzen zen senarrarekin egunero gelditze hark kaltea baino ez ziola ekarriko, baina jazoeren inertziak eramaten zuen eta ezin zuen bere bizitza kontrolatu. Laguntza eskatzen zion psikologoari, zama berarekin konpartitzen zuen, aholkuak hartu, erabakiak aurrera eramane... Baina psikologoarekiko nola-baiteko mesfidantza sentitzen hasi zen, hark ez baitzion sinesten.

* * *

Ahizparen adierazpena

Nire etxean egon zenean berarekin haserretu nintzen, denaz ohartzen nabilela esan nion. Senarrak tenteltzat hartzen zuela bota nion. Ezin nuen eroan Sofiak harreman hura normaltzat

hartzea. Egun batean, bazkaria prestatzen genbiltzala, kipula zatitzen ari zen Sofia, eta esan zidan: «Kipula zatitzen ikasi behar dut, irakatsi behar didazu». Barazkia zuritzeko moduari begiratu nion. Behar bezala zatitzen zebilen, gure amak irakatsi zigun moduan. Ondo egiten zuela komentatu nion, zer ikasi ez zuela, eta ezetz erantzun zidan, senarrak sarri esaten ziola txarto egiten zuela, txarto mozten zuela kipula, eta tomateak, eta kuiatxoak... Sutan jarri nintzen.

Harekin itzuliko zela esan zidanean biziki haserretu nintzaion, ezin onar niezaiokeen. Ama ere etorri zen ahizparekin berba egitera. Itzulzearen ondorioez egin genuen berba, istorio hura zelan amai zitekeen. Sofiak esan zigun bazekiela, egoera ulertzen zuela, baina gizon hura maite zuela eta ezin zela harengandik aparte bizi.

Ikaragarria begitandu zitzaidan ahizparen mendekotasuna, beldurtzekoa; autoestimua dena galdua zuela iritzi nion. Ez zigun esan ba haren ondoan beterik sentitzen zela! Harengandik urrun, hutsik! Ez zegoen hanka sartze hura ikusarazterik. Ahitzen ari zen, burua hormaren kon-

tra jotzera zihoan, eta ez zegoen hura konbentzitzeko biderik.

Bila etorri zitzaion etxera. Umea artean besotetan neukala, Sofiari mintzatu nintzaion, deitze-ko eskatu nion, noizean behin elkarrekin irtengo ginela umea paseatzera edo. Senarrak nire aurrean baietz esan zion, animatu egin zuen, sarrigo irten behar zuela adierazi zion. Ikaragarri haserretu nintzen, banekien-eta plantak egiten zebilela, hark debekatzen zion lagunekin ibiltzea, hark behartzen zuen beharretik etxera eta etxetik beharrera joatera ama berriko baja hartu aurretik, hark sinetsarazi zion gizonezko lagun denek asmo zikin bakarra zutela; hark pentsarazi zion emakume lagun denak ere influentzia txarrekoak zirela, nire ahizparen inbidiatan zuedela, Sofia haietan ederrena zelako.

Eta harekin itzuli zen.

* * *

Denbora luzea eman nuen txostenetan bila, zer jakin gabe ere bila. Uste baino beranduago zen. Bitxia egin zitzaidan neskalaguna artean

etxera itzuli barik egotea. Eskuko telefonora deitu nion. Ahots postontzia aktibatu zen. Hurrengo minutuetan hainbat bider saiatu nintzen, gero eta tarte gutxiagorekin, eta beti ahots metalikoa. Arregatu egin nintzen. Normala ez zela iruditu eta goizean izandako erasoarekin lotu nuen atzerapena. Goizean jo ninduen gizonak neskalaguna ikusteko aukera izan zuen, ni laguntzera irten zenean.

Ez bat eta ez bi, taxi bat hartu nuen, afaldu ohi genuen begetarianoan aurkituko nuelako esperantzan. Jatetxetik berrehun bat metrora, semaforoan geldirik geundela, Montero Sport berde bat sartu zen aurreko biribilgunean, behar baino askoz arinago. Ez nuen pazientziarik izan: hamar euroko billete bat eman eta taxitik irten nintzen arrapaladan, jatetxeraino falta zen bidean lasterka. Zenbat eta hurbilago, orduan eta urduriago sentitu nintzen, estuago nabaritu nuen bularreko presioa. Tabernatik begiratu azkar bat egin eta hura ikusi ez nuenez, barran itaundu nuen neskalaguna han afaltzen egon ote zen. Baietz esan zidan zerbitzariak. Begiekin bi-

latu zuen. Joan berria izan behar zuela adierazi zidan.

- Norekin zegoen?

- Emakume batekin. Gero gizon bizardun bat etorri da. Harekin hitz egin du. Kontua eskatu di-date. Ordaindu dute eta hortik aurrerakoez ez naiz konturatu.

Une hartan komunetik irten zen emakumea seinalatu zidan.

- Horrekin afaldu du.

Neskalagunaz itaundu nion. Eskuaz erakutsi zidan arestian zerbitzariak seinalatutako mahaia. Harrituta geratu zen:

- Hementxe zegoen komunera joan naize-nean.

- Zein gizon etorri zaizue berbetan?

- Ideiarik ez. Sartu da eta ozen galdetu du norena den kanpoan dagoen auto horia. Gurea, esan du zure neskalagunak. Alboko ispiluari nahigabeko kolpe bat eman eta hautsi egin duela azaldu dio. Ea paperik egin nahi zuen. Baietz. Orduan nik esan diot, neuk ordainduko dudala afaria. Irten aurretik komunera nindoala eta hemen egoteko, lagunduko niola paperekin.

Erotuko nintzela pentsatu nuen. Ez nekien zer egin.

Adiskidearen eskuko telefonoak jo zuen. Zenbakia begiratu eta hura zela esan zidan. Hartzeko presatu nuen.

- Non zaude? -segundo bat eta aurpegia alaitu zitzaion-. Kanpoan dago, zigarro bat erretzen!

Ziztuan irten nintzen, nora ez nekiela. Adiskideak jatetxearen ezkeraldea seinalatu zuen. Autoaren atean bermatuta ikusi nuen, zigarroaren keaz jolasean. Nire alderantz biratu zen ezustean, libre zeukan eskuaz azalpen eske. Ezer esan gabe besarkatu nuen. Ez zuen ezer ulertzen.

- Burutik eginda zaude ala zer?

- Non dago zurekin batera irten den gizona?

- Joan egin da -txundituta begiratu zidan-. Elkarri telefono zenbakiak eman eta joan da.

Cooper Miniaren errepide aldeko ispilua falta zela ikusi nuen, kristal apurrak lurrean. Barruan, atzeko jarlekuan, karkasa hori mailatua.

- Ze kotxe zeukan berak?

- Ez dakit. Ez naiz ohartu. Adiskidetasunezko istripu aitortpena egiteko paperik ez geneukanez, bihar goizerako lotu gara.

- Emazkidazu izena eta telefono zenbakia.

Larru beltzezko poltsan gordeta zeukan orri puska bota zidan haserre bizi.

Emakume batek hartu zuen telefonoa. Pape-rean idatzitako izen-abizenek itaundu nion.

- Deskuidatu egin zarela uste dut -erantzun zidan.

Zenbakiak leitu nizkion banan-banan.

- Horixe da nire telefonoa. Baina ez dut eza-gutzen aipatu didazun tipoa.

- Barkatu -eten nuen deia.

Etixeratu ginen eta loak hartu.

Goizeko zazpiak edo izango ziren neskalagunaren eskuko telefonoak jo zuenean.

- Esan!

Segundo batzuk pasa eta sofaren aurka jaur-ti zuen aparailua. Beldurtuta zegoen, sumina hortz artean. Besarkatu egin nuen. Ez zuen kontra egin, gorputza egokitu zuen besoen artean.

Eta negar egin zuen.

Hamarrak aldean, ohiko tokian, Sofiaren ahizparekin elkartu ginen neskalguna eta biok. Aurkezpenak egin eta gertakariak kontatu nizkion.

Sofiaren senarraren telefono zenbakiak eza-gutu zituen.

- Niri egindako deien modukoak egingo dizkizue. Ez dizue bakerik emango -malko saminak etorri zitzaizkion begietara, dardara egin zion ahotsak-. Irainak, lizunkeriak, mehatxuak...

- Akabo -esan nion-, ez dut erreportajerik egingo!

- Ulertzen dut zuen kezka. Badakit zer den egun osoa izututa pasatzea.

- Egoerak gainezka egin du. Sentitzen dut, baina amaitu da dena.

- Trankil, gure lagunek ere ulertuko dute.

- Jipoitu egin naute, neskalguna mehatxatzen hasi dira. Zer izango da hurrengoa? Ezin dut honekin aurrera jarraitu!

- Eskerrik asko egin duzun guztiagatik.

Ahizparen adierazpena

Etxera itzuli eta hilabete batera amaitu ziren lore sortak, opariak, adeitasun seinaleak. Zertarako behar zituen? Sofiak sinetsia zuen berea zela erru guztia; beraz, zertarako eskatu behar zuen barkamena basapiztiak. Sofiak makurtu egin zuen burua. Amaitua zen sari eta zigorren garaia.

Barneratu egin du errua: jotzen badu merezi duelako da, hura jagoten jakin ez duelako. Beraz, jokabidea aldatzen badu, hala pentsatzen zuen, senarrak gura legez jokatzeko badu, dena konponduko da, gauzak behar bezala bideratuko dira eta ez da tratatu txarrik izango.

Dena bihurtu zitzaion kritikagarri: landareak ureztatzeke era, orrazkera, neguko arropa gorde eta udakoa ateratzeko garaia, ibilera, aldizkarien orriak pasatzeko era, gidatzeko modua... Dena irain: «kar, kar, zelako ibilera!», «kar, kar, zelako hortz itsusiak!», «kar, kar, ipurdia erortzen ari zaizu eta ia belaunen pare daroazu». Egun baten, larregi zela esan zion senarrari, atseka-

bea erakutsi zion, eta hark konplexuz beteta egotea aurpegiratu.

Amatasuneko baimena amaituta, beharrera itzuli gura izan zuen Sofiak. Ezetz esan zion, berak nahikoa irabazten zuela eta nire ahizparen eginkizuna umea jagotea zela, ez zegoela bestelako beharrik biek lan egiteko. Sofiari ez zitzaion txarto begitandu. Hala ere, hiru hilabete geroago, umearenak eta etxeakoak eginda ere, denbora sobran zeukala ohartuta, ikastea bururatu zitzaion, denbora zelanbait baliatzeko. Eztanda egin zuen piztiak: umearenak baztertuak zituela, ama eskasa zela, eta etxeakoandre txarra.

Senarra etxera heldu zen egun batean, Sofia umea jagoten zebilen, eta afaria prestatu barik zegoela ohartzean, oihuka hasi zitzaion, eta gero jotzen, Sofiak umea besoetan zuela. Ohearen kontra hartu zuen kolpea buruan. Odoletan zen. Lasterka irten zen logelatik, eta komunean ezkutatatu. Ikaraz sentitu zituen ateko danbatekoak. Kolpearri kolpea, zulo bat egin zuen azkenean, eta Sofiak atea zabaltzea ebatzi zuen. Umea eskutik kendu eta sehaskan utzi zuen. Gero, besotik heldu zion Sofiari, eta tiraka eroan zuen loge-

lara hormarik horma. Infernua izan zen. Lurrera bota eta ostikoak hasi ziren: aurpegian, enborean, heriotza mehatxuak, burua lurzoruaren kontra jo eta jo...

Dena amaitu zenean, piztia umearen gelara joan zen ipuinak kontatzera. Haurrak ez zuen gura. Ahots haren beldur zen, izututa zegoen eta negar egiten zuen bere etsipenean. Umeari ere irainka eta oihuka zebilela ohartu zen Sofia. Gelan sartu zen: lekutik desplazatua zegoen sehaska, hautsia burkoaren gaineko irudi mugikorra, lurrian umearen hartz nabarra. Gorrotoa ikusi zuen gizonaren begietan, gorrotoa umeari begira egindako keinu mehatxagarrian, gorrotoa atea ixteko erabilitako indar lehegarrian. Sukaldera joan zen senarra; eta une hartaz baliatuta, umea hartuta lasterka irten zen kalera, ortozik, kamisoiak, euripean. Guztiz desorientaturik sentitu zen, norakorik gabe, nork lagunduko ez zeukala. Gidari bat ohartu zen Sofiaren egoeraz, eta ospitalera eroan zituen.

Bizkarrean, bularretan, ipurmasailetan, besotan eta zango sagarretan zeuzkan kolpeak erakutsi zituen ospitalean, baina medikuak ez zuen

interesik erakutsi, ganorarik gabeko txostena prestatu zuen.

* * *

- Izorratu egin behar dugu!

Ez nuen ulertu zer mugitu zitzaion neskalagunari barruan, zerk ukitu zizkion bihotz-erraiak, baina berak erabaki zuen aurrera egingo genuela, artikulua idatzi, argitaratu eta gizon haren kontra jo behar genuela.

Sofiari buruzko txosten medikuak hartu eta hura artatu zuten medikuak arakatzen hasi zen. Sukaldeko mahaiaren gainean bota zituen biraoika. Ostiko bat eman zion aulkiari, eta ozenago madarikatu zuen haren bizia.

Sendagileetako baten zenbakia ospitalean eskatu eta deitu egin zion:

- Zergatik ez zenuen behar bezalako txostenik idatzi? Zergatik ez zenuen tratu txarrei buruzko informerik egin gura izan? -errespetuzko hitzik gabe mintzatu zitzaion, garai bateko zorrak kitatzen balebil bezala.

Ez zituen haren azalpenak onetsi. Ezin zuri-tuzko jokabidea iruditzen zitzaiola adierazi zion.

- Berdin zait zer diozun. Pikutara kode deontologikoa eta halakoak, ez zenuen profesionaltasunez jokatzeko ahalegin txikiena ere egin!

Alferrik izan zen medikuak hura bere azken lan astea zela argudiatzea, erretreta hartu aurreko egunak zirela eta ez zuela bizitza konplikatu-ko zion arazorik nahi.

- Berdin zaidala esan dizut! Bost axola zure ibilbide inpekablea eta historiala! Azken unean, neurria benetan eman behar zenuenean, zure erosotasunari baino ez zenion begiratu. Kale egin didazu. Zureganako neuzkan konfiantza eta mirespena kakaztu dituzu.

Eta infernuan ustel zedila oihukatu eta eskegi zuenean, telefonoari begira geratu zen. Dei abisua zeukan pantailan, sendagilearekin berbetan ari zen bitartean galdutakoa.

- Bera izan da! -aztoraturik pasa zidan aparailua.

Bera zen. Mezua utzi zion ahots postontzian: «Badakizu nor naizen. Txikitu egingo zaitut, putakumea! Ez zara inoiz ahaztuko!».

Eta bat-batean krista hautsien zarata entzun genuen egongelan.

Lehen begiratuan ez nuen ezer ikusi, leihoa ezkututzen baitzuten errezelek. Hurbiltzean, lurreko kristalak zapaltzearen kraska entzun eta han gelditu nintzen. Orduan erreparatu nion, lanpara bertikalaren oinaren ondoan: harritzar bat! Makurtu egin nintzen, instintuz, eta neskalagunari berdin jokatzeko keinua egin nion. Segundo pare bat itxaron nuen; apurka, zutundu gabe, errezel azpitik altxa eta hormara hurbildu nintzen. Zulo bat zegoen leihoaren ezker aldean, gelako harria baino handiagoa. Astiro, burua agertu nuen leihoaren egurrezko koadroaren gainean, eta kalea xerkatu.

Zenbait lagun zeuden espaloian, leihora begira, gu bezain harriturik, esango nuke.

- Ondo zaudete? -galdetu zigun haietako batek.

- Bai. Nor izan den ikusi duzue?

- 4x4 batetik gizon bat jaitsi eta eskuan zekarren harri handia jaurti du. Lasai asko itzuli da autora. Patxadan alde egin du, batere larritasunik gabe.

- Nolakoa zen?

- Zaila da esaten. Txano beltz batez estalita zeukan burua.

- Ze kolorekoa zen autoa?

- Berdea. Kotxe handi horietako bat, aurrealdean burdinazko defentsekin.

- Bakarrik zihoan?

- Ez naiz konturatu. Telefonoa emango dizut salaketa egiteko asmoa baduzu. Deitu konfiantza osoarekin.

Barrualdera biratu eta harria hartu nuen. Neskagunari begiratu nion. Atearen janba zurian oinarrituta zegoen, isilik, markoari indarrez helduta. Harri koskorra mahai gainean utzita hurbildu nintzen harengana. Begitik ihesean zertorkion malkoa kendu nion erpuruaz. Atzerantz erretiratu zuen burua, eta apur baten lasai uzteko eskatu zidan, barruko tentsioa kanporatzen uzteko.

Sukaldera joan nintzen erratzaren eta palaren bila. Bueltan, sofan aurkitu nuen neskaguna, harria eskuetan, begiak telebista amatatuaren kristal ilunean. Haren islari begiratu nion. Ordua arte sumatu ez nuen bortxazko aurpegiera

antzeman nion pantailako figurari, ezagutzen ez nion oldarkortasuna, gorrotoa. Burua alde batera eta bestera mugitzen zuen ahotsik gabeko irudi bizi haietan, zerbaiten edo norbaiten bila balebil bezala, kontrolik gabe, nerbioak gidari; begiak puntu finko batean jartzen zituela iruditu zitzaidan eta, halako batean, besoa armatu eta harria jomuga ikusezin haren aurka jaurtitzen zuela.

Bizkarra zurruntzen zitzaidala sentitu nuen, nerbio kolpe batek burua sofarantz birarazi zidan. Alboan zeukan harria, aurpegia eskuetan, ukondoak belaunetan. Leiho aldera egin nuen, telebistari begiratu gabe, eta lurreko kristalak batzen hasi nintzen. Kristal bakoitzean bizitzen ari ginen istorio hautsiaren zati bat zegoen. Inoiz osatzera iritsiko ez nintzen puzzle baten modukoa.

- Idatz ezazu artikulu hori behingoz! -esan zidan-. Amai dezagun amesgaizto hau.

* * *

Aitaren adierazpena

Gizona joan zitzaion ospitalera bila. Gure alaba desorientatuta zegoela esan zion medikuari, burua galtzen hasia. Etxetik sarritan alde egiten zuela, hori esan zion medikuari. Gero plantak egiten hasi zen: zer arrano jazo zitzaion, zauriak non egin edo nork egin zizkion, ea kotxe istripurik edo izan zuen. Gure alabak ez zion erantzuten; ez zion medikuari ezer esaten; otoitz egiten zuen, txikitan gure etxean ikasitakoak esaten zizkion umeari belarri ertzean, begiak izanik gabeko leku batera bildurik. Egoera hura ere baliatu zuen senarrak Sofiaren eromenaren froga gisa, eta medikuak sinetsi egin zion.

Etxera itzuli ziren. Bueltako bidean barkamena eskatu zion, lanean tentsio handia bizi zuela, pitin bat edanda zegoela, gure alabak probokatu zuela eta ez dakit zenbat gauza esan zizkion kotxean. Behin eta berriz ziurtatu zion ez zela atzera ere halakorik jazoko. Barkatzeko erregutu zion, ahazteko...

Ospitalekoaren ostean, bi aste geroago edo, alabaren bila joan behar izan genuen etxera. Gurrera etorri gura zuen bazkaltzera umearekin.

Baina hark ez zion utzi, gelan itxi zuen. Telefonoz deitu zigun eta berehala joan ginen. Gizonak txirrina entzun eta berehala utzi zion gelatik irte-
ten. Ikusi behar zen haren jokabidea. Ez sineste-
koa. Plantak egiten beti: «Hara!, ez nekien gura-
soenera joan behar zenuela; ideia oso ona da;
pena nik ezin joatea, laneko gauza bat egin
behar dut eta...». Gure etxean, haserretu egin zi-
tzaion ama: harengandik banatzeko konbentzi-
tzen saiatu zen, itzultzearen ondorioez egin zion
berba, zelan amai zezakeen. Gure alabak esan
zion baietz, bazekiela, baina gizon hura maite
zuela eta ezin zela harengandik urrun bizi. Ikara-
garria zen guretzat.

Berriz abokatuarekin berba egitera joanak
ginen. Esan zigun ez zegoela ezer egiterik, So-
fiak berak ezer egiten ez bazuen. Hark kontatu
zigun askotan oso larri dagoen jendea ikusi
duela, apurka ahultzen dabilen jendea, eta
burua hormaren kontra jota ere ez dagoela hura
konbentzitzerik. Hala eta guztiz ere, Sofia baka-
rrik ez uzteko esan zigun, beraren ondoan segi-
tzeko: aholkatzen, harreman hura kaltegarria
dela errepikatzen, honela mespretxatzen duen

personak, eraso egiten dion pertsonak ezin duela benetan maite.

Gurean egon zen egun hartan, etxera itzuli zenean, zain zuen senarra garajea. Autoa gelditu bezain pronto kolpeka hasi zen txapan, ostikoka gurpiletan; samatik helduta atera zuen kotxetik; bultzaka segitu zuen, irainka, lurrera bota arte.

Umeak dena ikusi zuen kotxe barrutik.

Uste dut gure alabak orduan ebatzi zuela eskapatzea. Gauza denak planifikatzen hasi zen, kontu handiz, frogarik ez uzteko, gizona ez konturatzeko zertan zebilen. Lasaigarriak hartzeari utzi zion. Erne egon gura zuen, burua argi, pentsatzeko, defendatzeko. Orduan ebatzi zuen nora joan, baina ez zion artean inori esan.

Zerrenda bat prestatu zuen, ihes egitean berekin eroan behar zituen gauzak: familia liburua, etxearen jabetza eskriturak, aseguruaren dokumentuak, espediente akademikoak, arropa, helbideen agenda, umearen jaiotze agiriak, egiaztagiri medikuak, gizarte segurantzako txartela, gidatzeko baimena, nortasun agiria, ahal beste diru, giltzak, botikak, argazkiak, bitxiak...

Garrantzitsutzat jo zituen dokumentuen kopiak egin zituen; bankuko kontuen zenbakiak apuntatu zituen, matrikulak, helbideak... ustez garrantzitsua izan zitekeena. Etxeko ondasun guztien inbentarioa egin zuen.

Beste egun baten, kontu bat zabaldu zuen bankuan, berak bakarrik ezagutzekoa, eta hilerio sartu zuen ahal beste diru. Lana bilatzen hasi zen, ezkutuan, curriculumak bidali eta inori esan gabeko posta kutxa baten hartzen zituen erantzunak.

Gurasoen etxera joana zen neskalguna, lanean atsedean egun batzuk hartuta. «Hiru egun» esan nion, zuzendariari artikulua idazteko eskatu nizkion hiru egunak hain zuzen. Etxean idazteko baimena eskatu bainion, materiala bilduta neukala, baina erredakzioko zaratatik libre ekin nahi niola. Ez zuen trabarik ipini.

Langelako mahaian zabaldu nituen txosten medikuak eta psikologikoak; teklatuaren ezkerrean jarri nuen kaiera; pantaila lauaren azpian, harria. Diskete unitatean sartu nuen egun batzuk lehenago jasotako CDa; word dokumentua zabaldu eta inprimatzera bidali nuen; gero, bideoa ikusteko sakatzeaz batera, inprimatua hartu eta esaldia mozten hasi nintzen; azkenik, hura errotuladore more batez azpimarratu ostean, pantailaren goiko aldean itsatsi nuen, begien aurrean:

ERASOTZAILEA ZIGORTZEA BILATU BEHARREAN?

Erasoei buruzko lehen txostena ironikoa begitandu zitzaidan, ospitalearen izenaren azpiko tituluaz txostenaren *behin-behinekotasuna* adierazten zuena. Irrigarria izan zitekeen, ondoko hilabeteetan Sofiak pairatu behar izan zuen guztia ezagutu ez banu.

Egun hartako gaixotasunaren deskripzioa hitzez hitz idatzi nuen. Artikulua hitz haiekin hasi eta azken txosten medikukoekin amaitzeaz pentsatzen ari nintzen. «Gaixoak dio larri urduritua dagoela atzotik, zenbait arazo pertsonal ditu eta. Ia ez du lorik egin bart. Min iraunkorra sentitzen du besoetan eta ezkerraldeko hemitoraxean (albo batean eta atzealdean). Min sakona da, gainean nolabaiteko pisua balu bezala: ez dago disnearik ez katarrorik ezta aipatzea merezi duen beste klinikaririk ere.» Esaldiak hainbat aldiz irakurri ostean, txosten mugatuari kateaturik nengoela ohartu nintzen, hark ez zidala aurrera egiteko biderik erakusten.

Teklatua alde batera mugitu eta kaiera hartu nuen. Taula bat prestatzen hasi nintzen, erre-dakzioaren gidari izango zen jarraibidea. Hogeita hamahiru errenkada marraztu nituen, Sofiaren pairamenak iraun zituen hogeita hamahiru hilabeteentzat bana. «Gabonak dira, urtarrila. Errege egunaren ostean elkar ezagutu dute notariotzan. Nobio egin dira.» idatzi nuen lehenengoan. Gero hurrengo hilabeteak betez joan nintzen, aurreko egunetan izandako elkarrizketetan lortutako datu garrantzitsuenak ordenatuz. Zazpigarren hilabetean ezkontza ipini nuen; bederatzigarrenean, haurdun gelditzea; jaiotzea, hamazortzigarrenean, eta lasaigarriekin izandako istri-pua, hogeigarrenean; senarrarekin itzultzea, hogeita bigarrenean, eta komunean itxi zen egunekoak, hogeita bosgarrenean.

Sofiaren ahizpak gordea zuen senarraren dei gehienak grabatuta zeuzkan telefonoa, badaezpada ere gordea, haien gordina askabide izan zitekeelakoan, inoiz epaiaren aurrean frogatzea gisa erabili behar izanez gero. Harekin izandako azken aldian, nire eskuetan utzi zuen aparailua.

Lau hilabetetan bostehun bat dei; egunean bost dei batez beste.

Erantzungailu automatikoa aktibatu nuen. Neskalgunaren telefonoan grabatutako ahots bera entzuteak ilea lastu zidan. Banan-banan entzuten joan nintzen; batzuk laburrak, luzeagoak besteak. Lehenengoetan barkamena eskatzen zion, bueltatzeko, aldatua zela, tratamenduan jartzea erabakita zegoela, segituan hastekoa zela.

Berehala hasi ziren mehatxuak. Ezorduetan deitzen zuen, zenbaki ezkutu batetik batzuetan, ohiko telefonotik besteetan. Behin eta berriz errepikatzen zion zer gutxi balio zuen, zer zorte handia zeukan bera bezalako gizon bat ondoan edukita, bestela inor ez legokeelako harekin, inork ez baitzuen hura bezalako emakume batekin egon nahi.

Norekin eta non ibiltzen zen galdetzen zion. Norbaitekin ibiltzen zela enteratzen bazen, akabatu egingo zuela, baita Sofia bera ere, beharrezkoa bazen. Erasorako motiboa zen haurra ere: hura ikusteko eskubidea zuela esaten zion hasieran, ondoren bahiketaz salatuko zuela, ai-

taren eskubidea urratzen ari zela, eta garesti ordainduko zuela. Haurra kentzeaz mehatxatzen zuen. Salaketa egin zuela eta Polizia haren bila joango zela laster, Sofia atxilo hartu eta haurra aitarekin utziko zutela.

Mehatxuen ostean, bakea zetorren batzuetan. Salaketa erretiratu zuela, beste aukera bat merezi zutela, ezin zutela galdu elkarrekin zoriontsu bizitzeko aukera, haurraren ondoan biak goxo egon zitezkeela... Eta gero berriz eraso. Saria eta eraso, eraso eta saria.

Bi hilabete geroago heldu ziren mehatxu larrienak: «Ni espetxera joango naiz. Zu, lurpera».

* * *

Ahizparen adierazpena

Umearen urtebetetze eguna baliatu zuen etxetik alde egiteko. Senarra bere gurasoenera joan zenez, prestatutako dena hartu eta kalean zain zeukan kotxean sartu zen umearekin. Oso artega zegoen; atzera egiteko zorian izan zen,

baina plana antolatzen lagundu zion erizainak aurrera egiteko konbentzitu zuen.

Izan ere, ospitalera jipoituta iritsi zen egu-nean hasi zen dena. Medikiak ez zion ia jaramonik egin, ohiko artatzeaz gain ez zuen ezer jakin gura izan. Medikuari laguntzen zebilen erizainak, aurreko batean ere artatu baitzuen, beste modu baten jokatu zuen nire ahizparekin. Medikiak bere lana amaitu eta alde egin zuenean, erizaina eta biak bakarrik lotu ziren. Sofiaren zauriak garbitzen zebilela, ea inork jo zuen itaundu zion, masailekoren bat, ostikoren bat. Ahizpak ez zuen jakin zer erantzun; totalka hasi zitzaion erizainari, ateari begira, edonoiz baten bat sartu eta emakume bien arteko intimitatea apurtzearen beldur balitz bezala. Erizainak ez zuen amore eman eta bigarren itauna egin zion: «Salbu sentitzen zara zure bikotekidearekin?». Ezin izan zuen gehiago, hondoa jo zuen, dardaraz eta zotinka. Erizainak bere gorputzaren kontra estutu zuen, besoa ferekatu zuen lasaiago sentitu zuen arte, berbak goxo, arnasa bare, mina ia senti ezinezkoa egin arte.

Salatzeko eskatu zion. Alferrik. Ahizpak ezetz esaten zion, ez zuela nora joan, ez zuela baliabide ekonomikorik, umea, etxea... Hamaika arrazoi eman zizkion bere desarrazoian salaketari ezetz esateko. Erizainak Sofiaren moduko emakumeak hartzeko zentro batez egin zion berba, tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeen defentsarako elkarte batez, zulotik irteteko moduez eta premiaz. Sofia ezetzen eta baietzen amaraunean lotu zen. Txarto marrusketaturiko atea legez sentitu zen: erizainak ate bat zabaldu nahi zion, baina atea lurzoruan trabatzen zen. Une hartan piztia sartu zen medikuarekin. Erizainak isilean segitu zuen lanean, senarrak Sofiaren nahasteaz eta burua galtzeaz esaten zituen denei baiezko keinua egiten; jakin zuen, baina, gizona medikuarekin berbetan zebilen une baten, telefono zenbaki bat Sofiari pasatzen.

Hasieran ez genuen jakin non sartu zen, Sofiak deitu zigun arte ondo zegoela adierazteko. Ez zigun besterik esan. Egun txarrak izan ziren. Gogorrak. Batetik, ez jakitea ahizpa eta iloba non zeuden; bestetik, gizon horren etengabeko deiak, mehatxuak, bisitak Sofiaz itaunka. Polizia-

ri hots egitear izan ginen, baina ez genekien hala jokatzuz gero ahizpari laguntzen genion ala kalterik egiten.

Egun batzuk geroago, erizain hura etorri zen neurera. Dena kontatu zidan, lasaitua hartu nuen. Ezin sinetsi nezake egoera hartan egotea, Sofiak guri ezer ez kontatzea, gugan baino, beste batzuegan bilatzea laguntza. Baina lasaitua hartu nuen. Eman behar zituzten hurrengo pausoak esplikatuz zizkidan erizainak, eta argi utzi zidan helburu nagusia: Sofia eta umea babestea.

Egunak joan eta egunak etorri, are handiagoa egin zen gure gaineko jazarpena. Etengabe deitzen zigun mehatxuka, irainka. Ezorduetan josten zuen gurasoen etxeko txirrina, oihuka hasten zen kalearen erdian. Gurasoek ezin izan zuten egoera hura eroan eta kanpora joatea ebatzi zuten, amaren herrira. Bakarrik gelditu nintzen. Orduan zuzendu zuen nireganantz bere amorru osoa.

* * *

Ezin kontzentraturik, musika behar nuela erabaki nuen, gogoari aire berria eman, ideiak arindu, oihuak eta mehatxuak soka motzean lotu. Musika aparailuan zegoen diskoa ipini nuen. Teklatu baten soinuak bete zuen langela, sokazko akordeek segituan lagunduta, eta emakume baten ahots heldua iritsi zitzaidan armairu gaineko bozgorailuetatik. Ezaguna egin zitzaidan, oroi-menean lokartutako zentzua iratzarri zidan letra ulergaitzak. Begiak itxi nituen, kantuaren hitzek nora eramaten ninduten ikustearren, perkusioaren erritmoan noraezean joateko.

Picasso kaleko andrearen begitartea irudikatu nuen itzalean, pozFló ezin ahaztuzkoa, eta Sofiaren ahizparekin lehenengoz izan nintzen egunaz gogoratu, bueltako bidaiaz, autoan ulergaitz egin zidan bozaz. Kompas eta kontrapasik gabeko soinuari adi segitu nuen, orduko hartan ezin ulertuzko egin zitzaidana konprenitzeko ahalegintxo soltean, emakumeak defendatzeko elkarteko andreak sentitu zuen esperantza dantza lotura atera nahian.

Kanta berria belarri ertzera heldu bezain laster ezagutu nuen. Hura zen autoan entzun nuen

abestia, orduan bezain kriptikoa. Kantariaren izena bilatu nuen CDan: Haris Alexiou. Greziako abeslari bat zen. Diskoaren kutxa apaletan bilatu, kantaren zenbakia begiratu eta letraren itzulpena irakurri nuen liburuxkan: Tora ki egó tha ziso (Orain ni biziko naiz).

Zure ondoan,
espetxe hotza eta bakardadea,
bizi izan ditudan urte guztien ondoren,
zugandik urrun egin nahi dut hegan,
nire hegoekin egin ere.
Bizitzaren muturrean lapurtutako urteak,
eta ni bazter batean.
Itsasoek gainezka egin dute nire malkoekin,
baina aski da.
Orain ni biziko naiz.
Ez dut atzera egingo.
Berriz hasi nahi dut,
aske izan nahi dut.
Olatu batek bezala jo zenuen nire bihotza,
baina egonarri handiko pertsona nauzu,
eta nire egin nituen zure ametsak.
Nire artean, dena aldatuko zela esaten nuen.
Orain ispiluari begiratzen diot,
nahigabeturik,

denboraren seinaleak neurtzeko.
Nire bizitzaren zatiren bat
aurkitu behar dut nonbait.
Orain ni biziko naiz.
Ez dut atzera egingo.
Berriz hasi nahi dut,
aske izan nahi dut.

Aulkiaren burdina bizkarrean sentitu nuen;
indarrez sartu zitzaizkidan Alexiuren ulertu ezi-
nezko hitzak, musika tresnen erritmo askea; gre-
kozko hitzak ondoko itzulpenekoarekin berdin-
tzen saiatu nintzen, esanahia aurkitu nahian.
Baina letratik harago zegoen esangura: abesla-
riaren oihu askatzailean, etorkizunera zabaltzen
den deiadar salatzailean: tora ki egó tha ziso!

Ezetz nioen neure artean, ezin zela izan;
senak, aldiz, baietz, kasualitate gehiegi zirela
guztia patuaren ondorioa izateko. Neskalguna-
ren eskuko ordenagailuan gakoa sartu nuen,
Nire dokumentuak izeneko karpetan zerrenda
luzea pantailaratu zitzaidan. Zenbait arloren ara-
bera sailkatuta zeukan informazioa: Musika, Li-
buruak, Argazkiak, Gastuak... Karpeta handiota-

tik kanpo, Word dokumentu piloa. Ez zegoen nire susmoa egiazta zezakeenik.

Berriz sakatu nuen *Nire dokumentuak* adierazten zuen botoia. Barran gainerako karpetak zabaldu nituen: *Dokumentu konpartituak* eta *Aholkulariaren dokumentuak* izeneko karpeta bi. Hurrena, *Bideo konpartituak* izenekoa zabaldu nuen berehala. Hutsik zegoen.

My izeneko karpeta batek arreta eman zidan: gainerako karpetek argi erakusten zuten zein material gordetzen zuten; hark, aldiz, *my* misteriotsu baten azpian ezkutatzen zuen. Bi klik egin nuen gainean. Beste zerrenda bat zabaldu zen, sei karpeta horirekin eta hamaika Word dokumenturekin. *Ordutegiak* izeneko karpeta bati erreparatu nion lehen begiratuan.

Aurreko urteetako karpetak zabaldu eta hilez hileko sailkapenari jarraitu nion. Sofia ospitalean artatu zuten egunetako txostenak hartu eta datak eta orduak begiratu nituen; gero, egun eta ordu haiek neskalagunaren ordutegian bilatu nituen. Sinestezin iritzi nion begien aurrean nabarmentzen ari zitzaidan susmoari, baina datuek erreal egiten zuten ordura arteko ustea: Sofia in-

gresatu zen egunetako bitan, larrialdietako zerbitzuan lanean zegoen neskalaguna!

Ezin zitekeen, nola esplikatu aurreko egunetan jazotakoa, nola ulertu gertaeren atzean nor eta bera izan zitekeela. Horrek ez zuen ez hankarik ez bururik. Zoratzeko modukoa izan zitekeen. Begiak indarrez itxi nituen. Abeslariaren ahotsa, nire itsua, haren kemena, haren sua. Ordenagailuaren zorroan bilatu nuen, etsi-etsian, zeren bila nenbilen jakin gabe. USB flash drive bat zegoen.

Loturan sartu eta hango dokumentuak aztertzeari lotu nintzaion: zenbait argazki, Word dokumentu bat, WMV bat eta beste artxibo batzuk. Une hartan gelditzen zitzaizkidan zalantza apurrrak birrindu zituen Word dokumentuaren izenak: Sofia. Urduri, bideo artxibora eramane nuen saguaren erakuslea eta gainean klikatu nuen. Segundo batzuk eta han nituen zortzi egun lehenagoko irudiak, Sofiaren ahizpari emandako jipoi, senarraren autoa... Orduan, baina, bideoko protagonistak guztiz ezagun baziren ere, inoiz baino galduago sentitu nintzen, noraezean, argibidez husturik.

Telefonoan neskalogunaren zenbakiak teklatu nituen astiro. Joka hasi zen. Begiak itxi nituen, neskalogunaren ahotsaren beldur, zer esan eta nondik hasi ez nekiela. Manipulatuta sentitu nintzen ostera ere, ulertzen ez nuen joko bateko txotxongilo. Nork mugitzen ditu sokak? Nork idatzi du antzezlanak? Nor da zuzendaria, nor jardulea?

Joka segitu zuen harik eta erantzungailu automatikoa aktibatu zen arte. Ordua begiratu eta jadanik gurasoenean egon behar zuela erabaki nuen. Haienera deitu nuen.

- Ez da iritsi -amak hartu zuen-. Aspaldi gaude zain. Ez gara bazkaltzen hasi. Non sartu ote da!

Taxi bat eskatu nuen, hiritik neskalogunaren jaioterrira zegoen ordu erdiko bidea egiteko. Sekula ez dut ahaztu egun euritsu hartako sufri-mendua, ezintasuna...

- Lasai hartu beharko dugu -esan zidan gidariak-, kolapsaturik daude errepide gehienak: is-

tripuak, matxurak... Badakizu zer den hau euri pitin bat egiten duenean.

Ez nion aditzen. Semaforoak adoretzen nituen gorritik berdera pasa zitezen; arinago esaten nion aurrekoari pasabide guztietan, biribilguneetan; indarrez sakatzen nuen eskumako oina autoaren behealdearen kontra, hala azeleratzea banu bezala.

Azkenean hiritik irten eta bideari lotu gintzaizkion. Alferrik, irteerarik gabeko tranpa bat izan zen. Zenbat gauza pasa daitezke halakoe-tan buru lanbrotutik? Zein laburra den pentsamendu bakoitzaren bidea! Zein txikia ideia bati eta besteari ematen diozun irteera!

Telefonoa bilatu nuen jakan eta lau bider deitu nuen. Erantzunik ez. Gidariak hizketan segitzen zuen, isildu gabe, euri ziri nekagarri hura bezain sarri. Haren hitz jarioari jaramon egiten ahalegindu nintzen pentsamendu gaiztoak une batez baztertzeke. Istripu batez ari zen, kilometro batzuk lehenago izandako istripuaz.

- Auto bat errepidetik irten eta maldan behe-ra joan da -esan zuen-. Goizeko lehen orduan

izan da. Autoa igotzeko lanetan, kale bat hartuta daukate garabiek eta suhiltzaileek.

- Non gertatu da?

- Ez dakit zehazki. Baina gure bidean izan da. Herria baino lau kilometro lehenago dauden bihurguneetan ziur aski, errepidea estutu eta larregi ixten den tokian. Gaizki seinaleztatuta dago -segitu zuen berbetan-, eta ondo ezagutzen ez baduzu, erraza da pinudian behera joatea...

Telefonoz deitu nuen osterera ere. Ezer ere ez. Erantzungailuaren ahotsa. Hotza. Jarlekuaren bizkarraldean behera irristatu nintzen, etsipenez; begiaren ertzean agertutako ur gazia lehortu nuen hatz erakusleaz, eta estu hartu nuen ahoa goiko ezpainaren gainean, barrutik zetorkidan zotina mututzeko. Ezkerreko belarrian urduritasunezko azkura sentitu eta igurzten hasi nintzen suabe. Urrun entzuten nuen ondoko berbaro isil ezinezkoa.

Etengabeko zirkinetan eman nuen hurrengo ordu erdia, harik eta Poliziak pasoa txandaka ematen zuen lekura iritsi ginen arte. Taxitik arrapaladan irten eta ehun bat metro aurrerago ze-

goen agentearenganantz jo nuen lasterka. Gelditzeko eskatu zidan, ezin pasa zitekeela argudiatu eta autora itzultzeko agindu. Totelka hasi nintzaion, keinuka, aurrera segitzeko ahalegin antzuan. Lasaitzeko galdegin zidan. Poliziak beste agente bati deitu eta hurbiltzeko eskatu zion, zirkulazioa hark bidera zezan. Metro batzuk aurreago errepide ertzeko baranda hondaturik zegoen, ibilgailu batek haren kontra jo eta metro batzuetan harramazkatu osteko zikin iluna; aurreago, hautsia zen lekuan, auto baten gurpil marka nabariak zeuden, errepideari lotzeko ahalegin etsiaren zantzu erreak.

Beste polizia bat etorri zen eta dena esplikatu nion berriz ere.

- Ze markako kotxea den jakin behar dut.
- Mini bat. Horia.

Babeslekua bilatu nuen begiekin, zeri heldu, non oinarritu.

- Ezagutzen duzu? -galdetu zidan poliziak.
- Bai. Nire neskalagunarena da.
- Seguru zaude?
- Baietz uste dut.

Telefono deiez mintzatu nintzaien, erantzunik ezaz, susmoez, beldurraz...

Poliziek galdera piloa egin zidaten jarraian, zergatik beldur hura, zer zela eta haraino hurbiltzea, zergatik pentsatu neskalgunak istripu bat izan zezakeela, nondik eta kezka hura...

Ez nuen galdeketa haren arrazoia ulertu.

- Zelan dago nire neska?

- Hemen galderak guk egiten ditugu. Egon zaitez trankil. Istripu bat izan da eta gauza asko daukagu ikertzeko.

- Zer uste duzue, zerikusirik izan dezakedala istripuarekin?

- Inork ez du halakorik esan.

- Oraintxe iritsi naiz taxi batean!

Une hartan amaitu zuten autoa errepideraino igotzeko lana. Bertatik bertara agertu zitzaidan neskalgunaren Cooper horia: zeharo txikitua aurreko aldea, kristal osoa barrurantz sartua, eskumako albo mailaturik.

Hutsik zegoen. Errepidean jarri zutenean, gidariaren atea falta zela ohartu nintzen. Urduri, pauso zalantzazko bat aurrera eman eta mesez ikusten uzteko eskatu nien poliziei, dardar-

ka, metro erdi eskasera neukan autoa, baina ezin ikus nezakeen barrukoa.

Ez zidaten trabarik egin eta pixka bat hurre-ratzen laga zidaten. Burura eraman nituen eskuak, etsipenez ileak nahastu, eta poliziei begi-ratu nien, autoaren aginte panelaren gainean ze-goen odol putzua seinalatzeaz batera.

- Non dago? Utzidazue ikusten!

- Ospitalera eroan dute. Ezin dizugu gehiago esan. Zatoz gurekin.

Auto batean sartu ninduten eta hirira itzuli ginen. Taxiaren ondotik pasatzean gidaria ikusi uste izan nuen, imintzioka, dirua eskatzen; ikusi uste izan nuen neskalagunaren aurpegi irribarre-tsua goiz hartan bertan lanean gogor jarduteko esaten zidala, errukirik gabe dena kontatzeko eskatzen; ikusi uste izan nuen polizietako batek ukabila itxi eta erpurua beherantz jarriz zerbait adierazten ziola bere kideari; ikusi uste... Irudi guztiak hautsi zituen sirenaren durundiak.

Ordu erdiko egonaldia izan zen polizia etxean. Susmoen arabera, bigarren ibilgailu batek zeri-

kusia izan zezakeen neskalgunaren istripuan, errepideko marketan auto baten gurpilak baino gehiago antzeman baitzitezkeen. Miniak ezkerrean zuen kolpea ere susmagarria egin zitzaion. Azken egunetako jazoeren berri eman nien nik: notarioaren semearekin izandako gorabeherak eta atarian izan nuen eraso. Datu guztiak apuntatu eta utzi zidaten ospitalera joaten.

Konorterik gabe iritsi bazen ere, esnatuta aurkitu nuen larrialdiko box batean. Lankideekin berbetan zegoen neskalguna. Irribarretsu begiratu zidan, umorea galdu barik. Zauri handia zuen kopetaren eskuman, bekainaren erditik lokirantz, josi berria. Aurpegia ebakiduraz beterik zeukan, odoletan goiko ezpaina, harramazkaturik kokotsa.

- Besoa eta sorbalda oso minberatuta dauzkat, baina ez dirudi apurtuta daudenik. Erradiografia batzuk egin behar dizkidate. Eta eskaner bat ere bai, buruan kalterik dudan ikusteko.

- Bera izan da? -lehenbailehen jakin nahi izan nuen.

Aurpegiko zauriak garbitzen ari zitzaion erizainak azpilean utzi zuen ebakiduratik ateratako

kristal bat. Klik! Zaratak atentzioa eman neska-lagunari eta hara desbideratu zituen begiak. Ez-tarria leundu zuen, berbetan jarraitu baino lehen:

- Ez dakit. Hain arin gertatu da dena! Konturatu naiz atzetik auto handi bat zetorkidala. Baina ez zen berdea, hori argi daukat.

- Ez zen notarioaren semearena beraz?

- Bihurgune batera iristen ari nintzenean, kolpe handi bat izan dut ezkerraldean. Bide bazterrera bultzatu naute... eta barandaren kontra jo dut. Autoak azeleratu eta bultzaka segitu du, nirea arrastaka eramaten. Uste dut galga zapaldu dudala birritan, baina atzeko autoak indar handiegia zekarren. Baranda apurtu da bat-batean eta maldan behera hasi naiz... Besterik ez daukat gomutan. Ospitalean itzarri naiz.

Eskutik oratu zidan, hortzak beheko ezpainaren kontra, begiak indarrez itxita, beste klik bat aluminiozko erretiluan. Pitin bat agonduta esan zidan:

- Esku onetan nago. Zoaz etxera. Ez galdu denborarik. Idatz ezazu erreportajea. Emaiozu gogor, errukirik gabe.

Artatu zuen medikuarekin mintzatu nintzen, zaurien eta minen garrantziaz jakitearren. Inportantzia kendu zien, ebakidurez eta zauriez gainera, makatu batzuk izan zitzakeela uste zuen, besterik ez.

- Frogak egin eta emaitzak ikusi arte itxaron beharko dugu. Buruan badu kolpe bat... Orno zerbikaletan kalterik daukan ere aztertu nahi dugu. Baina dena espero bezala baldin badago, etxera bidaliko dugu.

Neskalagunaren ondora itzuli nintzen. Bakarrik zegoen. Andaren ondoko mahai zurian kristal FlimiFlomez beteriko azpila, odol zipriztinez gorrituriko zilar kolorea. Haren ondoan jesarri nintzen, eskuaz egindako gonbidapenari kasu eginda. Atzera erretiratu nion begiaren gaineko zauria estaltzen zion adatsa. Fereka leun bat. Bion begiradak espazioan elkartu eta erantzun bat bilatu zuten bestearenean:

- Zergatik?

* * *

Erizainaren adierazpena

Sofia ez zegoen salaketa aurkezteko prestatura, goitik behera desegindako emakume bat zen, beldurtua, zalantzaz josia, noraezean. Makina bat emakume ikusi dugu egoera bertsuan eta esperientziak irakatsi digu zein den halakoetan aurrenengo helburua: pertsona eraikitzea, aurrera ateratzea. Beldurrak neutralizatuta dagoen pertsonak ezin du erabakirik hartu. Horregatik ez zuen salaketarik aurkeztu.

Sofia bizkortu arte itxoitea erabaki genuen. Gure helburua salaketa egitea zen. Senarraren dei guztiak grabatzen jardun genuen eta haiek gordetzen; ospitaleko txosten medikuak eskuratu genituen, eta harrera etxeko psikologoak eta abokatuak dena prestatzen hasi ziren.

Baina gau batean, Sofiaren ahizpa gure abokatuetako batekin biltzeko gelditua zela, eraso egin zion basapiztia horrek, autoaz atzetik jo eta kolpeka bota zuen lurrera.

Larregi zen, ezin itxaron genezakeen Sofia sendatu arte. Nire mutil-lagunari tratu txarrei buruzko artikulu bat enkargatu zioten lanean, informazioa biltzen zebilen, informazio hotza, ano-

nimoa, artikulu gatzgabe bat prestatzen ari zen. Orduan bera historia honetan inplikatzeari bururatu zitzaidan, informazio pitin bat eman, zantzuen gainean jarri eta... lana egiten uztea.

Elkarteko presidentek dena ezkutuan egin behar zela esan zuten: harrera etxeak ezkutuan segitu behar zuela, hura da-eta etxean bizi diren emakumeentzako segurtasun printzipioaren oinarrietako bat, inork ez jakitea zehazki non dagoen. Onartu egin genuen. Sofiaren ahizparekin elkartu eta dena antolatu genuen. Lehendabizi, hala ere, presidentek mutil-laguna ikusi nahi izan zuten, haren gaineko inpresioa hartu. Horregatik asmatu genuen osasun txartel galduaren aitzakia, mutila ezagutzeko aukera izan zezan.

Dena espero bezala irteten ari zen, baina ezuste bat izan genuen. Guretzat ezinbestekoa zen notarioaren semearen gainean ahalik eta informazio gehien lortzea, hark guri buruzko datu-rik eduki gabe betiere. Mutil-laguna psikologoarekin harremanetan jarri zenean, aldiz, okertzen hasi ziren gauzak: psikologoak bere senargaiari esan, hark notarioaren semea, eta nire mutilaren kontrako eraso heldu zen etxeko atarian.

Orduan kezkatzen hasi ginen, gauzak oker zitezkeela pentsatzen. Harrera etxean, bestalde, Sofia pozik sentitzen zen: gauzak ulertzen hasi zen, bizitza beste modu batean hartzen, bere amorrua kontrolatzen... Baina ezin zuen oraindik senarrarekin zuen animoa kontrolatu. Ia hiru hilabete zeramatzan bera ikusi gabe, berarekin berba egin gabe; gero eta gaitzagoa egiten zitzaien egoera. Aire falta zuela sentitzen zuen, ezin zen hura gabe bizirik sentitu, ezin zuen burutik kendu. Ikaragarria begitandu zitzaigun. Pena eta amorrua sentitu genuen. Berriz ere.

Abstinentzia sindromea sufritzen zebilen: antsietatea, tristezia, harremanari buruzko pentsamendu errepikariak, etsipena, eta batez ere senarrarekin berriz harremanetan jartzeko desioa. Egoeraren aurrean, gauzak azkartu behar genituela ebatzi genuen. Horregatik, lagun batekin afaltzen ari nintzen gau hartan, hura agertu, autoan kolpe bat eman eta telefonoa eskatu zidanean, ematea erabaki nuen, nahiz eta gainean zetorkidanaz oso jakitun izan ez.

Deika hasi zitzaidan, Sofiarekin izandako jokabide mehatxatzaile bera erabiliz. Mezuak gra-

batu eta gorde egiten nituen. Etxearen aurkako erasoak, harria leihoaren kontra... Plantak egin behar izan nituen mutila adoretzeko: Sofiaren ahizparekin elkartu eta haren istorioa entzun ondoren -zenbat aldiz nuen entzuna ordurako!-, artikulua idazten animatu nuen, ahalik eta arinen amaitzeko.

Nork espero zezakeen, baina, ni hiltzen saiatuko zela?

* * *

Etxera joateko baimena eman zion medikuak, atsedena hartzeko aginduta.

Poliziak ez zuen frogarik aurkitu notarioaren semea istripuarekin lotzeko. Koartada on bat zeukan: aita.

Hurrengo bi egunetan jo eta ke jardun nuen artikulua idazten. Sofiak pairatutako sufrikarioa aipatu nuen, bai, baina batez ere tratu txarren emailearen zigorgabetasunaz jardun nuen luze, datuekin eta adibideekin. Ez nuen sufrimenduzko istorio negargarri bat idatzi nahi, injustiziaren

kontra oihu egitera eramango zuen artikulua bat baizik.

Biktimarekiko sentimenduak espazio gehiegi hartzen ari zirela ikusten nuenean, artikulua amorrua ez baizik eta gupida eragin zezakeela begitantzen zitzaidanean, pantailaren goiko aldean letra handiz idatzitako kartelari erreparatzen nion, biktimaren bila ibili beharrean, erasotzailea zigortzea bilatu behar nuela gogoratzeko.

Bi egunen buruan aurkeztu nion zuzendariari, lehen orduan. Nire lanpostura itzuli eta gorputza aulkiaren gainean erortzen utzi nuen. Bero sentitu nuen, izerditan. Aire girotuaren tenperatura aldatzeko tramankulura hurreratu baina hura oso egokia zela iruditu zitzaidan. Sarreran zegoen ur ontzitik edan nuen sarri. Aulkira itzuli nintzen. Ordenagailuan posta elektronikoa aztertu nuen. Spam batzuk ezabatu, lagunak bidalitako mezu argazkidunak interesik gabe ikusi, langileen batzordearen oharrak axola barik irakurri... Berriz altxatu nintzen eta aldizkari bat hartu nuen ondoko lankidearen mahaitik. Orriak pasa eta pasa ibili nintzen, zaratatsu. Sapa eramanezina. Euria kalean.

Zuzendariak bulegora deitu zidan ordu erdi geroago. Sailburuarekin batera zegoen. Kopetako bustia lehortu nuen zapiatz, eskuak igurtzi, ez-painetan sentitzen nuen zer oretsua garbitu.

- Lan bikaina egin duzu, zorionak! Igandean argitaratuko dugu. Erreportaje nagusia izango da. Kolorezko argazkiak eramango ditu. Dei nabarmen bat agertuko da azalean.

Gaztigu bakar bat egin zuen, aldizkariarentzat problematiko izan zitekeelakoan:

- Aipatzen dituzun izen-abizenen ordeez, hasierako letrak jarriko ditugu -bostekoa eman zidan, tinko; ez zuen besterik gehitu.

Bulegotik irten eta zorionak eman zizkidan sailburuak ere.

- Egin itzazu agindutako aldaketak eta zuzenean goaz aurrera. Aukeratu argazkiak eta utzi dena prest paperezko ediziorako eta digitalerako. Bihar arratsaldeko bostetan editatuko dugu.

Bost argazki: bideoaren hiruko sekuentzia bat, autoa eta kolpeak, zabalean jartzeko; notarioaren semearen enpresaren publizitatea, erai-kuntza lan batzuetan hartua, eta beraren beste

argazki bat, Sofiaren ahizpak bezperan bidalia, Montero Sportaren ondoan irribarretsu.

Izenburua idatzi nuen, letra handiz, bi lerro, argazki sekuentziaren gainean, nabarmen. Ez nuen zuzendariaren agindua bete: ez nituen erasotzailearen izen-abizenak ezkutatu, bere hartan utzi nituen. Dena USB memorian gordeta alde egin nuen etxera, biharamunean bidaltzeko, azken-azken unean.

Asteburua kanpoan pasatzea erabaki genuen, kostaldeko herrixka batean, bion zauriak zaintze aldera. Igande goizean erosi nuen aldizkaria kioskoan. Gelara eraman nuen; igogailuan begirada azkarra, gauza bakar baten bila, zentsurarik gabeko desioa taupadetan. Irribarretsu sartu nintzen gelan eta neskalagunaren besarkadaz gozatu nintzen, egindako lanaz, ibilitako bidez, azken urratsaz.

Eguerdian hasi ziren telefonoak astrapala batean. Gorrarena egin genuen, salbu eta arratsaldeko lau eta erdietan neskalagunarentzako deia-
ren aurrean.

- Ez dakizu zer egin duzun! Honetatik ez zara bizirik aterako!

Erantzun ere egin gabe, garaipenaren goxoa dastatuz eten nuen, izukaitz. Zaurituta zegoen piztia. Inoiz baino arriskutsuago akaso; baina baita huts egitetik gertuago ere. Esperoan geratu ginen, paseoan, itsastxoriei begira. Sofiaren ahizparekin lehen aldiz elkartu nintzen labarretan libre, euri zirinaren azpian libre; horrela sentitu ginen asteburu hartan: garaile.

Astelehenean bekozko ilunez zain neukan sailburua erredakzioan. Gutun azal itxi bat eman zidan, sorpresarik gabea. So egin nion mahaiari, ordenagailua egon zen lekuari, kartoizko kutxari, nire paperak biltzen ari zen mandatariari. Hitzik ez. Kaxaren bila hurbildu nintzen, gutuna zabaldu barik.

- Dena batu duzu? -galdetu nion.

- Bai -bostekoa luzatu zidan mandatariak-. Hau ez da zuretzako moduko tokia. Hemen ez dago kazetaririk, azkonarra baino ez.

- Eskerrik asko.

Kutxa hartu, bulegoari azken begiratu eman eta kalera joan nintzen. Pisu barik jaitsi nituen

eskailerak, pozarren. Haize hotza sentitu nuen atarian.

Hodeietara begiratu nuen, ateri zen aspaldiko partez. Errepidea zeharkatu eta aurreko kafe-tegian sartu nintzen. Irabazleek garaikurra bezala, hala altxatu nuen kutxa sarreran. Hurreneko mahaiaren bueltan zeuden hiru emakumeek beren garagardoak jaso zituzten, garailearen gorazarrez.

Desafiatzen ausartu eta ordaintzea egokitzen zitzaidan. Hura, azken finean, espero genuen arinena zen, desafioaren ordain askoz garestiagoa espero baikenuen. Eta uste ez genuen tokitik etorri zen. Berrogeita zortzi ordu geroago, epaitegietako deia hartu nuen etxean. Hara joan eta nire aurkako salaketa bat egina zela jakinarazi zidaten.

Ez nuen espero. Eraso bortitzaren zain egona nintzen gau eta egun. Lagata neukan tabakoari heldu nion berriro, hatzen artean dantzan, ahoan bero, eztarrian lakar, biriketan pozo. Luzeegiak gauak, urduriegiak egunak. Susmagarri bihurtu ziren zaratak, ikaragarri itzalak, erasokor urrun-tzen ez ziren oin hotsak, kezkarri ezagutzen

ez nituen deiak. Baina ez nuen salaketarik espero.

Neskalagunak, aldiz, harrotasunez hartu zuen auzitegia:

- Hauxe da prestatu genuen planaren azken geltokia, notarioaren semea irteera bako kalekara eramango duena. Gura genuen tokian daukagu atuna, kosk egin dio amuari eta buztanka dabil, itsuan, kolpeek eztarria urratzen dioten burdinatik libratuko dutelakoan.

Emakumeen Defentsarako Plataformako presidenteari hots egin zion salaketaren albistea ematen. Oihu bat entzun nuen telefonoz bestaldean, aspaldian gatibu egondako sentipen bat, betiko askatutako desioa.

Gauza handia da difamatzea, inoren aurka gaizki esaka ibiltzea. Desohorea da. Eta iraina. Bidea ematen dio difamatuari justiziaren babesa eskatzeko. Frogatu behar izaten du, eta ez da beti erraza izaten. Horregatik, laido eta irain horiek ukatu nituen epailearen aurrean; artikuluan idatzitako guztia egia zela argudiatu nuen, egu-

nero eguzkia irteten den bezain egia, hura bezain biribila. Adierazpenak nork egiaztatu, esanak frogatzerik nuen galdetu zidan epaileak, eta nik, arrantzan hasi berria, nire abokatuari so egin eta, beraren begiak gidari, baietz adierazion, dena, eta gehiago ere bai, froga nezakeela.

Bi hilabete eman genituen epaiketa prestatzen, bi hilabete artikuluan jarritako guztia jantzeko arroparik onenak atontzen, jantzi bakoitzaren kolorea nabarmenduko luketen osagarriak moldatzen; banan-banan antolatu genituen artikuluko esanak berretsiko zituzten pertsonak; ezker-eskuin zerrendatu genituen Sofiaren senarrak egindako deiak, datak, mehatxuak... eta erasoak; karpeta berritan ordenatu genituen ospitaleko txostenak eta psikologoaren informeak.

Artegaturik ikusi nituen aurreko hiru hilabeteetan sarea osatzen ederto ibilitako lagunak, baina tinko, eskura zuten arraina ihesbiderik gabeko ahalegin hartan ikusita. Dardararik gabe berretsi zituzten artikulukoak, totalkeriarik gabe jardun zuten abokatuen galderen aurrean, toles-

turarik gabe aurkeztu zituzten epaileak arestian galdegindako frogak, eginak eta pairatuak.

Azken egunera heldu gara. Epaileen aurrera eramatea zuten helburu, plana prestatu zute-nean. «Epaile bati senarra auzipetzeko nahikoa froga ematen badiogu», esan zioten elkarri Sofiaren ahizparen aurkako eraso izan zenean, «epaileak ez du beste aukerarik izango, auzia ireki beharko du, nahitaez». Hartarako egin zuten lan, hartarako diseinatu zituzten pauso guztiak, aurrez pentsatutakoak eta bat-batean sortuak.

Eta, zergatik ez aitortu nire mina?, erabili ere egin ninduten hartarako. Saiatu naiz haien jokabidea ulertzen, ni nahierara dantzarazteko erabakia zurriz, eta beti gelditzen zait hondar mingots bat, kostata joaten zaidana, mihiaren gainean listu oretsuak nola, zapora txarra uzten didana. Badakit jakin bihar bestela ikus dezakedala dena, bihar senti dezakedala orain arteko guztiak balio izan duela, bihar azken ur tragoa hartuta nabari dezakedala ahoko errepesa garbitua dela, baina, gau honetan, mina dut lagun. Mina eta ilargia.

«Baten batek lanpara bat zintzilikatu du zero beltzean», esaten zidan amak ilargi betea erakustearekin batera. Aurpegi zikineko astroari begiratzen nion, eta amari ondoren, betazalak gero eta pisutsuago. Batari zein besteari esker oneko irria erakutsi nahi izaten nien, baina ezin, keinua lanbrotzen baitzidan loak. Aldian-aldian begiak zabalduz, ilargi anderea eta ama han ziren konprobatzean, gero eta apalago entzuten nuen sehaska kanta: «Egizu lo, maitea, egizu lo».

Orain, leihoko forjazko barren artetik niri begira dagoela sentitzen dut; zerua ia osorik estaltzen duten hodei formagabeetan bere tamainako behatxulo bat egiten jakin duela; orban beltzez zipriztindua aldatu barik «egizu lo, maitea, egizu lo» esan nahi didala. Baina ezin, bihar epaia emango dutela jakiteak artegatu bainau, eta loa uxatu.

«Ilargiak tranpa egiten du» kantari ari da Benito Lertxundi irratian, «Edertasunez estaltzen diren bideetan arrisku handia dago: liluraturik, haiengan pausatu eta oharkabean ito egiten zara...».

- Kareletik hur dago atuna -esan dit Sofiaren ahizpak gaurko saioa amaitu ostean-. Bihar azken kolpea, akabukoa.

* * *

Sofiaren adierazpena

Senarraren erasoekin egiten dut amets, oroi-menak jazarri egiten nau, behin eta berriz zabal-tzen zait itxi gabeko zauria. Desiozkoak ere izaten ditud ametsok, berarekin itzultzea amesten dut: itzultzen naiz, amarruz biltzen nau, eta gero berak uzten nau, eta barre egiten dit: «Orain nik utziko zaitut, zurekin itzuli naiz maite zaitudala pentsa zenezan, eta gero zu umiliaturik gaizki uzteko, zu mintzen jarraitzeko», esaten dit. Eta barre-karkara entzuten dut.

Hori da berarengandik egun gelditzen zaidan guztia: irrazionaltasuna, zentzugabekeria, ergelkeria. Trauma ondoko estresa deritzote. Trauma... Abstinentzia sindromea deritzote. Abstinentzia... Trauma eta abstinentzia. Hitz hotze-giak infernuaren ondorena esplikatzeko.

Gogoan dut lehen eraso, senti ditzaket haren eskuak nire masailak indarrez sakatuz, nire oihuak itoz. Dardara egiten didate hankek egun hartako ihesaldi antzuz pentsatzean, lasterka irteteko saio alferra, nire atzetik sentitzea, kolpea, airean altxatzea... Presioa dut bularrean atzetik zelan heldu zidan oroitzean, besoak ezin mugi lotu ninduela, oinak balantzaka. Indarrez eroan ninduen gela batetik bestera, ohe gainean jaurti... Lehena.

Ezin entzun ditzakezue, baina ozenak dira oso. Minez betetako oihuak dira, oihu itoak. Malkoek, mukiek, odolek itotako oihuak nire gogoa. Ezin duzue nire negarra eraman, ezin duzue entzun. Burkoa aurpegiaren gainean ezartzen zidanean nola, horrela sentitzen naiz zuen aurrean, zertan berba egiten nabilen ulertuko ez duzuen beldur.

Zer esan nuen? Zer egin nuen? Hamaika itaun neure buruari. Aditzen dituzue erantzunak? Ez dago. Ezin egon daiteke. Ezin da ulertu. Uler-tezina da.

Oso-osorik eman nuen neure burua, neure izana ipini nuen harremanean, eta egundoko

menpekotasuna sortu zitzaidan. Itxaropenetik beldurrera, beldurretik itxaropenera joaten nintzen etengabe, atzera eta aurrera behin eta berri, kontrol barik. Tratu txarren eta ezti aroaren etengabeko soka, sorgin gorpila. Ez nuen harremana galdu gura, ez nuen harremana amaitzea gura. Gauza bakarra gura nuen: bera jokabidez aldatzea. Energia asko erabili nuen jakiteko zer egiten nuen txarto, zertan alda nintekeen. Azkenean, baina, konturatu nintzen desagertzen nabilela, ni nintzen pertsona desagertzen zebilela.

Ez naiz errudun sentitzen, lotsatuta baizik, gauza horiek niri jazotzen uzteagatik. Emakume azkarra naiz, emakume indartsua, liraina, eta norberak beti uste du halako gauzak ez zaizkiela norbera bezalako emakumeei jazotzen.

Orain hor aurrean den gizonari begiratzen diodanean, gogora etorri zait zelan maite nuen..., irria, begirada, usaina... Sekula ez zuen jakin zelan maite nuen, ez zen gai izan beragatik eman nuen guztia ulertzeko. Hustu egin nintzen, beragatik hustu. Mina dut gorputzean. Negarra dut barruan, baina irri egin gura dut.

Orain ni biziko naiz. Errekuperatu dut neure buruarekiko konfiantza. Maite nauten pertsonak aurkitu ditut, lagundu gura didatenak. Entzun dituzue beraien hitzak, irakurri duzue beraien lekukotasuna. Nik ez dut besterik. Horixe da nire iragana. Hanka sartu nuen akaso; baina bizirik nago. Ezin uler dezaket zelan ez nuen lehenago erabakia hartu, zelan jasan dudan hori dena, zelan ipintzen nituen orain onartezinak begitانتzen zaizkidan aitzakiak... zelan maite izan dudan neure burua horren gutxi. Ezin uler dezaket, baina bihar ni izango naiz: Sofia.